

Haurrentzako eta
Nerabeentzako zerbitzuak

Betaurreko moreak gida



Argitaraldia:

2018ko udaberria.

Argitaratzaileak:

Gaztematika. Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sistema.

Egileak:


Ibai Fresnedo Moreno eta Joseba Gabilondo Markes. Arremanitz Kooperatiba.

Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Zerbitzua.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua.

www.gipuzkoangazte.eus





“Betaurreko moreak” Gaztematikan, haurrentzako eta nerabeentzako zerbitzuetako hezitzaileekin eta teknikariek osatu den hezkidetzari buruzko gida da; hain zuzen ere, elkarrekin egindako hiru urteko prozesuaren emaitza.

Bertan parte hartu duen taldeari, eskerrik asko.



AURKIBIDEA

1. EREMU TEORIKOA: Zer da hezkidetza?

1.1	Hezkidetza: parekidetasuna bermatzeko pedagogia	7
1.2	Pentazitatea eta garapen integrala	7
1.3	Hezkidetza hezkuntza ez-formalean: konpetentziak eta balioak	8
1.4	Hezkidetzaren erronkak	8
1.5	Hezkidetzari buruzko argibide eta estrategia konstruktiboak	8

2. BETAURREKO MOREAK: Nora begiratu?

2.1	Lantalde profesionala	11
2.1.1	Hezitzaileen Curriculum Ezkutua	11
2.1.2	Lantaldea: rolak, funtzioak, eta parte-hartzea	12
2.1.3	Hezitzaileen arteko harremana	13
2.2	Hezitzaile eta erabiltzaileen arteko harremanak	14
2.2.1	Tratu Onak: harremanak oinarri	15
2.2.2	Gatazken trataera eta hezkidetza	17
2.3	Materialak	18
2.3.1	Hezkidetzarako materialei buruzko irizpideak	18
2.4	Espazioa eta denbora	19
2.4.1	Espazioaren erabilera: errealitateak eta alternatibak	19
2.4.2	Denboraren kudeaketa: errealitateak eta alternatibak	19
2.5	Hizkuntzaren erabilera eta komunikazioa	20
2.5.1	Hizkuntza eta komunikazio parekideak bermatzeko irizpide zehatzak	21

3. LURRALDE PRAKTIKOA: Nola txertatu hezkidetzaz?

3.1	Hezkidetzarako plangintza: zerbitzua hezkidetzaz zipriztindu	24
3.1.1	Planifikazioaren elementuak	24
3.1.2	Planifikaziorako tresnak	27
3.2	Planifikazioaren eta programazioaren gakoak	32
3.2.1	Hezkidetzan oinarritutako programazioaren izaera	32
3.2.2	Programazioan txertatzeko aldagaiak	32
3.3	Esku-hartzearen gakoak	33
3.3.1	Kasu praktikoak	33
3.3.2	Hezkidetzaz lantzeko edukiak	37
3.3.3	Parte-hartze partekidea sustatzeko estrategiak	47
3.4	Ebaluazio-sistemaren diseinua	48
3.4.1	Ebaluazioaren garrantzia	48
3.4.2	Ebaluaziorako adierazle-motak	48
3.4.3	Ebaluaziorako tresnak	49

4. UDAL-TEKNIKARIAK: Hezkidetzaren aldeko apustua eta babesa

4.1	Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako teknikarien funtzioak eta jarraipena	54
4.1.1	Teknikarien funtzioak	54
4.1.2	Hezkidetzaz-lanaren segimendua	55


5. BALIABIDEEN KUTXA: Hezkidetzarako baliabide pedagogikoak

5.1	Glosategia	58
5.2	Eranskinak	61
5.3	Bibliografia	84



1

EREMU TEORIKOA: Zer da hezkidetza?

- 
- 1.1** Hezkidetza: parekidetasuna bermatzeko pedagogia
 - 1.2** Pentazitatea eta garapen integrala
 - 1.3** Hezkidetza hezkuntza ez formalean: kompetentziak eta balioak
 - 1.4** Hezkidetzaren erronkak
 - 1.5** Hezkidetzari buruzko argibide eta estrategia konstruktiboak

1. EREMU TEORIKOA: Zer da hezkidetzatza?

Haur eta nerabeekin hezitzaileok egiten dugun jarduna harremanetan oinarritzen den lan praktikoa bada ere, alderdi teorikoari ere heldu behar izaten diogu. Eta, hain zuzen ere, alderdi horretan murgiltzeko aukera ematen digu atal honek. Hezkidetzaren eremu teori-koan sartuko gara, beraz. Bidean hezkidetzaren oinarri-ekin edota pentazitareekin eta garapen integralare-kin egingo dugu topo. Bestalde, hezkidetzak hezkuntza ez-formalean duen funtzioari dagokionez, bere erron-kez edota estrategia konstruktiboez aritzeko parada ere izango dugu.

1.1 Hezkidetzatza: parekidetasuna bermatzeko pedagogia

Gaur egungo jendartea oraindik ere, androzentrikoa dela esan genezake, eta jendartearekin batera, nola ez, gure eskola, familia, harreman-sareak, esaterako. Gainera, neska zein mutilak identitate osoa garatzeko, behin eta berriz oztopoak izaten jarraitzen dute. Egun, mutilak gizontasun-eredu jakin eta zurrun bat bizitzera behartuta sentitzen dira, jendarteak, eskolak eta taldeak berak ezartzen dizkien balioen eta jarrerren ondorioz. Neskei, aldiz, jendartean baloratzen diren gaitasunak mutilenak direla esaten zaie eta, aldi berean, “benetako” emakume izateko feminitatea garatu behar dutela. Horrela, bada, hezkuntzak jendarte-egiturak errepikatzen eta egonkortzen ditu.

Hezkidetzak, hein batean, jendarte androzentriko horren egiturak eraitsi nahi ditu, eta neska eta mutil izateko ereduak malgutu. Horregatik, pertsona bakoitzaren banakotasunaren eta berezitasunen arabera, generotik at egiten den hezkuntza moduan definitu dezakegu hezkidetzatza.

Era honetan, irizpide sexistak albo batera utziz, emakumei eta gizonei egokitutako rolak, portaerak, jokiaerak, balioak eta abar kontuan hartu gabe heztea da hezkidetzatza-eredua. Azken batean, bilatzen dena da pertsona autonomoak haziz, norbere bizitza-proiektuaren jabe izatea eta, inguruarekin elkarbizitzan, behar dituen gaitasunak garatu ahal izatea; eredu femenino eta maskulino estereotipatu eta zurrun tradizionalak eta zaharkituak alde batera utziz.

Hezkidetzak, beraz, sexutik harago, denon gaitasunak garatzen laguntzen du eta erraztu egiten ditu identitate zabalak eraikitze bideak. Etorkizun alternatiboa lortu nahi duen hezkuntza da eta, ildo horretan, neskentzat eta mutilentzat aukera berdina izango dituen jendarte lortu nahi du.

“Neskak zein mutilak genero maskulino eta femeninotik aske heztean datza, bere indibidualtasunaren garapena sustatuz eta gizarte sexista batek eskatzen dizkien rola kontuan hartu gabe.” (Urruzola, M.J., *Introducción a la filosofía coeducadora*, Maite Canal (arg.), 1995, (267.or)

1.2 Pentazitarea eta garapen integrala

Pentazitarea hezkidetzatza-eredu globala da, pertsona ardatz gisa hartzen duena. Pentazitarearen helburua da pertsona bakoitzaren haziera integrala lantzea, pertsonaren gaitasunen garapen osoa kontuan izanik. Horretarako, bakoitzaren baliabideetatik abiatzen da, pertsonen bost esparruren garapen harmonikoaren bitartez. Eredu horrek pertsonen honako bost esparruak hartzen ditu kontuan: **adimena, gorputza, emozioak, identitate pertsonala eta esparru soziala.**

Garapen integrala ere ildo beretik doa: pertsonaren alde bakoitza eta, hein berean, osotasuna lantzea da integralki garatzea. Adimenak, gorputzak, emozioek edo alde afektiboak, alderdi soziala eta norberaren identitateak osatzen dute pertsona, eta horiek guztiak elkarren artean harremanetan daude, norbera osatuz. Garapen edo hezkuntza integral edo osoak alderdi horietako bakoitzaren oinarritzko gaitasunak lantzen ditu, alderdi bakoitzean ditugun hutsuneak edo ahuldadeak betetzeko baliabideak emanez.

“...se puede pensar en una educación de carácter holístico, que promueva una visión sistémica de las cosas y enfatice en el propio ser humano, con sus distintas facetas y explorando todo su potencial, entendiéndolo como una convergencia de aspectos físicos, emocionales, mentales, sociales, morales, y espirituales, como sujeto transformador de la sociedad y gestor de su propia realidad y que como modelo educativo pueda constituir una respuesta a la problemática planteada.” Wompner, G., & Fredey, H. (2008).

1.3 Hezkidetzak hezkuntza ez-formalean: kompetentziak eta balioak

Hezkuntza ez-formala da, jarrera kritiko batetik, aisialdiaren arloan balio eta kompetentzia batzuk garatu nahi dituen heziketa-lana. Bere helburua da bizitza-modu berriak sortzea eta pertsona askeagoak izango dituen gizarte zuzenagoa eta solidarioagoa egitea.

- **Balioak:** norberaren proiektu idealak, sinesmenak, iritziak dira, jendarte mailan eraikiak, portaera, nor-tasuna eta, azken finean, bizitza bideratzen laguntzen dutenak. (...) Balioek hiru dimentsio dituzte: objektiboa, subjektiboa eta soziala.
- **Kompetentzia:** "Egiten jakitean" datza, hau da, jakintza du kontuan, baina jakintza hori aplikatzean ere bai. "Egiten jakite" hori zenbait testuinguru eta egoera praktikotara egokitu, eta erabili ahal izan behar da. Eta azkenik, izaera integratua du, ezagutza, prozedurak eta jarrerak hartzen ditu kontuan.

Hezkuntzak, sexu- eta genero-diskriminazioa ekiditeko, honako balioak hartu behar ditu oinarri: parekidetasuna, elkartasuna eta askatasuna.

Eta kompetentziak? Nola dakigu horien garapena hezkidetzazkoa dela? Hona hemen adierazle batzuk:

- Pertsonaren garapen osoa eremu guztietan ahalbidetzea, pentazitatearen proposamenean, adibidez, identitatea, arlo soziala, adimena, gorputza eta emozioak direlarik.
- Pentsatu, sentitu eta egiten denaren arteko koherentzia barne izatea, norbere buruarekiko zein jendartearekiko kritikotasuna garatzeko.
- Kompetentzien garapena lagungarria izatea parekidetasunean oinarritutako elkarbizitzarako.
- Norbere ikaskuntza-prozesuaren eragile nagusia izatea. Erabiltzaileak boterea garatzea.
- Norberaren bizitzan, etxeko esparruan, lagun artekoan zein profesionalean... kompetente izateko lagungarriak izatea. Hau da, eremu publikorako, zein pribaturako kompetentziak izatea.

1.4 Hezkidetzaren erronkak

Hauk dira hezkuntza-komunitatearen erronkak hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko:

- Hezkidetzan oinarritutako aisialdiaren eredu sakon aztertzea, eta genero-ikuspegia zerbitzuetako kultura eta praktikan sartzea, planteamendu integral batez.
- Haur eta nerabeak orientatzea, bizitzan bidea aukera dezaten, askatasuna eta aukera-aniztasuna errespetatuz eta genero-baldintzapean gabe.
- Harreman afektibo-sexualak izateko eta elkarrekin bizitzeko hezteak, aniztasun sexualean eta emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunean oinarrituta.
- Hezkuntza-komunitate osoaren atxikimendua lortzea, genero-indarkeriari aurrea hartzeko, kasuak lehenbailehen detektatzeko eta biktimei arreta egokia eta eraginkorra emateko.

1.5 Hezkidetzari buruzko argibide eta estrategia konstruktiboak

Hezkidetzak-prozesuan, hain barneratuta izaten ditugun sinesmen faltsuei indarra kendu behar izaten diegu. Horren aurrean beharrezkoa egiten zaigu etengabe hautua egitea.

Horregatik, hezkidetzaren aldeko apustua egiten dugunean, hainbat alderdi kontuan izan behar ditugu. Hona hemen zenbait argibide garrantzitsu:

- Hezkidetzak lantzeak ez du izan behar lan gehiago, lan bera beste modu batean egitea baizik.
- Haurtxokoetan eta gazteleketan islatzen dena gizartean dagoen sexismoaren ondorioa da.
- Haurtxokoak eta gaztelekuak gizarte-aldaketarako eragile esanguratsuak dira.
- Diskriminazio sexistak gainditzeko, haurtxokoetan eta gazteleketan ere beharrezkoak dira ekintza positiboak.
- Aukera-berdintasunaren aldeko borroka emakumeen zein gizonen aldeko borroka da.
- Hezkidetzak, hezitzaile guztion ardura da.

- Norberak dituen estereotipoei eta haien transmisioari buruzko hausnarketa sakona egin behar da.
- Ez da nahikoa asmoa izatea, prestakuntza beharrezkoa da, gero praktikara iristeko.
- Adin guztietan lantzeko beharra dago.

Birziklapena

Edozein hezkuntza-proiektutan, hobekuntzak egiterakoan, momentuan duguna ezagutu eta onartu behar dugu, daukagun hori eraldatzeko. Onartzeak ez du konformatzen garenik esan nahi, egoeraz jabetu, eta edozein hobekuntza-proposamen egiterakoan hori kontuan izan dugula baino.

Hezkidetza-prozesuan ere hasierako egoera zein den kontuan izan behar dugu, hortik abiatuta eta hori kontuan izanik eraldaketarako aldaketak proposatzeko; hau da, egoera birziklatu behar da: desegin berregiteko /eraikitzeke eta eraiki desegiteko.

Sinesmenak, jokaerak, ohitura sexistak desegiten ditugun bitartean, berdintasunean oinarritutako ideiak, jarrerak, harremanak... eraiki behar ditugu. Aukera zabaltzearekin batera, eraikitzearekin batera, zaharkituta dagoena desegitea ere eskatzen digu, askotan azken hori zailagoa delarik.

Erresistentziak

Hezkidetza-lanaren aurrean erresistentziak azaltzen dira. Oso ohikoa da horrelakoak entzutea: ez dela momentua, beste lehentasun batzuk daudela, egin daitekeena egiten dela, betidanik izan dela horrela eta ezinezkoa dela aldatzea, hori emakumeen kontua dela...

Horregatik, oso garrantzitsua da estrategia egokiak erabiltzea erresistentzia horiek neutralizatzeko edota desagerrarazteko. Hezkidetzaren filosofiarekin bat egiten duten bost estrategia aipatuko ditugu:


- **Aliatuak:** identifikatetik hezkidetza-taldea osatzera. Egia da askotan haurtxoko eta gazteleketako berrikuntza asko bakarren baten esperientziatik hasi-

takoak izan direla; baina aisialdiaren eraldaketa bultzatu nahi badugu, harago jo behar dugu, eta banakako praktika horiek partekatu, sistematizatu eta orokortu, banakako lana talde-lana bihurtuz. Adib.: "Haurtxoko eta gaztelekuetz gain, herriko aisialdi-taldea ere hezkidetza-lanean aritzen dela badakigu, bada elkartu gaitezen beraiekin eta eraiki ditzagun aliantzak."

- **Esperientzia:** Haurtxoko edo gazteleku batekoa izatetik esperientzia partekatua izatera. Interesgarria eta beharrezkoa da esperientziak eta praktika partekatzeko aukera ematen diguten guneean egotea. Adib.: "Gipuzkoan, badugu Gaztematikako Hezitzaile Foroa. Badaude, halaber, hainbat herritan, udal-mailako hezkidetza-mahaiaik."
- **Informazioa eta prestakuntza egokia.** Hezkidetzaren presentzia, saio bateko prestakuntzan noizbehinkakoa izatetik, hezitzaileon etengabeko prestakuntzan egotera pasatu behar dugu. Lehen esan dugunez, ez da nahikoa nahi izatea, jakin ere egin behar da. Adib.: "Feminismoaren baitan asko idatzi da teoriaz eta praktikaz. Bilatu eta jantzi gaitezen hezitzaile gisa gai hauetan."
- **Orain arte egindakoa, oinarri.** Kontua ez da orain arte egindako guztia baztertzea eta hutsetik hastea. Lehen aipatu dugun moduan, birziklapena da ideia; jakin egin behar dugu zer dugun, orain arte egin duguna eta egiten ari garena jaso, hori baita garena eta, hortik abiatuta, hobetzeko urratsak planifikatzen eta ekiten hasi. Adib.: "Hezkidetzaren inguruan egin ditugunak jaso ditzakegu, dokumentatu. Horrela, orain arte egindakoak argi izango ditugu eta birziklagarriak direnak identifikatuta izango ditugu."
- **Umorea.** Zerbaiten alde borrokatzeak ez du esan nahi bizi-poza galdu behar dugunik, ondo pasatu behar ez dugunik. Ahaleginak egin behar ditugu, noski, edozein eraikuntza-prozesuk eskatzen duen moduan, baina aldi berean dibertigarria, zirraragarria eta ilusioz betea izan behar du.

2

BETAURREKO MOREAK: Nora begiratu?

- 
- 2.1 Lantalde profesionala
 - 2.2 Hezitzaile eta erabiltzaileen arteko harremanak
 - 2.3 Materialak
 - 2.4 Espazioa eta denbora
 - 2.5 Hizkuntzaren erabilera eta komunikazioa

2. BETAURREKO MOREAK: Nora begiratu?

Betaurreko moreen metafora hezkidetzaren begiradaz aritzeko erabiltzen dugu, ezinbestekoa baita momentu oro begirada hori izatea, ingurua kritikoki begiratu, aztertu eta parekidetasunerantz eraldatzeko. Baina norantz begiratu behar dugu? Zeintzuk dira eraldatzea ezinbestean eraldatu behar diren alderdi, jarrera eta praktikak hezkidetzaprozesuan?

2.1 Lantalde profesionala

Hezitzaileok funtzio garrantzitsu bat dugu haurtxokoak eta gaztelekuak hezkidetzazko eredurantz jartzera; izan ere, haur eta nerabeekin harreman zuzenetan gaude. Aurretik aipatutako parekidetasun, askatasun eta elkartasunaren balioak era pedagogikoan transmititzeko gaitasuna dugu hezitzaileok.

Beraz, hezitzaileok honako hauek egiteko moduan jartzeko aukera daukagu:

- Haurtxokoetan eta gaztelekuetan eman daitezkeen haur zein nerabeen arteko desberdintasuneko egoerak detektatu, haien jokaerak, jarrerak, hizkuntzak, pertzepzioak eta itxaropenak behatuz.
- Emakumearen ahalduntzea bultzatu, erreferentzia femeninoak eta emakumeen parte-hartzea sustatuz edota genero-harremanen eredu tradizionalak zaltzan jarritz.
- Parekidetasunean haur eta nerabeen garapen integralean esku hartu.
- Gure zerbitzuetan erabili daitezkeen material sexistak saihestu.

Bestalde, hezitzaileok haur eta nerabeen eredu izanik, hezkidetzarako lidergoa ere badugu, nolabait; horregatik, bi bide bereizi behar ditugu lor dezakegun eragine-rako:

- **Konbentzimendua** lortzeko ahaleginak egitea, inposatzea bilatu gabe. Horregatik, lidergoetan gako interesgarria izaten da konbentzimenduz aritzea, ziur egotea, sendotasuna, baita berdintasunik ez badago ere.
- **Esan eta egiten denaren arteko koherentzia.** Argudioekin eta proposamenekin ideologikoki konbentzimenduz gain, horretarako ekintzez ere baliatzea.

2.1.1 Hezitzaileen Curriculum Ezkutua

Curriculum Ezkutua, pentsamenduaren eraikuntza, balorazio, esanahi eta sinesmenen multzo barneratu eta ikusezina da, gizonak eta emakumeak eta haien arteko harreman eta praktika sozialak eraikitzen, egituratzen eta determinatzen dituen. Kulturaren nonahi dagoen heinean, instituzio sozialen zein banakoen parte da, kanpo eta barne mailan.

Curriculum Ezkutuaren egitura

Curriculum Ezkutuaren egitura, oharkabean lan egiten duen zerbait dela esan daiteke, hau da, norberaren barnean lanean ari diren indar moduko batzuk. Gauzak horrela, egitura hiru ataletan banatzen da.

- Batetik, ikusezina da, hau da, ezin da ikusi, "naturala dena" berezki hartzen delako, zalantzan jartzeko jarrera kritikorik gabe.
- Generoaren araberako arau eta eskakizunetan aurkitzen dugu: sozialki onartuak eta aitortuak diren posizio edo jarreretara egokitzen den pertsonari esleitutako aitorten sozial eta balorazio-itxaropenetan ikus dezakegu.
- Arrakasta/porrotaren aukera eta esfortzu pertsonal eta laboralaren balorazio eta errekonozimendua: sexu bakoitzetik inguruan espero den eta baimentzen zaion horretan gertatzen diren gaitasun eta trebetasunen ikasketa-metodo inplizitu eta esplizituetan datza.

Indarkeria-mota sotilenak

- **Mikromatxismoak:** izaera sotileko indarkeria da, gordintasun osoz agertzen ez den arren, indarkeria sostengatzen duen indartsuenetakoa: irainak, txiste sexistak, esaldi umiliagarriak, azal-kolorearekiko zein sexu adierazpen desberdinekiko aurreiritziak... Ezbairik gabe esan daiteke indarkeria hau, batez ere, emakume eta neskatoei zuzendutakoa dela. Adib.: "erabiltzaileak agurtzeko momentuan. Mutilak bizkarrean kolpetxo bat emanez eta neskek aldiz goxotasunez."
- **Ikusezintasuna:** berezitasun femeninoaren balioa ikusezina eta ikusezin egina izan da prozesu sozio-historikoan zehar. Zentzu horretan, ikusezintasuna baztertzailea eta indarkeriazkoa da. Izan

ere, ikusezina dena ez da ezkutukoa, ukatua baizik; eta honela indarkeria genero arteko harremanen eratzaila da.

Curriculum Ezkutua Haurrentzako eta Nerabeentzako zerbitzuetan

Hezitzaileen eta haur eta nerabeen sustapenerako teknikariaren jarrera kritikoa izan ezean, haur eta nerabeek onartua denaren eredu ezarriak barneratu eta errepikatuko dituzte, batez ere garai pasibo eta harkorrean.

“Bizitzaren jolasetara jostatzen gara, kode sekretu edo tinta ikusezinez idatzitako liburuetako arauak obedituz”
Arthur Koestler.

Hezitzaileak jabetu egin behar dira beren balioak, jarre-
rak, jokabideak eta trebetasunak errepikatzeko duten gaitasunaz, horiek haur eta nerabeengan ondorio zuzenak izango dituztelako. Horretarako, beharrezkoa da hezitzailea bere bizi-historiaz jabetzea, bere barnean aurkitu baitezake haur eta nerabeekin dituen harremanetan bere esperientziak eta ikasketa pertsonalek duten eragina.

Curriculum Ezkutua gainditzeko proposamen estrategikoak

- **Hezitzaileentzako** prestakuntza-tailerrak antolatzea:
 - Haurtxoko/gaztelekuko zein familiarteko praktika hezigarria berrikusteko tailerra.
 - Genero-historia pertsonala berreskuratzeko tailerra.
 - Sexu- eta genero-sistemaren bitartez estereotipoei aurre egiteko kritikotasuna lantzeko tailerra.
- **Desberdintasunak** aurkitzea eta zuzentzea amatasun/aitatasunen baimen, soldata eta kontratazioen praktika eta politiketan.
 - Ikerketa- eta heziketa-lanetako ebaluazio eta baloraziorako irizpide esplizituak lantzea.
 - Heziketa-prozesuetan gizonen parte-hartzea bultzatzea.
 - Testu ez androzentrikoak sortzea eta orain arte sortutako testuen berrikuspina bultzatzea.
 - Generoaren ikerketak eta genero-lanak aplikatzeko interesa dutenak babestea, eta haien lanak gure zereginaren ardatzera, informazio gaurkotua izan dezagun.

2.1.2 Lantaldea: rolak, funtzioak, eta parte-hartzea

Rolak

Rolak inguruko pertsonen entzundakoa eta ikusitakoa errepikatuz, imitatuz eta miatuz ikasten dira. Hortaz, erreferentziako pertsona funtsezkoa da bere garrantzi eta eraginagatik, eta aisialdian hezitzaileak betetzen du eredu hori.

Hezteko helburua duen edozein harremanetan, hezitzailea hezten ari den pertsonen identifikazio-eredu garrantzitsuena da; eta are gehiago aisialdian, hezitzailea-pertsona-taldea erlazioa oinarritzeko tresna pedagogikoa delako.

Aisialdian, hezkuntzan, abiapuntua da ezarrita dauden sistema sozialaren aurrean jarrera kritiko bat adieraztea; jokabide hori bultzatzen da pertsonen libreagoak izateko aukera emango dien jendartea lortzeko xedez.

Haurrak eta nerabeak generoaren arabera ezarritako rolak betetzeko hezten dituzte, eta horiek hierarkizatuak izaten jarraitzen dute. Jarrerak gure curriculum “ezkutua” islatzen dute (keinuak, ahotsa, espresioak, asmoak, aurreiritziak...) eta, askotan, ez datoz esaten eta egiten dugunarekin bat (curriculum esplizitua).

Hau guztia, urteetan zehar barneratu dugu, eta askotan ez gara bere edukiaz ohartzen. Hezitzaileak alderdi honetan arreta berezia ipini behar du, bere mezu berdintzaile edo diskriminatzaileak pentsamoldea aldatzen duen neurrian.

Funtzioak

Haurtxoko eta gaztelekuetako hezitzaileen funtzioez hitz egiten dugunean, hezitzaileak inguru horretan egin behar duenari eta daukan jokaerari buruz hitz egiten dugu.

Lantaldean egon daitezkeen funtzioak ere betaurreko moreekin begiratu behar ditugu, genero-rolak bideratutako funtzio eta jarreretan ez jausteko.

• **Harreman– edo erlazio-funtzioak**

Pertsonen harremanetan oinarritutako funtzioak. Errealitate fisikoa zein soziala ezagutzeko funtzioak. Harreman zuzenetan oinarrituta daudenez, hezitzailearen jokabideek garrantzi handia hartzen dute. Adibidez, “kontuan izan behar dugu haur eta nerabeekin ditugun harremanak generoak baldintzatutakoak ez izatea. Ezin dugu mutilekin jarrera zakar antzekoa izan eta neskekin, aldiz, goxotasunezkoa.”

• **Eraketa-funtzioak**

Proiektuak garatzeko beharrezkoak diren funtzio guztiak. Adib. Parte-hartzaileen taldea diseinatu, arau markoa ezarri, eremu fisikoa zehaztu, antolakuntza etab.. Alderdi estruktural horiek beste funtzio guztien martxa baldintza dezakete. Adibidez, “parte-hartzaileen taldea diseinatzeko momentuan neska-mutilen ratioak parekideak izan daitezten saiatu beharko gara. Behar denean, nesken kopurua handiagoa izatera bideratu genezake.”

• **Esku hartzeko funtzioak**

Ekintzetan zein taldean bertan garatzen diren funtzioak dira, nahiz eta esku-hartzea hori baino zabalagoa izan daitekeen: informazioa eman, motibazioa sortu, komunikazioa eta parte-hartzea erraztu... Adibidez, “historikoki generoaren arabera banatuta egon diren ekintzetan genero-rolak apurtzen saiatu behar gara. Esaterako, ekintza aktiboetan neskek parte hartuz eta ekintza lasaiago edo pasiboagoetan mutilek.”

• **Gidaritza-funtzioak**

Norabidea markatzen duten funtzioen multzoa zehazteko eta erabakiak hartzeko funtzioak: planifikazioa prestatu, koordinazioa, kudeaketa, arautzea, ebaluazioa... Adibidez, “lidergotza partekatua bultzatu behar dugu, gidaritza-funtzioak gizonezkoengan bakarrik ez utziz.”

Esku-hartzearen arrakasta lantalde baten osagarritasunean datza, eta ez bakoitzak egindako lanetan. Normalean, funtzioak banatuta agertzen dira. Funtzioen txandatzeko edo errotazioa ere, hezkidetzaren ikuspegitik, beharrezkotzat hartzen da.

Parte-hartzea

Lantaldean izan ahal ditugun rol eta funtzioez gain, parte-hartzeak ere bere garrantzia izan behar luke. Izan ere,

gero eta aktiboagoa edo handiagoa den parte-hartzeak proiektuarekiko atxikimendu handiagoa dakar. Parte-hartzea ez da inertziaz egiten, baina badira zenbait alderdi kontuan izan behar direnak.

Lehenik eta behin, parte hartu nahi izatea: prozesuan sartzeko motibazio gisa hartuta desio hori, motibazioa, gogoia, ilusioa, beharra, parte hartzeko zergatiak... Horrek zerikusia du pertsona bakoitzaren interesekin eta gizar-tearekin edo taldearekin partekatzen dituenekin, guztion ideiekin. Bestetik, parte hartzen jakitea: hori gauzatzeko ezaguera, trebetasunak eta gaitasuna izatea. Beste arlo askotan bezala, parte hartzeko nola egin jakin behar dugu. Eta azkenik, parte hartu ahal izatea: parte-hartzean oinarritutako diagnostikoaren eta plangintzaren ikuspegietatik eraikitzeko, erabakiak hartzeko eta horiek kudeatzeko aukera emango duten foroak sortzea.

Beraz, parte hartzeko gaitasuna sustatzeko jarduerak antolatzen ditugunean, bi gauza izango ditugu kontuan:

- Alde batetik, animatuta egon behar dugula, ikas daitekeen zerbait delako, pauso egokiak emanez gero, hobetu daitekeelako; eta, jakina, askotan motibatzen gaituenak genero-estereotipoen eragin izugarria du. Erakargarritasunak generoaren marka du.
- Bestetik, ez dela berehala ikasten, askotan sozializazioaren gakoak ez dira izan parte-hartzearenak, eta ez dira modu berean sortu neskegan eta mutilengan, edo eremu publikoetan eta pribatuetan.

Parte hartzeko sustatu egin behar ditugu komunikazioa, harreman positibo edo onuragarriak, azken finean, parekidetasuna errazten duten moduak, trebetasunak, nolabait goian aipatutako estrategiekin bat datozenak.

2.1.3 Hezitzaileen arteko harremana

Gida honetan jadanik aipatu dugu zein garrantzitsuak diren hezitzaileak, zerbitzuetara joaten diren nerabe eta haurrentzako erreferentzia eredu gisa. Ondorioz, oso garrantzitsua da eredu horiek berdintasunezko eredu moduan islatzea, balioak transmititzeko oinarritzko mekanismoak diren heinean.

Irizpide nagusiak

- Jarduerak erabakitzerakoan, erantzukizunak eta ekimenak gizonezko eta emakumezko hezitzaileen artean

berdintasunez banatzea. Adibidez, “kirol-jarduera, tailer, eskulan eta gorputz-adierazpeneko jardueretan erantzukizun berdinak edukitzea, ala txandaketaren bidez, eginkizun malgu eta trukagarriak izatea hainbat jarduera-motatan.”

- Esku-hartzeen eta protagonismoen denborak berdintasunez banatzea gizonetzko eta emakumezko hezitzaileen artean. Era berean, jardueretan, bai gizonetzko bai emakumezko hezitzaileak protagonista dituzten esku-hartze orekatuak bermatu behar dira.
- Autoritatea berez ematen duten esku hartzeak gizonetzko eta emakumezko hezitzaileen artean banatzea, batez ere, hezitzaileen behar berezia duten jardueretan.
- Elkarrenganako errespetuan eta besteen ezagutza eta gaitasunen onarpenean oinarritutako harremana erakitzea. Horrela, gizon eta emakumeen arteko harreman pertsonal eta profesionaletan ohikoak diren arreritzi sexistak errepikatzea ekiditen da.
- Lantaldean hezkidetzat lantzeko espazioak sortzea. Gaiari buruzko informazioa zabaltzea, horri buruzko hitzaldi, tailer eta mintegietara joatea, lana programatu, antolatu eta baloratzeko orduan.
- Lantalde bakoitzean aukera-berdintasunean edota hezkidetzan aditua den pertsona bat sartzen saiatzea.

Emozioen lanketa

Bakoitza bere historia, bere hizkera, bere kultura, bere ikaskuntza, bere beldur, bere desio eta sentimenduekin dator. Eta horiek ez dira erabat pribatuak edo indibidualak; izan ere, lotura izaten dute faktore familiar, ekonomiko, sozial eta abarreko luzearekin.

Ondorioz, alor pertsonala eta antolakuntzari dagozkionak elkarri lotuta eta elkarreaginean daude. Hau da, gure eremu pertsonaleko pasarte, gogo, sentipen eta emozioek badute beren garrantzia taldearen kudeaketan eta egunerokoan. Horiek azaleratu eta elkarbanatzeko ariketa ezin da borondate hutsaren fruitu izan. Horregatik, garrantzitsua da gure burua eta taldea bitarteko ezberdinez hornitu eta praktikan jartzea.

Beraz, ezinbestekoa da lantaldearen barne-funtzionamenduan denbora eta espazioak eskaintzea arlo sozio-emozionalari. Horrela, zaintza eta elkar-zaintza ez dira eremu pribatuko afera izatera murrizten, aitzitik, hezkuntza-praktika eraginkorrerako baldintza bilakatzen zaizkigu.

Elkar-zaintza

Kaltegarria da eguneroko heziketa-lanean proiektuak aurrera eramaterakoan, askotan, gutako bakoitzak gure buruari eragiten diogun presioa, taldeak guran eragiten duena, guk taldeari eragiten dioguna, zein kanpotik taldeari eragiten zaionaren aurrean itsu agertzea. Eta beste ezintasun, frustrazio, haserre eta ezinegonei bezala, hauei ere lekua egin behar zaie.

Horretarako, garrantzitsua da unean uneko egoera animiko eta fisikoak partekatzea. Ariketa osasungarria izan daiteke lantaldearen bileretan alderdi horiei arreta jartzea. Gogotsu gatoz gaur? Nekatuta gatoz? Zein da gure gorputz-burubihotzaren eguraldia edo aldartea? Informazio-truke horrek ekimen edo bilerarekiko helburuak alda ditzake, egun horretan bileran izan beharreko jarrera edo zaintza erregulatu ditzake, beronen eraginkortasunean eta berorrekiko asetasunean lagunduz.

2.2 Hezitzaile eta erabiltzaileen arteko harremanak

Aurretik ere aipatu izan dugu haur eta nerabeekin lan egiteko daukagun lanabes garrantzitsuena beraiekin sortzen dugun harremana dela. Horregatik, ezinbestekoa dugu haien errealitatea eta behar pertsonal zein kolektiboak ezagutzea. Adi egon behar gara, alde batetik, beraien errealitatea ezagutzeko eta ulertuz, beraiek ulertzeko irekiago egongo garelako eta, bestetik, dituzten beharrei erantzun ahal izateko.

Haur eta nerabeekin sortzen diren harremanak ere oso garrantzitsuak dira balioak transmititzeko. Pedagogiarako eta ekintzarako osagaiak ere bihur daitezke, eta bertan ere, ezinbestean barneratu behar da genero-ikuspegia:

Irizpide nagusiak

- **Mutilek eta neskek, berez, portaera sexista jakin bat izan behar duten iritziak baztertzea.** Ez da pentsatu behar neskek, neskak direlako, izaera jakin bat eduki behar dutela (kirol-jarduerak ez diete interesik pizten, eserita hitz egitea nahiago dute, jarduteko ez dute espazio ireki eta handirik behar...), eta mutilek, mutilak izateagatik, beste izaera batekoak izan behar dutela (jolas eta jardueretarako mugitu beharra dute, espazio zabalak behar dituzte, zarata gehiago egiten dute...).
- **Neskak gehiago entzutea, eta beren iritziak mutilek bezainbeste baloratzea,** baita indartzea ere, behar izanez gero (mutilak baino gutxiago diren momentu, jarduera eta abarretan), espazio gehiago eta garrantzi gehiago eman. Adibidez, “askotan hain hezitzaileak izaten diren elkarrizketa informal batean moderatzaile papera hartu genezake hezitzaileok, eta mutilak elkarrizketan gailentzen ari badira, neskei hitza eta protagonismoa eman”.
- **Mutilak eta neskak sexu jakin bati esleitzen zaizkion jardueretan parte hartzea bultzatzea,** bai batzuk bai besteak animatuz. Neskei dagokienez, autoestimua- ren pizgarri eta esfortzu gehiago behar da, tradizioan mutilentzako diren jardueretan parte har dezaten. Izan ere, jendartean prestigioa eduki arren, segurtasun-eza sentiarazten diete. Mutilei dagokienez, berriz, tradizioan neskenentzako diren jardueretan parte har dezaten, prestigio gehiago eman behar zaie, eta burla-egoerak ekiditeko ahalegina egin behar da. Adibidez, “neskak futbolinean jolastera animatu eta mutilak, berriz, eskulanak egitera.”
- **Parte-hartze mistoak eta nagusitasun mistoak txandaka sustatzen saiatzea,** nesken parte-hartzeak nabarmenduz, urriagoak baitira. Horren helburua da jarduera edo egoera jakinetan neskak ikusle soilak izan ez daitezen lortzea, eta mutilak protagonista aktiboak. Nesken nagusitasuna berez gertatuz gero, indartu egin behar da. Adibidez, “ekintzaren batean boluntario bat behar denean eta hauetako gehiengo mutila denean, neska bat aukeratu boluntario-lanak egiteko.”
- **Adibide estereotipaturik ez erabiltzea eta, adibide gisa, neskak lehentasunez hartzea.** Hau neskak bista

ratzeko modua izan daiteke, arlo publikoko aisia eta astialdiko espazioetan. Gainera, sexu bati ala besteari lotzen zaizkion jardueretan, ongi legoke estereotipo horiek gainditzen dituzten adibideak erabiltzea. Adibidez, “erabiltzaileen artean nesken kirol talderen bat izanez gero, horiek animatzera eta babesa ematera joan gaitzke.”

- **Dinamizazioari dagokionez, taldeko nagusitasuna eta protagonismoa ez duten pertsonak ere kontuan hartzea, eta ez ozenago, bortitzago, harrokeria gehiagorekin hitz egiten dutenak bakarrik.** Adibidez, “gutxi nabarmentzen diren erabiltzaileei denbora, hitza eta protagonismoa eman. Kontuz egin beharko dugu ez badugu nahi haur edo nerabea lotsatuta sentitzea.”

2.2.1. Tratu Onak: harremanak oinarri

Hezkidetzazko jardueraren ardatz bat izango da haur eta nerabeek harremanak era parekidean eraikitzeo kompetentziak gara ditzaten laguntzea, honako hau sustatzeko:

- Indarkerian eta dominazio-menpekotasun parametroetan oinarrituriko pertsona barruko zein pertsonen arteko harremanak bultzatzen dituzten ereduaren analisi kritikoa.
- Elkarbizitza eta pertsona barruko zein pertsonen arteko harreman positiboak sortu eta garatzea.

Hezkuntza-eremuan elkarbizitza positiboa da ondoren aipatzen dena lortzen duena:

- Bakoitza (haur, nerabe eta hezitzaile) bere identitatearekin gustura egotea, beste batzuk gutxieteko beharrik gabe, diren bezalakoak izanik onartuak sentitzea, gainerakoak baloratzea, gaitasunak eta kompetentziak garatzea eta, bazterkeria-mota oro gaindituz, harreman positibo eta autonomoak haurtxoko eta gazteleku barruan zein kanpoan eratzea.
- Neska zein mutilen kompetentziak pertsona oso gisa garatzea, eremu pribatu zein publikoan erraztasunez moldatzen diren horien garapen pertsonal eta soziala paraleloan sustatuz, harremanetan berdintasunez, elkartasunez eta askatasunez aritzen diren bizi-proiektu propiodun pertsonak izatea, gure munduaren hobekuntzaren aldeko konpromisoa erakutsi eta esku hartzeko prest agertzen direnak.

Haurtxokoetan eta gaztelekuetan **kalitatezko elkabizitzak** ondoko hau eraikitzea sustatzen du:

- Kide guztien ongizatean oinarrituriko kultura.
- Maila guztietan (antolakuntzan, denboralizazioan, komunikazioan, ekintzetan...) dominazio-menpekotasun paradigmaten erreproduzioa gainditzeko duen haurtxoko eta gaztelekuen estruktura, honen estereotipoen etengabeko sustapena bultzatzen baitu (sexu-generoa, etnia, kultura, maila sozioekonomikoa, ezaugarri fisiko-psikikoak, aukera sexuala...)
- Norbere buruarekiko zein besteekiko harreman positibo eta aberasgarriak.
- Elkarren arteko arduran eta inguruaren eraldatze zein hobekuntzan konpromiso pertsonal eta sozialean oinarrituriko harremanak.
- Bake eta indarkeria-ezaren kultura.

“begira diezaiegun benetan ditugun aurreiritziei, nola tratatzen ditugun mutilak eta nola neskek, zein estereotipo ditugun guk geuk gizon edo emakume garen heinean, bertako edo kanpoko, heldu edo gazte... Horretaz jabetzeak aukera ematen digu gure harremanetan eragiten duten aurreiritzi horiei guztiei aurre egiteko eta tratatu onak bideratzeko.”

Arremanitz Kooperatiba

Izan ere, gure pentsaera estereotipatuaren ondoriozko joeraak dira tratatu onen etsirik nagusienak afektibitatezko harremanak eratzeko: nork bere buruarekin, besteekin, hurbilekoen artean, bestelako bizidunekin, gauzekin eta inguruarekin.

Hezkidetzak genero-ikuspegia erabiliz gai hauetan zenbait ekarpen egiten ditu, ongi izateko ezinbestekoa baita maskulino eta femeninotik hasi, eta gainerako estereotipo guztiei uko egitea.

Nork bere buruarekin harreman ona izateko:

- Autoezagutza landu eta onartu zarena, zure alderdi on guztiak identifikatuz.
- Zure gorputza onartu eta maitatu, zure berezko edertasun-kontzeptu ez-estereotipatua sortuz.
- Autoestimua garatu besteenganako boterekeria edo harrokeriarekin nahasi gabe.
- Konparaketak alde batera utzi.
- Jarrera kritikoa erakutsi estereotipoen inposaketaren aurrean.
- “Ez” esan, behar duzun guztietan.
- Autodefentsa-estrategia anitzak garatu.

Besteekin (orokorrean):

- Agurtu eta hitz goxoak erabili.
- Hezkidetzeta-hizkuntza erabili.
- Janzkera, hizkera, izaera errespetatu.
- Begikotasunez jokatu.
- Elkartasunezko jarrerak erakutsi.

Hurbilekoen artean (lagunak, senideak, haurtxoko eta gaztelekuetan, ikastetxean):

- Elkarri lagundu.
- Entzun, saiatu ulertzen, komunikatu.
- Zure ekarpenik onenak eskaini taldeari.
- Sexismorik gabeko jarrerak erakutsi.
- Besteak diren bezalakoak onartu, epaiketarik egin gabe.
- Besteen gorputza errespetatu.
- Manipulazioei eta erasoiei ezetz esan.
- Zure betebeharrak aurrera eramanez eta besteiei dagozkienak eskatu.
- Arazoak daudenean, guztientzako konponbiderik emankorra bilatu eta martxan jarri.

Bestelako bizidunekin, objektuekin eta inguruarekin:

- Zaindu, arduraz jokatu.
- Etxeko animalia eta landareei behar dituzten ongizate-baldintzak eskaini.
- Erabilera ona eman objektuei ahal duten iraupenik luzeena izan dezaten.
- Birziklatu.
- Diruarekiko jarrera arduratsu eta solidarioa erakutsi.
- Gaur egun deshazkundera deitzen denaren aldeko jarrera erakutsi.

Tratu onak sustatu eta denboran zehar irauteko elkar-ardura bezalako konpromisoak hartu behar ditugu. Baina, zer da elkar-ardura?

- Norberak gizataldearen barnean, eta gizatalde hori ondo ibiliko dela ziurtatzeko, ardurak banatzeko hartzen den erabakia.
- Gizatalde bateko pertsonen adostasunez hartutako erabakien ondorioei aurre egiteko hartzen duten erabakia.
- Gizataldeak bizimodu hobea lortzeko hartzen dituen konpromisoei erantzutea.
- Edozein taldek ondo funtzionatzeko nahitaz bete behar duen baldintza.

- Gizartearen garapen positiboaren alde egiteko, norberaren ezinbesteko konpromisoa.

2.2.2. Gatazken trataera eta hezkidetzaz

Gatazka pertsonen egunerokoaren parte direla esan genezake. Baita haurtxoko eta gaztelekuetan ere. Gaur egun, gainera, gatazka zentzu negatiboan ulertzen da: zorritxarra, arazoa edo nahi ez den zerbait. Baina gatazka, une batean helburu bateraezinak dituzten pertsonen artean gertatzen den elkarrekintza moduan ulertuta, txarra al da?

Johan Galtung-ek gatazkaren ikuspegi positiboaren alde jarri ahal gaitu: "gatazka erronka da; azken batean, helburu bateraezinak edukitzea izugarritzko desafioa da bi aldeentzat, bai adimen aldetik, bai emozio aldetik. Horren arabera, beraz, gatazka gure izateari zentzua ematen dion arrazoi bat da; aldaketaren arrazoi, aldaketarekin batera gertatzen den zerbait eta aldaketaren ondorio; bizitza sozialerako ezinbestekoa; bizitzeko arnasa hartzea bezain garrantzitsua".

Hortaz, gatazka eraldaketarako aukera moduan ikus ditzakegu. Dena dela, horrek ez du esan nahi gatazken trataera gai hutsala denik edota lan erraza izango denik. Horregatik, gatazkari buruz ari garenean, badira kontuan izan beharreko beste zenbait kontzeptu ere.

Esaterako, gatazkaz ari garenean, horrek bakeaz hitz egitera eramaten gaitu. Askotan, bakea gatazkarik eza dela ulertzen da, baina ikusita gatazka pertsonen bizitzan berezkoa den egoera bat dela, bakea gatazkarekin eta honi aurre egiteko moduarekin lotu genezake gatazka izatearekin edo ez izatearekin baino.

Gatazkei aurre egiteko ohiko estilo bat izaten da ukazioa, hau da, gatazkarik ez balitz bezala jokatzeko eta, arazoa lehia moduan hartuz, batak bestearen kontra eraso eginez jokatzeko. Jokaera horien barnean gatazkari buruzko ideia negatiboa dago.

Aldiz, gatazkaren trataera egokia egiten bada, oso lagungarria eta konstruktiboa izan daiteke:

- arazoak konpontzeko modu berriak eta hobeak ikasteko.
- harreman hobeak eta iraunkorragoak sortzeko.
- nork bere buruaz eta gainerakoez gehiago jakiteko.

Gatazken trataera egokiak pertsonak eta taldeak indartzen ditu, harremanak sendotzen ditu. Pertsonen zein taldeen identitateak indartzen ditu, boterea gartzen laguntzen du.

Gatazkaren analisisa egiterakoan kontuan izan behar ditugu hainbat alderdi. Orokorrean, hauek dira kontuan hartu beharrekoak: inplikaturak dauden pertsonen interesak, interes horiek asetzeko dauden aukerak, pertsona horien arteko harremana, gatazka sortzeko zilegitasuna, beraien arteko komunikazioa, hartu daitezkeen konpromisoak eta adostasunez lortzeko irtenbide-aukerak.

Gainera, gatazka sortzen denean, kontuan izan behar ditugu, halaber, pertsonen hainbat ezaugarri edota gaitasun: gatazken aurreko joera, gatazkei aurre egiteko trebeziak, informazioa interpretatzeko moduak, komunikazio-estiloak, pertzepzioak egiteko mekanismoak, identitatearen garapen-prozesuak, indarkeriari buruzko ideiak, sinesmenak.

Irtenbide-aukerak aztertzeko, kontuan izan behar ditugu egitura-alderdi hauek: gatazkan inplikaturak daudenen helburuak, hau da, lortu nahi dutena, beren interesak eta beraien arteko harremana. Gatazkaren aurrean erakutsitako jarrerak ezberdinak izan daitezke, eta denak baliagarriak. Dena den, honetan ezinbestekoa da genero-kulturek izan dezaketen eraginaz jabetzea, bizitzan norberarentzat garrantzitsuak diren helburuak eta harremanak generoek baldintzatuta baitaude maiz, baita gizarte heteropatriarkalak sexu-generoagatik hierarkizatuta ere.

Gatazka eraldatzeko irizpideak

- Pertsonen arteko harremanetan eta jendarte mailako egitura-harremanetan justiziaren humanizazioa. Injustizia baten aurrean, tartean pertsonak daudela garbi izatea. Gatazketan oso ohikoa da pertsonen objektibazioa.
- Oreka ekologikoa bilatzea: naturarekiko eta gorputzarekiko errespetu-harremana. Gizakiok natu-

raren parte garena ikusi, eta gatazkei emandako ir-tenbideak ideia horrekin bat egitea.

- Ezagutza eta esperientziaren (intuizioa, irudimena) arteko dikotomiak sostengatzen duen zientziaren ikuspegi mugatua apurtzea.
- Adimena-gorputza, pentsamendua-sentimendua... dikotomiak apurtzea.
- Gatazketan gure aurrean duguna eta sexu, etnia edo klaseagatik objektu bihurtutakoa, subjektu eta pertsona gisa ikustea.
- Indarkeriaren erabileraren deslegitimazioa. "Irabazle-galtzaile" eskema eta antolakuntza apurtzea.
- Gizarteratze-prozesuetan feminitate eta maskulinitate anitzak kontuan izatea.
- Hezkuntzaren eta heziketaren kontzeptua aldatzea, hezkidetzaz aritzea, garrantzia ematea adimen-garapenari zein emozio-garapenari genero-zauria sendatzeko.
- Maskulinitate hegemonikoaren baitan dagoen giza-kion independentzia ulertzeko modua aldatzea eta giza-kion elkarrekiko beharra sendotzea.

2.3 Materialak

2.3.1 Hezkidetzarako materialei buruzko

irizpideak

Haurtxoko eta gaztelekuetako materialak berrikustea beharrezkoa da, segurtatzeko edukiek aukeraberdintasunaren arabera hezkuntzarekin bat egiten dutela. Balioak, jarrerak eta harremanak genero-ikuspegitik garatzen badira ere, materialek osagai sexistak baldin badituzte, eredu estereotipatuak transmititzeko arriskua badago.

Irudietan

- Agertzen diren emakumezko eta gizonezko pertsonaien proportzioa orekatzea.
- Pertsonaia horiek leku ezberdinetan erakustea, koka-pen estereotipatuak ekidinez, generoaren arabera; hau da, emakumezko pertsonaia ez erakustea espazio itxi, txiki, etxe-koetan, eta gizonak leku ireki, zabal, publikoetan. Alderantziz, biak bi motetako espazioetan agertu behar dira.

- Pertsonaia horiei esleitzen zaizkien kalitateak ez estereotipatuak izatea: neska arduratsua, mutil barregarria, dinamikoa... Kalitate guztiak biekin lotu behar dira.
- Emakume eta gizonen lanbideak ez izatea estereotipo sexisten arabera: andereño, idazkari, erizain, buruzagi, mediku... Gizonak eta emakumeak lanbide berdinetan erakutsi behar dira.
- Mutil eta neskentzako interesa duten jarduera, aisia eta dibertsio-moduak eratztea.
- Erakustea helburua dena banatzea dela, pribatua eta publikoa, lana eta dibertsioa.
- Kontua ez da neska enpresaburu jartzea eta mutila soka-jolasetan, baizik eta testuinguru guztietan biak agertzea.

Testuetan

- Genero-ikuspegia barneratzen duen hizkuntza erabiltzea.
- Adjektiboekin kontuz ibiltzea, estereotipoak gainditzeko: gizon altu, dinamiko eta gogorra, emakume eder, gozo, beldurtia.
- Estereotipoak haustea (Ez esan: "aitaren autoa", "amaren aspiragailua").
- Genero femeninoa ez erabiltzea izen ona galarazteko.
- Termino generiko edo kolektiboak erabiltzea, sexuaren arabera markatutako ordez.
- Emakumeak mendeko edo bereizitako kategoria moduan ez aipatzea.
- Testuen azalpenetan jarritako adibideak erakar-garriak izatea, bai mutilentzat, bai neskentzat.
- Emakumezko erreferentziak sortzea. Arlo jakin batean gailendu diren emakumeak izendatzea.

Jolas ez-sexistak

- Sexuari lotutako generoaren rola errepikatzen ez dituztenak.
- Pertsona moduan ditugun gaitasunak bultzatuz, osotasunean garatzen laguntzen dutenak.
- Genero-estereotipoei erantzuten ez dietenak.
- Generoak garatzen dituen gaitasunak baino askoz gehiago lantzeko aukera ematen dutenak.
- Eredu zabal eta ez itxietan jolasteko aukera ematen dutenak.
- Generoari dagozkion bestelako balioak bultzatzen dituztenak (balio positiboak).
- Bizitzarako eredu berri bat bultzatzen dutenak, parekidetasunean oinarrituta.

2.4 Espazioa eta denbora

2.4.1. Espazioaren erabilera: errealitateak eta alternatibak

Espazioaren erabilera, funtsean, bi elementuk baldintzatzen dute

- Emakumeek eta gizonak jaiotzatik jasotzen dituzten heziketa eta sozializazio ezberdinak, beren ahalmeneen eta jokabidearen garapena baldintzatzen dutenak. Horrela, gizonak gehiago mugitzera, espazio gehiago erabiltzera eta mugimendu gehiago behar duten ekintzak burutzera animatuak dira. Bestalde, emakumeak pasiboagoak izatera, lasaiagoak diren eta mugimendu edo aktibitate fisiko gutxiago eskatzen duten ekintzetara bultzatuak dira.
- Zein modutan diseinatuta dagoen. Eskolari erreferentzia eginez, jolas-tokia neurri handi batean futbol-zelaiak okupatzen badu, gehienbat mutilek burutzen duten ekintzetara mugatzen dugu. Bestalde, futbolari horrelako nagusitasuna emanez, beste aktibitateak gutxiesten dira (adibidez, neskek burutzen dituztenak) eta neskak sozialki oso baloratua den espazio batetik at gelditzen dira.

Ekipamenduaren barruan espazioaren erabilera baloratzeko orduan, kontuan izan behar ditugu:

- Espazioaren zabalera
- Espazioaren kalitatea
- Espazioaren balorazioa
- Espazioari dagozkion jarrerak eta ekintzak

Espazioaren diseinurako proposamenak

- Kirol-ekintzetarako espazio gutxiago erabiltzea.
- Kiroletarako ez diren kanpo-espazioak egokitzea (parkeak, bankuak).
- Espazio estali gehiago egokitzea.
- Esertzeko leku gehiago prestatzea.
- Ekipamenduaren barruan eremu desberdinak eta bereziak sortzea.
- Barne-espazioan lekuak antolatzea musika entzuteko eta dantza egiteko.

- Espazioei hainbat erabilera emateko material mugikorak erabiltzea (espazioak aldagarri bihurtzea).
- Espazio atseginagoak sortzea.

Espazioaren erabilerarako proposamenak

- Espazioen erabilera arautzea, ordutegi batzuen arabera.
- Nesken espazio eta aktibitateak baloratzea.
- Lehiarik ez duten jokoak, mistoak eta lankidetzarako jokoak sartzera.
- Azpiegitura eta espazio handiak eskatzen ez dituzten kirol-joko errazak gehiago sartzera (pala, tenisa, goma).
- Talde mistoen (adin eta sexuena) ekitaldiak programatzea.
- Talde txiki mistoen ekintzak.
- Erabiltzaileek espazio zehatzetan beren arteko ezberdintasunei buruz hausnartzea.
- Espazioaren erabileran eredu berriak sustatzea.

Laburbilduz,

- Espazioaren erabilera eta banaketa kontuan hartzea.
- Behaketa-fitxak egin daitezke, espazioen erabileraren segimendu erregularra egiteko, eta ebaluazioan txertatzeko.
- Lantalde, tailer eta jarduera bakoitzari espazio bat ematea.
- Jarduera bakoitzak bere tokia duela bermatzea.
- Guztionak diren espazioei neska eta mutilen ezauzgarriak ematea, arreta jarritz, gune guztiak neskek eta mutilek erabil ditzaten.
- Espazio balioaniztun, malgu eta irekiak sortzea.
- Jarduera jakin batzuk (parte-hartze berezia dutenak) espazioan txandakatzea, bereziki, nesken jarduerari gune nagusiak esleituz.
- Komunikaziorako eta lasaitasunerako espazioak indartzea.

2.4.2 Denboraren kudeaketa: errealitateak eta alternatibak

Denbora askotan kontuan hartzen ez dugun baliabidea da. Eta zerbitzuetan, justuki, denbora da gure heziketa-lanean baldintza gehien ezartzen dituen elementua.



Gure esku-hartzea denbora zehatz batean eramaten dugu aurrera; gure helburuak denbora-epe jakin batean zehazten ditugu; gure haur eta nerabeen errealitateak denbora eta testuinguru batean kokatzen dira.

Beraz, denbora ondo planifikatzea eta denbora egoki kudeatzea funtsezkoak dira hezkidetzaren txertatzean.

Denboraren kudeaketarako proposamenak

- Planifikazioan eta jarraipenean denbora gehiago inbertitzea.
- Bileren dinamizazioetan denbora ahalik eta ondoen banatzea.
- Esku hartzean neska zein mutilen denbora berdina eskaintzea.
- Hezitzaileen jardunaren denborak parekidetasunez banatzea.
- Prozesuei emaitzei baino garrantzi handiagoa ematea.
- Denbora haur eta nerabeen beharren arabera kudeatzea eta ez gure planifikazioaren arabera.

2.5 Hizkuntzaren erabilera eta komunikazioa

Hizkuntza sexistaz hitz egiten dugu komunikazioan emakumeak subjektu bezala agertzen ez direnean; eta agertzekotan, gutxietsita, baztertuta, menpekotasun-erolean, irainduta edo minduta agertzen direnean.

Hots, hizkuntza **sexista genero-estereotipoak eta misoginia transmititzen** dituena da.

Erabilera ez-sexistarako arau orokorrak hiru izan litezke:

- Genero-kutsadura saihestea.
- Maskulinoa orokortzaile gisa ez erabiltzea.
- Euskarak duen araudi ez baztertzailari jarraitzea. Horren adibideak hika tratamendua eta pluralen eraketa izan daitezke.

Hizkuntza aldakorra da, errealitatea dinamikoa den bezala, hizkuntza ere bilakatu egiten da egoera berriei erantzuna emateko. Horrela, hitz berriak sortu, arauak aldatu eta erabilera egokiak garatzen ditu. Hona hemen hezkidetzaren egindako proposamenak:

- Erabiltzen dugun hizkuntzaren sexismoaz ohartu eta duen androzentrismoa agerian jarri.

- Inbertsio-erregela praktikan jarri: testu zein irudietako pertsonaien sexu-generoa aldatu, ea zer gertatzen den. Sexismoa detektatzeko oso adierazgarria da.
- Hitz eta kontzeptu berriak sortu eta erabili. Adib. 'ahalduntze', 'feminizidua', 'emakumera batua', 'plazandrea', 'etxekogizona', 'autodefentsa feminista'...
- Erabat baztertu gutxiespen zentzutan erabilitako terminoak, misoginia, lesbofobia, homofobia... edozein fobia edo mespretxu, arrazakeria eta indarkeria adierazten dituzten terminoak eta espresioak.
- Hizkuntzaren erabilera ez sexistarako gomendioak eztabaidatu eta praktikara eraman. Proposamen berriak planteatu.
- Kontuz eremu ez-formaleko espresioekin: txisteak, bromak, umorea... Sexismoa deuseztatu.
- Irudietan arreta berezia jarri jendartean dugun aniztasuna islatzeko, mezua ez maskulinizatzeko eta genero-estereotipoak gainditzeko.
- Ahozko hizkeran adi egon erabilitako doinu eta gorputz-jarrerari, guztienaganako begirunea adierazteko eta inor bazterturik sentitu ez dadin.
- Espazioetan edo jardueretan neska eta mutilen parte-hartzea aztertu: Denbora berdina erabiltzen dute? Aukera berdina dute? Arreta eta erantzun berdinak ematen dizkiegu?.
- Emakumeen (neska gazte, heldu eta nagusien) esperientziak eta interesak diskurtsoan eta ikasgaietan barneratu, gizon-emakumeen garapenerako egindako ekarpenak erakutsi eta beren burujabetze eta askatasuna lortzeko egindako borroka txertatu.
- Erabiltzen ditugun material eta dokumentuak sortu eta aukeratzean hizkuntzari (ikonografikoa barne) erreparatu. Aukerarik ez dugunean, androzentrismoa eta sexismoa agerian jarri, eta genero-ikuspegitik eztabaidatu.
- Hezkidetzaren hizkuntza haurtxoko eta gaztelekuko esparru guztietan erabili (ahozkoa, idatzitakoa eta ikonografikoa, edozein euskarritan), baita kanpoko erakundeekiko harremanetan ere.

Funtsean, hezkidetzak bilatzen du neskei eta mutilen eta pertsona guztiei sentiaraztea aipatu zaiela, hitza dutela eta diskurtsoaren protagonistak direla. Eta aurreko proposamen guztiak batzen dituen hizkuntza, **hezkidetzaren hizkuntza** dugu.



2.5.1. Hizkuntza eta komunikazio pareki- deak bermatzeko irizpide zehatzak

Ahozko hizkuntza

Aisialdian erabilitako hizkuntza ere sexista da: hizkuntzaren akademiek gomendatutako genero maskulinoaren abusuak emakumezkoa den guztia estaltzen du, errealitate honen gutxiespena agerian geratzen da, aipatzen ez dena existitzen ez delako; aipatzen dena, aldiz, sozialki garrantzitsua da. Horregatik, ondoren, hezitzaileen hizkeran aztertzeke hainbat elementu landuko ditugu.

Gainera, aisialdian bereziki, neska eta mutilen arteko komunikazio-ereduak desberdinak direla ikus dezakegu. Neskek nahiago dituzte talde txikiko elkarrizketak eta gaiak harreman estua dute bizipen pertsonalarekin. Mutilek, berriz, talde handiak aukeratzen dituzte, askotan lehia inplikatzeko duen jolas baten inguruan.

Hezitzaileen funtzioa oso garrantzitsua da, gazteak beraiekin dauden artean haienzako erreferente bihurtzen direlako. Horregatik, inportantea da ikustea nola komunikatzen garen eta zer bultzatzen ari garen.

Ume baten aurrean askotan errepikatzen badugu “esan zure amari botoia josteko”, ume horrek honako mezu hau jasotzen du: amek botoiak josten dituzte. Aitaren kortexea, aitak bizikleta konponduko du...

Gauza bera jolasetan: ez da beharrezkoa gutxiesteko asmoz “neskatila ematen duzu” eta horrelakoak erabiltzea. Beraz, kontuz, ezer esan aurretik pentsatu.

Euskararen erabilera ez sexista bultzatzeko hainbat gomendio

Euskararen erabileran

- Euskararen erabilera zuzena zaindu eta gaztelaniazko eragina ekidin.
- Euskararen hitz sexistak saihestu.
- Hitz-elkarteak erabili. Euskarak sexu biak batera izendatzeko berezko baliabidea du: hitz-elkarketa, alegia. Neska-mutilak, neba-arrebak, jaun-andreak, gizon-emakumeak...
- Maskulinoa generiko gisa ez erabili.
- Hitanoaren erabilera zuzena egin.

- Sexuaren arabera trataera desberdindua: neska-gizona, Agirre jauna eta Miren.
- Pertsonak izen, abizen, kargu, lanbidez identifikatu eta ez rolagatik. Mikel Arana eta bere neska-laguna.
- Hitz iraingarriak ekidin: alua, mari-mutil, mari-koia...

Gorputz-adierazpena

Gorputz adierazpena da norberak bere sentimenduak, iritziak, kezak, emozioak... gorputzaren bitartez komunikatzeko eta azalarazteko gaitasuna. Komunikazio-mota horrek % 65eko garrantzia du elkarriketa batean.


Hori dela-eta, mezu subliminalak adierazteko duen ahalmenagatik, ahozkoa ez den komunikazioaren garrantzia azpimarratu behar da.

Hezitzaileen gorputz-adierazpenetan aztertu beharreko puntuak

- **Aurpegiko keinuak:** Begiekin, ahoarekin eta aurpegiarekin egiten diren keinuak: onarpen, axolagabekeria, gutxiespen, poztasun, haserre eta abarren aurpegi-adierazpenak.
- **Gorputzaren mugimenduak:** Eskuena, besoena, gorputz osoaren edo zati baten mugimenduak egoera desberdinen aurrean.
- **Sexuaren arabera gerturatzeko modua eta maiztasuna:** Hau da, nola eta zenbat gerturatzeko garen haur eta nerabeengana.
- **Ahotsaren tonua:** Ahotsaren intentsitatea, ahotsaren konbinazioa eta honekin lotutako aurpegi- eta gorputz-mugimenduak.
- **Hitzezko interpelazio-motak eta -kantitatea.** Erabiltzailearen arabera elkarrekintza eta arreta-maiztasuna, maila, kalitatea eta iraupena.

3

LURRALDE PRAKTIKOA: Nola txertatu hezkidetza?

- 
- 3.1** Hezkidetzarako plangintza:
zerbitzua hezkidetzaz zipriztindu
 - 3.2** Planifikazioaren eta
programazioaren gakoak
 - 3.3** Esku-hartzearen gakoak
 - 3.4** Ebaluazio-sistemaren diseinua

3. LURRALDE PRAKTIKOA: Nola txertatu hezkidetzaz?

Aisialdian hezkidetzaz lantzeak lan kontziente bat eskatzen digu, ez baita nahikoa nahiarekin. Arrisku-tsua da hezkidetzaz lantzen ari garela pentsatzea, berez ateratzen zaigun zerbait balitz bezala. Zoritxarrez, egun oraindik, denok jendarte sexista batean sozializatuak gara; eta gure umeei beste eredu bat eskaintzeko, ezinbestekoa da modu kontziente batean prestatzea dena, berez ateratzen zaiguna, filtrorik gabe, ez baita hezkidetzazkoa.

Horretarako, uneoro betaurreko berezi batzuk eraman behar ditugu jantzita, eta kristal horietatik behatzen errealtatearen azterketa egin beharko dugu, hau da, inguruan ditugun neska mutilen errealtatea zein den jakin gure planteamendua hortik abiatzeko. Zenbat neska eta zenbat mutil diren, zelako harremanak dituzten, zertarako zuzentzen zaizkion besteari, denok batera gaudeanean zelako parte-hartzea duten batzuek eta besteek, zelako espazioa dugun eta nola egoten den banaturik umeen artean, zer jostailu ditugun (eta zer bultzatzen duten), nola banatzen duten materiala beraien artean, zein den liderra...

Behin ikusita nondik abiatzen garen, errealtatearen azterketa egin ondoren, alegia, zer lortu edota aldatu nahi dugun definituko dugu: helburuak zehaztuko ditugu.

Programazio bat diseinatuko dugu helburu horiek kontuan harturik, noski. Argi izan behar dugu pentsaturiko ekintza bakoitzarekin zer lortu nahi dugun, ez du balio helburuetan "eztabaidetan nesken parte-hartzea handiagoa izatea" idaztea, programan horretarako zerbait berezia eta konkretua ez badugu: adibidez, txandak antolatu hitz egiteko, eta hitz egiteko pilota esku artean eduki behar izatea adostu, edo zuzenean hitz egiten ez dutenei galdetuko diegu.

Helburuak ezin dira idatzi idaztearren, programan eta egiteko moduetan islaturik egon behar dute, besteak beste, ondoren helburuak lortzeko jarri ditugun bitartekoak ebaluatu ahal izateko.

Horregatik, oso garrantzitsua izango da ebaluazio txukun bat egitea. Ekintzak aurrera doazen bitartean,

uneoro behatzen eta ebaluatzen ariko garen arren, bukaeran denbora bat hartuko dugu behatutako guztiaz hitz egin eta idazteko. Baliagarria da ebaluazioan hasieratik definituriko puntu batzuei jarraitzea; horiek emango dizkigute pistak hurrengo egunetan nondik jo jakiteko, zer aldaketa egin beharko dugun definitzeko.

Parte-hartzea ebaluatuko dugu, guk nola bultzatu dugun batzuen zein besteena: zer jolas mota eskaini ditugu gehien? Tradizioz mutilen ala tradizioz nesken izan direnak? Eta zer-nolako jarrerak dituzte haiek jolas ezberdin horien aurrean? Hezitzaileon artean lana nola banatu da? Zertaz arduratzen gara bakoitza? Zertaz hitz egiten dugu gazteekin? Desberdina al da neskak edo mutilak direnean? Gatazkarik egon bada, zelan egin diogu aurre? Neskak edo mutilak badira, berdina egiten dugu? Berdina espero al dugu batzuen-gandik zein besteengandik?

Beraz, hauek izango dira gure heziketa-lanaren ardatz teknikoak:

- Errealtatearen azterketa
- Planifikazioa
- Esku-hartzea
- Ebaluazioa



3.1. Hezkidetzarako plangintza: zerbitzua hezkidetzaz zipriztindu

Hezkidetzarako plangintza haurtxokoek eta gazte-
lekuek beren helburua betetzeko duten tresna
egokia da. Estrategiak, egin nahi dena aipatzeaz
gain, lortu nahi den hori adierazten du. Gauzatzea
estrategiaren alderdi garrantzitsua da, baina,
jakinarazi eta gauzatu aurretik, asmoak argi eta
garbi zehaztu behar dira. Eztabaida eta elkarrizketa
dira adostasunera heltzeko bideak; beraz, adosta-
sun horiek eragin handia izango dute estrategian.

Aldi berean, haurren eta gazteen sustapeneko
teknikariak haien hezkuntza-politika definitu behar
dute, proiektuen eta jardueren bidez, errealitatean
aldaketa-emaitzak lortzeko. Horregatik du horren-
besteko garrantzia plangintza berdintasunean
oinarrituta izateak. Erakundeak ikuspegi strategi-
koa izateak laguntzen du plangintzek eta proiektuak
ikuspegi horretara egokitzen eta, ondorioz, haien
artean koherentzia izaten.

Hezkidetzarako plangintzaren ezaugarriak

- **Parekidetasun-norabidea markatzen du:** etorki-
zunaren ikuspegitik zerbitzuko hezkidetzaz-
proiektuaren balioak eta asmoak ekintza bihur-
tzeko prozesu koherentea da.
- **Epe laburra eta luzea aurreikusten ditu:** ez da
urteko proiektu operatiboen batuketa hutsa.
Gutxi gorabehera hiru urtera begira eginga dago.
Garrantzia du hasieran momentuko ekintza de-
nak sistematizatzeak aukerak izatea.
- **Zerbitzu osoari egokitzeak helburua lortzen
laguntzen du:** kontuan ditu alderdi guztiak eta
zerbitzuaren hezkidetzaz-xede nagusiari errepa-
ratzen dio.
- **Egungo errealitatearen eta etorkizunekoaren
ezagutza elkartzen ditu (objektiboa eta subjek-
tiboak):** Pragmatismoaren eta utopiaren nahas-
keta egoki eta koherentea da, non generoak
eragindako itxaropenak argitu behar baitira.
- **Ekintza-erreferente bat da:** ez da adimenarekin
lotutako jarduera hutsa, baizik eta errealitate
bihurtu behar den proposamen bat: pentsa-
mendua, sentimendua eta ekintza koherenteki
biziz.

- **Prozesu operatiboak osatzen ditu:** Askotan
prozesu operatiboari dagozkion ekintza punta-
lak (...ren egunak, kanpainak ...) egiten ditugu.
Hauek nolabaiteko balioa badute, baina plan es-
trategiko baten barruan ez izateagatik, kultura
eraldatzeko adina indar ez dute.
- **Zerbitzuaren erabiltzaileei eragin behar die:**
Kutxetan gordetako idatzizko dokumentuek ez
dute langileen jardunean eragiten, estrategia
eztabaidatzeko eta zehazteko prozesuan per-
tsonak inplikatu ezean.
- **Bi norabidekoa izan behar du:** hau da, berdinta-
sunean aurrerapausoak emateko, alde batetik,
patriarkatua sostengatzen duten sinesmenak eta
pentsamendu-sistemak desegiteko ibilbideak
landu behar ditu, eta bestetik, ezagutza eta ja-
kinduria feministek babestutako praktikak eta
ekintzak antolatzeak edo taxutzeko ibilbideak.

3.1.1 Planifikazioaren elementuak

Ondoren, planifikazioan **funtsezkoak diren elemen-
tuak** azalduko ditugu:

- **Helburu orokorrak:** Haurtxokoak edo gazte-
lekuak lortu behar dituen emaitzak modu globa-
lean adierazten dituen enuntziatua da. Epe er-
tainera zehazten dira eta gure hezkidetzaz-
lanaren ardatza izango dira; zerbitzuaren ekite-
koa definituz.
- **Helburu zehatzak:** Haurtxokoak edo gaztelekuak
lortu beharreko emaitzak esplizituki, zehazki eta
behatzeko moduan adierazten dituen enuntzia-
tua da. Epe labur/ertainera zehazten dira eta
helburu orokorretan oinarrituko dira, hau da,
helburu orokorra lortzeko modua adierazten
dute, gure ekitekoa eta praktika xehetuz.
- **Helburu operatiboak:** Proiektuaren amaieran
lortu nahi den aurreikuspena adierazten dute,
helburu zehatzak nola lortu definituz. Lortutako
emaitzak neurtzeko funtzioa duten helburuak
dira.
- **Ebaluaziorako adierazleak (3.4.2 puntuan):** Gure
helburuak betetzen direla egiaztatzea ahalbide-
tzen duten elementu zehatzak dira. Adierazle
kuantitatiboak (bertarazten direnen, esku-
hartzeen, jardueren kopurua...)

eta kualitatiboak (bestelako eragileekiko lankidetza maila eta mota, zailtasun edota interes bereziko kolektibo baten partaidetza, ezkutuko arazo bat argitara ematea...). Hala ere, prozesuari zein emaitzei jarraipen egokiagoa egiteko, bi adierazle mota zehaztuko ditugu:

Prozesu-adierazleak

- Neurketa hau jardueren garapenean, gauzapenean eta moduetan ardatzen da.
- Adierazle hauen bitartez, zerbitzuaren (eta honen funtzionamenduaren) eta heziketa-praktikari buruzko informazioa errazago neurtzen da.

Efektu-adierazleak

- Epe labur eta ertainera espero ziren eragin /ondorioen emaitzak adierazten dituzte.
- Efektu-adierazleek helburu zehatzen lorpena neurtzen dute.



Taula honetan planifikazio-elementuen formulazioa nola egiten den ikus dezakezue:

Helburu orokorra	Helburu zehatza	Helburu operatiboa	Ebaluazio-adierazleak
Haurren zein gazteen parte-hartzea sustatzea.	Ekintza berezietan nesken parte-hartzea areagotzea.	<ul style="list-style-type: none"> • Nesken artean interesen neurketa txiki bat egin. • Aurreko ikasturteko ekintza berezien zerrenda egin. • Ekintza berezietara gutxienez hezitzaile emakume bat joaten dela ziurtatu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Nesken interesen erregistro fitxa (prozesu-adierazlea) • Nesken parte-hartzea % 20 areagotzea. (efektu-adierazlea) • Ekintza berezien artean gutxienez erdia neskek proposatzea. (efektu-adierazlea)

3.1.2 Planifikaziorako tresnak

Ondoren, planifikaziorako bi elementu aurkezten dizkizuegu (biak adibideekin beteta). Alde batetik, **“Helburuen eta adierazleen taula”**, helburuak eta hauen segimendua ardatz dituen, eta bestetik, **“Hezkidetzarako baliabideen urteko plangintza”**, orokorragoa eta baliabideen planifikazio zehatzean garatzen dena.



Fitxa 1 – Helburuen eta adierazleen taula: (txantiloia eranskinetan: 60. orria)

Helburu orokorra: Hezkidetzaren txertaketa benetako eta egingarri bilakatzea.		Prozesu-adierazleak (ikasturte erdian ebaluatu)	Efektu-adierazleak (ikasturte amaieran ebaluatu)
BALIABIDEA	HELBURU ZEHATZA		
1. GU/LANTALDE PROFESIONALA:	<ul style="list-style-type: none"> • Gu eredu izateko, gure hezkidetzaz-ikuspegiak komunikatzeko joerak /moduak aztertu. 	<ul style="list-style-type: none"> • Behaketa-fitxa • Betaurreko moredun behatzailea • Behatzailearen oharrak • Behaketaren maiztasuna eta epeak markatu • Lan taldearen autokritika neurtu 	<ul style="list-style-type: none"> • Hezitzaileen harremanetan tratu onak ziurtatu dira. • Pentalogoaren erabilgarritasuna berretsi da.
2. GU/ ERABILTZAILEEKIKO HARREMANA:	<ul style="list-style-type: none"> • Hezitzaileen artean rol-aldaketa egitea, kanpo ekintzetan oinarrituz. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eguneroko fitxen azterketa koordinazioan • Generoaren araberako atxikimendua hezitzaileekiko • Gazteengandik datorren ekintzen ondorengo analisia • Hezitzaileen trebaketa funtzio ezberdinetan 	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteengan hezitzaileen jarrera onen isla lortu da. • Kanpoko espazioa ondo erabiltzen da.
3. MATERIALA:	<ul style="list-style-type: none"> • Eskaintzen dugun materialetik generoa ezabatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Materialen erabileraren azterketa • Eguneroko fitxak • Erabiltzaileen material eskaera • Gure materialaren eskaintza (inbentarioa) 	<ul style="list-style-type: none"> • Gazteen materialari erabilpen anitza eman zaio. • Materiala egoki erabili da.
4. ESPAZIOA:	<ul style="list-style-type: none"> • Ohiko kirol-jardueretatik at datozen kirol-eskaintzak sustatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> • Eguneroko fitxak • Koordinazio-bileretako hausnarketak • Behaketaren maiztasuna • Espazioaren erabileraren azterketa 	<ul style="list-style-type: none"> • Espazioaren erabilera egokia, orekatua eta anitza izan da. • Espazioaren kudeaketa egokia izan da.

Fitxa 2 – Hezkidetzarako baliabideen urteko plangintza: (txantiloia eranskinetan: 61. orria)

<p>BALIABIDEAK HEZKIDETZAREN IKUSPEGITIK PLANIFIKATZEN</p>	<p>Gu/lantalde profesionala</p>
<p>Azalpena / Aurkezpena</p>	<p>Zenbat gara? 8 kide 3 neska 5 mutil Noiztik gaude lanean? 3-6 urte bitartean Hezkidetzaz formazioa dugun edo ez:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bai, denok gaude formatuta. Gainera, hezkidetzan aditua den lankide bat dago. • Hezkidetzaren karpetatxoa landuta dugu.
<p>Urteko helburu orokorra</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Betaurreko moreak lantaldearen eguneroko jardunean, hizkuntzan, jarreretan, rolen eta arduren banaketan erabiltzea.
<p>Urteko helburu zehatzak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gu eredu izateko, gure hezkidetzaz-ikuspegitik komunikatzeko joerak/moduak (hizkuntza-jarrerak) aztertzea. • Gure arteko harremanetan (erabakiak hartzeko guneetan) funtzionatzeko, dekalogoia (pentalogoia) sortzea. • Formazio-saioetan jasotako esperientzia / jakintza lantaldeetara ekartzea eta, horrekin lotuta, gure lan-jarduna hezkidetzazkoago bilakatzeko mekanismoak martxan jartzea.
<p>Esku-hartzeko estrategiak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Pentalogoia sortu eta garatu. Dekalogoian azalduko diren irizpideak betetzen diren ala ez ebaluatzeko, pertsona bat izendatu. Honek behaketa egingo du. <p style="text-align: center;">.DENBORA, PARTE-HARTZEA .ARDUREN BANAKETA-ROLAK .TONUA .HIZKUNTZA, KOMUNIKATZEKO JARRERAK .INIZIATIBA</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gaztematikako prestakuntza-saioetan parte hartzeko erraztasunak eman eta saio horiei garrantzia ematea. • Lantaldean hezkidetzan aditua den kide bat egotea eta horretarako ahalegina egitea.
<p>Ebaluazio-adierazleak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Gaztematikako hezkidetzarako prestakuntza-saioei behar duten denbora eskaini zaien edo ez. • Hezkidetzarako prestakuntza, saio eta hausnarketei eskainitako denbora. • Pentalogoia betetzen den edo ez.

<p>BALIABIDEAK HEZKIDETZAREN IKUSPEGITIK PLANIFIKATZEN</p>	<p>Gu/erabiltzaileekiko harremana</p>
<p>Azalpena / Aurkezpena</p>	<p>Egunero arreta zuzenari eskainitako denbora: 12 ordu astean</p> <p>Batez besteko erabilera: 25-30 erabiltzaile egunean</p> <p>Funtzionamendua: Bi hezitzaile finko, gainerakoak asteburuetan txandaturatuz.</p> <p>Aurrez lantaldean rola hezkidetzari arreta emanaz banatzen dira. Behin hau barneratuta, modu naturalean hartzen dira, betiere hezitzaileen jakintzen arabera.</p>
<p>Urteko helburu orokorra</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Guk gazteengan eragiteko estrategiak lantzea eta sistematizatzea.
<p>Urteko helburu zehatzak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nortasuna garatzen laguntzea generoari lotzen zaizkion roletatik kanpo. • Elkarbizitza ahalik eta errespetuzkoena izatea.
<p>Esku-hartzeko estrategiak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Jokabide desagokiak antzeman eta hausnarketa sustatu. Horretarako zerbitzu bakoitzaren erabiltzaileen mapa egin. • Gazteen gaitasunak eta gustuak babestu eta indartu, aurreiritzi sexistak baztertuz. Pertsona bere horretan ulertu generoari egozten zaizkion estereotipoetatik kanpo. • Gazte-eredu estereotipotik aldenduz, denetariko ekintzak antolatu. Eraso sexista fisiko zein berbalak zerbitzuetatik ezabatu.
<p>Ebaluazio-adierazleak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Jokabide desagokiak egon diren edo ez adierazi. • Espazioaren mapa erabili kuadrilla bakoitza non kokatzen den adierazteko. • Egindako ekintzak zerrendatu eta aniztasunari erantzuten dioten ala ez hausnartu.

BALIABIDEAK HEZKIDETZAREN IKUSPEGITIK PLANIFIKATZEN	Materiala
Azalpena/ Aurkezpena	<ul style="list-style-type: none"> • Musika/wii/mahai-jolasak/irakurgaiak/pc/eskulanak egiteko materiala+tailerrak/muralak egiteko materiala/hanka-paloak/...
Urteko helburu orokorra	<ul style="list-style-type: none"> • Materialaren eskaintza/eskari eta erabileraren diagnostia egitea.
Urteko helburu zehatzak	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasturte amaieran materialaren erabilerari buruzko azterketa egitea hezkidetzaren ikuspegitik.
Esku-hartzeko estrategiak	<ul style="list-style-type: none"> • Hezitzaileen artean diagnostia egiteko materialak banatu.
Ebaluazio-adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Dinamika martxan jarri den edo ez.

BALIABIDEAK HEZKIDETZAREN IKUSPEGITIK PLANIFIKATZEN	Espazioa
Azalpena / Aurkezpena	<ul style="list-style-type: none"> • 2 Gelatan banatuta: gune txikia (hutsa dago; balio anitzekoa) eta gune handia (sofak, jolasak, eszenatokia...)
Urteko helburu orokorra	<ul style="list-style-type: none"> • Neskek eta mutilek espazioaz berdin gozatzea zaildu edo ahalbidetzen duten elementuak aurkitzea (egoeraren diagnostia egitea) ondoren esku-hartze egokia gauzatzeko.
Urteko helburu zehatzak	<ul style="list-style-type: none"> • Espazioaren erabilerari buruz erabiltzaileekin hausnartzea. • Espazioak erraz aldatzeko bitartekoak ipintzea.
Esku-hartzeko estrategiak	<ul style="list-style-type: none"> • Espazioaren erabileraren diagnostia egin (hezitzaileena barne). • Gabeziak eta aldatu beharrekoak identifikatu eta esku hartzeko planak diseinatu.
Ebaluazio-adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Espazioaren erabileraren diagnostiak emandako ondorioak. • Neskek eta mutilek espazioa berdin erabiltzen dute.

3.2. Planifikazioaren eta programazioaren gakoak

Esku-hartzearen programazioa etengabeko hobekuntza-prozesua da eta egunez egun lortzen da, ikasturte bakoitzean planifikatu eta ebaluatu behar den prozesu baten baitan. Ekipamendu baten edo heziketarako edozein eremutan bizitza ez da ikasturte bakoitzean hasten, aurrekoari jarraitzen baitio; hori dela-eta, norabidea gogoratzeaz gain, beharrezkoa da non gauden eta aurrera jarraitzeko zer egin behar dugun jakitea. Aurreko urteetako ebaluazio-memoria izaten da hurrengo urterako planaren abiapuntua.

Ikasturte bateko ikuspegia oinarri hartuta, urte osoko plana funtsezko tresna da antolakuntzarako eta funtzionamendurako. Urtebeterako finkatu diren helburuak lortzeko lan-proiektu zehatz eta argia da, eta "operatibo" bihurtzen dituzte Gazteria Planean eta, ondorioz, haur eta nerabeen zerbitzuetako plan estrategikoetan adierazitako xedeak eta helburuak. Bertan, lortu nahi diren helburuak adierazten dira, jarduera zehatz, argi eta ebaluagarrien bitartez; horrela, agerian uzten da ikasturte baterako aurreikusitako lorpenak erdiesten direla.

Urte osoko planaren eta horri dagokion ebaluazio-memoriaren xede dira antolakuntza eta eraginkortasuna lortzea, eta hezkuntza-komunitateari jakinarazteko datu objektiboak biltzea ere bai.

Urteko plana oso dokumentu praktikoa da eta jardura-eremu guztiei egiten die erreferentzia. Behar bezala gauzatzen dela bermatzeko, komunitate osoaren parte-hartzearen bidez egin behar da. Horiek ebaluatzeko adierazleek eta irizpideek ere esplitziki agertu behar dute.

3.2.1 Hezkidetzaren oinarritutako programazioaren izaera

Hona hemen hezkidetzarako programazioa txertatzean garrantzitsuak diren gakoak:

Koherentzia. Urte osoko planak koherentea izan behar du, oinarri dituen plan estrategikoetan islatzen den hezkidetzaz-ikuspegiarekiko eta horietan

jasota dauden helburuekiko; hain zuzen ere, horiek adierazten dute aisialdi-jarduera guztiaren norabidea.

Malgutasuna. Etengabe berrikusten da, une oro erabilgarri izatea bermatzen duten aldaketak sartzeko; horrela, edonolako ekintza burokratikatik urruntzen da. Izan ere, unean uneko errealitateak markatzen dizkigun beharrak etengabe txertatu behar ditugu.

Lantalde profesionalaren parte-hartze parekideaz eta adostasunez sortua. Hezitzaileek egiten dituzten hausnarketen, premia-azterketen eta proposamenen nahiz hartzen dituzten konpromisoen emaitza da.

Gidaria. Zerbitzuko jarduera guztietarako gida da eta ekipamenduan egiten den edozer gauzari eman behar dio hezkidetzaren zentzua.

Ebaluagarria. Izan ere, ikasturterako proposatutako helburu bakoitza ebaluatzeko, generoko lorpen-adierazleak eta irizpideak zehaztu behar dira. Adierazle kualitatiboak zein kuantitatiboak garrantzitsuak dira.

3.2.2 Programazioan txertatzeko aldagaiak

Prestakuntza. Edozein berrikuntza-prozesutan prestakuntza funtsezkoa da. Horregatik gazteria-sailetatik bultzatutako programek eta ekimenek bermea izan dezaten, ekipamenduetako beharrei egokitutako prestakuntza-prozesu sendoak izan behar dute.

Partekatzea. Ekipamenduan bertan egitearekin batera, sareak bultzatzea lagungarria da ezagutza, esperientziak eta ilusioak partekatzeko. Horrek hezkuntza-komunitate osoko gainerako eragileekin (hezkuntzakoekin eta aisialdikoekin) elkarguneak sortzea ahalbidetzen du; azken finean, ezagutza partekatu eta sortzeko egiturak eta guneak dira, jakinduria sortzeko tradizionalki femeninoak izan diren modu horizontalak.

Zeharkakotasuna. Berdintasun-plana estrategikoa denez hainbat urtetarako da. Bere helburua da irakaskuntza-jardura etengabe berdintasun-irizpideetara egokitzeko baldintzak sortzea. Horreta-

rako, zeharka eta zuzenean ekipamenduak garatzen dituen egitarau eta plan ezberdinetan eta antolaketan bertan txertatu behar dira bizikidetzaren ikusmoldea eta genero-ikuspegia.


Estrategiatik operatiboetara. Gogora dezagun helburu estrategikoek arlo ezberdinetan eragin beharreko hezkidetzalehentasanak eta helburu orokorrak zeintzuk diren nabarmentzen dutela. Horrela, modu koherente batean heltzen zaio gaiari eta ondoren, zerbitzuaren urteko plana kontuan izanik, hezkidetzahelburu eraginkorren zehaztapena errazten da.

Hezkidetzaharriak oinarri. Hobetzeko proposamenek aurrez egin dagoen eta genero-ikuspegia funtsezko duen diagnostiko batean oinarrituta egon behar dute.

3.3 Esku-hartzearen gakoak

3.3.1 Kasu praktikoak

Ondoren, eta kasu praktiko batzuekin osatuta, esku-hartze zehatz batzuei aurre egiteko eta lan-jarduna planifikatzeko baliagarria egingo zaizuen fitxa bat aurkezten dizuegu: **“Esku-hartzeak planifikatzeko fitxa”**.



Fitxa 3 – Esku-hartzeak planifikatzeko fitxa: (txantiloia eranskinetan: 62. orria)

Egoera	Azalpena	Zergatik landu?
Espazioa	Gure zerbitzura datozen erabil-tzaile neskek ez dute espazio nagusia erabiltzen eta horrek eragina du parte-hartze orokor-rean; bestelako zailtasun bila-katuz.	Espazioari buruzko diagnosia egitea funtsezkoa da, nolabait protagonismoa-rekin eta parte-hartzearekin lotutako zailtasunak identifikatzeko. Kasu hone-tan, oso beharrezkoa da zerbitzuetako espazio nagusiaren erabilerak berdinta-sunean oinarritutako gutxieneko irizpi-deak izatea.

Nola egin aurre?

- Neskekin funtzionatuko duen esku-hartzea zehaztuz eta honi programazioan lehen-tasuna emanez.
- Espazio fisikoaz gain programazio guztia aztertuz, oreka bilatzeko abiapuntu moduan.

Helburuak:

- Nesken protagonismoa areagotzea.
- Nesken artean konfiantza eta komunikazioa lantzea.

Estrategiak:

- Ekintzen metodologia kontuan hartu.
- Ekintza “femeninoak” erdigunean jarri.
- Espazioak/boterea/sexuaren arteko lotura aztertu.
- Espazioa beraiekin batera eraldatu.

Egoera	Azalpena	Zergatik landu?
Materiala	Zerbitzuan “irakurketa-txokoa” daukagu eta hurrek zein nerabeek ipuin, komiki edota aldizkari estereotipatuen eskaria egiten dute.	“Irakurketa txokoa” egotea garrantzitsua da eta honek betetzen duen lan pedagogikoa azpimarratzekoa. Horregatik, hezkidetzaren lanketarako funtsezkoa da espazio honetan eskaintzen den materialaren gaineko “marra gorriak” zehaztea.

Nola egin aurre?

- Egoera honen aurrean haur edota nerabeei ez diegu ezezkia emango. Hain estereotipatuak ez direnak ere jarriko ditugu. Ezetza ez emateak, lanketa sakonago bat egiteko aukera emango digu.

Helburuak:

- Beraien ikuspegi kritikoa azalratzea eta hau ahal den esparru gehienetan lortzea.
- Estereotipoen lanketa egitea, hainbat baliabide erabiliz.

Estrategiak:

- Aldizkari estereotipatuetako irudien, hitzen eta abarrekoen bilaketa.
- “Muturrekoa” beraiei erakutsi, eta “alerta-egoera” batean egotea ahalbidetuko diegu.

Baliabideak:

- Erabiltzaileek aukeratutako materiala.
- Hezkidetza-irizpideei jarraituta, guk aukeratutako irakurketa-materialak.

Egoera	Azalpena	Zergatik landu?
Gu / erabiltzaileekiko harremana	Gure zerbitzura erabiltzaile kopuru oso handia dator eta askotan ezinezkoa da esku-hartze hezigarria aurrera eramatea. Hau da, erabiltzaile-kopuru handi honek edozein zehar-lerro txertatzea oztopatzen eta zailtzen du. Batez ere, zerbitzua baliabideen kontsumorako espazio bihurtzen denean.	Horrelako egoera baten aurrean, zerbitzuko eragileek ez dakite nola txertatu zehar-lerroak eta gutxieneko heziketa-lana zehazteko zailtasunak agertzen dira. Aldi berean, berdin gerta daiteke kontrako kasuan, hau da, erabiltzaile-kopuru oso txikia dugunean.

Nola egin aurre?

- Erabilera antolatuz adin-tarteak edo ordutegiaren araberako txandak eginez.
- Zerbitzua ekintza antolatu zehatz baterako soilik irekiz.
- Espazioaren txandaketa eginez eta espazio desberdinetan dinamika desberdinak sortuz.
- Ekintza gidatuak eta irteerak proposatuz.
- Ekintza gidatua den momentu berean beste jolas batzuk dinamizatuz.
- Zenbait baliabideren erabilera murriztuz.
- Baliabideen erabilera hezigarriago bat sustatuz.

Helburuak:

- Zerbitzuko heziketa-ekintzen kopurua igotzea.
- Baliabide guztien erabilera hezigarria sustatzea.

Estrategiak:

- "B planen" zerrenda bat osatu.
- Erabiltzaileen beharrak kontuan hartu.
- Baliabideak aztertu eta batzuen erabilera murriztu.
- Baliabideen erabilera hezigarria sustatu.

Baliabideak:

- Hezitzaileen lana.
- Erabiltzaileen iritzia.

3.3.2 Hezkidetza lantzeko edukiak

Haurrentzako zerbitzuetan lantzeko edukiak

- Jarrerak
- Identitatea eta gure burua ezagutzea
- Sentimenduak eta emozioak
- Gorputza
- Harremanak eta komunikazioa
- Errespetua
- Sexualitatea
- Bizitzaren garapena eta aldaketak
- Erantzukizunak
- Arauak
- Indarkeria
- Komunikabideak eta publizitatea
- Hizkuntza
- Etxea
- Ipuinak
- Jolasak eta jostailuak

Jarrerak

Hurrek bizitzako hainbat iturritatik jasotzen dituzte jokatzeko moduak: familiaratik, gurasoengandik, bestelako ahaideekin dituzten harremanen bidez, eta baita eskolan, hango ikasgai eta arau edota aisialdiko jolas eta jostailuen bitartez ere; hau da, egunerokotasunean entzuten eta ikusten dituzten portaeren bitartez. Beraz, denak dira garrantzitsuak, eta beharrezkoa da haien arteko koherentzia landu eta mantentzea.

Haurren heziketan oso garrantzitsua izaten da helduen eginkizuna. Egunero ikasten dute, konturatu gabe, helduek egiten dituzten gauzetatik. Beraz, helduak kontziente izan behar dira beren jokaerez eta jarreraz, haurrentzat eredu eta erreferente direlako. Hurrekin dituzten harremanak, gainerako helduekin dituztenak, etxeko lanbanaketa...; arlo guztiek behar dute helduen hausnarketa eta, jarrera negatibo eta desegokien aurrean, aldaketarako prestasuna eta nahia.

Jarreraren barnean lotura duten alde kognitiboa, afektiboa eta prozedurakoa bereizi daitezke, hain zuzen ere, ideiak eta ezagupenak, adierazpen emozionalak eta ekintzak. Jarrerak landu egin behar dira, jarrera irekiak eta positiboak bultzatu, eta negatiboak, linealak eta zurrinak birziklatu. Azken batean, jarreraren gainean lan eginez gaitasunak bultzatuko ditugu eta, beraz, behar duten garrantzia eman behar zaie.

Identitatea eta gure burua ezagutzea

Identitatea da norberak duen izatearen kontzientzia, inguruak norberari buruz bidaltzen diona eta bakoitzak bere buruaz pentsatzen duena lotuz eraikitzen dena. Hala ere, identitateaz ari garenean, funtsezkoa da sexu-identitatea eta genero-identitatea bereiztea eta bakoitzak zer adierazten duen jakitea, neska eta mutila izatearen kontzientzia eraiki edo taxutu egiten baita.

Sexu-identitateak esan nahi du nork bere sexuaren kontzientzia izatea, hau da, arra edo emea izatea. Genero-identitateak, berriz, esan nahi du norberak jendartean sexuaren arabera jasotzen duen informazioagatik neska edo mutila izatearen kontzientzia izatea. Genero-identitatea sortzen da jendartean dauden estereotipoetatik, familiaren balioetatik, modan dauden ereduetatik, liburu eta komunikabideetan erakusten diren bizimoduengatik..., horietan guztietan mamitzen den informazioaren ondorioz.

Oso garrantzitsua da autokontzeptua lantzea adingabeekin. Adin horretan, nor bere ezaugarriak, gaitasunak, ezintasunak, desirak, interesak eta abar ezagutzen hasten da, norbere "izateaz" kontzientzia hartuz, gero baloratu, onartu eta gartzeko. Garrantzitsua da konturatzea pertsona eredu bat baino gehiago dagoela, ikustea emakume, gizon eta bizitza-proiektu askotarikoak daudela eta, halaber, jakitea harremanak ezberdinak eta pluralak direla.



Sentimenduak eta emozioak

Sentimenduak eta emozioak pertsonen sortu eta bizi ditugu, eta konplexuak dira. Ezaugarri fisiko eta psikologikoen gain, ezaugarri sozialak eta kulturalak ere badituzte. Izan ere, beste pertsona batzuek ikasi eta sentitzen ditugu, eta modu askotan bizi eta adierazten ditugu, tokiaren eta garai historikoaren arabera. Gaur egun jakin badakigu emozioak eta sentimenduak ikasi egiten ditugula eta, orokorrean, bizitzako esperientziak modu positibo eta zorientatuagoan bizi ditzakegula.

Genero-ikuspegia kontuan hartuz gero, badirudi gure jendartearen neskek eta mutilen modu askotan sentitzen eta adierazten dituztela emozioak. Orokorrean, mutilei ez zaie uzten maitasuna, samurtasuna, eta halako sentimendu positiboak adierazten, eta neskek, berriz, genero femeninoaren arabera nortasuna hartuta, sentimendu horiek erraz adierazi eta garrantzi handia ematen diete. Hori dela-eta, genero-ereduetatik harago, sentitzeko modu asko dagoela hausnartu, onartu eta partekatu beharra dago.

Gorputza

Gorputza izaten da garapenaren adierazle; atalen usaina aldatzen doa, begi, ile eta azalaren kolorea, indarra, koordinazioa... Gorputzaren bidez, nork bere ezaugarriak, gaitasunak, nahiak, gogoak, beldurrak eta kezak hobeto ezagutu eta bideratzeko aukerak lantzen ditu.

Gorputza ezinbesteko elementua da pertsonen identitatea eraikitzeko. Genero-bereizketatik at, gorputzen aniztasuna sinetsi eta onartu beharra dago. Izan ere, denon gorputzak desberdinak dira eta, adinean aurrera egin ahala, gainera, aldatu egiten dira. Oso garrantzitsua da nork bere gorputza zaindu, entzun, ezagutu eta maitatzea eta den bezala errespetatzea.

Gorputzaren esparruan gaitasun garrantzitsua da adierazpena. Gure burua pertsona gisa ikusten erakusten digu, eta aukera ematen digu besteengana hurbiltzeko. Horretarako, hitzeko lengoia-ekin batera, gorputzaren lengoia ere erabiltzen dugu eta garrantzitsua da azken hau ere kontuan hartzea.

Harremanak eta komunikazioa

Gizabanakoa jendartearen hezten eta garatzen da eta momentu oro harremanean dago besteekin. Gure jendartearen sexuen arteko harreman-eredu bereizleak eragina izaten jarraitzen du: emozioak adierazteko zailtasunak aurkitzen ditugu umeetan, frustrazioa eta agresibitatea bideratzeko ezintasuna mutiletan eta negarra eta urduritasuna gainditzea nesketan. Horrekin batera, sexu bereko taldean onartua izateari lehentasuna ematen zaio eta bi sexuen arteko desberdintasunak indartzen dira; nork bere banakotasuna ukatuz: adibidez, nesken ustez, mutilak astakiloak dira...

Ahozko komunikazioaz gain, ahazkoa ez den komunikazioaren garrantzia ere kontuan izan behar da, komunikazio-egoera gehienetan prozesu bikoitza ematen baita: komunikazioaren zati bat hitzekoa da, eta bestea ez-hitzekoa (aurpegia, eskuak, gorputzaren mugimenduak, isiluneak...) Hitzekoa ez den komunikazioak, askotan, hitzen kontzeptuen eta ideien ginetik, pertsonen benetako pentsaera, aurreiritziak eta sentimenduak transmititzen ditu; eta beraz, nesken eta mutilen arteko ezberdintasunak ez indartzeko, hori ere kontuan izan behar da.

Errespetua

Pertsona guztiak gorputza, pentsaera, sentimenduak, nortasuna eta laguntasuna garatzen ahalegindu behar dira; modu horretan, bost alderdi horiek norberarekiko eta besteekiko garatuz, errespetuan hazi eta bizitzeko aukerak areagotuko dira.

Bakoitzak bere buruarekiko errespetua landu behar du, nork bere banakotasuna (nia) bilatu eta indartu eta protagonismoa sustatu. Hala, posible izango da pertsona autonomoa, arduratsua eta zorientatua izatea.

Bakoitza bere ezaugarri eta berezitasunekin gus-tura egonez gero, errazagoa da ingurukoekin gus-tura egotea. Esperientzien eta gauzen alde negatibo eta positiboak ezagutaraziz, ondo sentiarazten gaituzten pentsamenduak eta ekintzak garatzen dira. Gazteek, helduek bezala, erraztasun

handiagoa dute alde negatiboez konturatzeko eta hitz egiteko, alde positiboez aritzeko baino. Ildo horretan, bizitzaren eta gauzen alderdi politik gogoratuz eta horietan pentsatuz gero, ekintza politik egingu ditugu.

Errespetua oinarritzen da norbera izatean, besteon berezitasunak onartzean eta inguruaren zainketan eta, horrela, sentimenduak kontuan hartuz eta adieraziz gero, konfiantzazko lagunak lortuko dira. Zoriona bilatzean errespetuarekin egiten dugu topo eta, errespetua onartu, baloratu eta garatuz gero, autoestimua ere landuko dugu. Besteak, ingurunea eta norbanakoak errespetatzeak autoestimua eta autokontzeptu positiboaren bidez baloratzen hastea dakar.

Sexualitatea

Bizitza osoan eta jaiotzen garenetik sexutu egiten gaituzte, plazera bilatzen dugu eta gorputzeko sentazio berriak ezagutzeko gaitasunarekin jaiotzen gara. Sexualitatea ez da jarri edo kendu daitekeen zerbait, plazera lortzea posible egiten duena baizik. Hori horrela, bakoitzak baditu bere interes eta jarrera sexual konkretuak, berezko sexutze-prozesua eta, horren ondorioz, bere sexualitatea.

Jendartea eta hezkuntza-sistema ez dira batere lagungarriak plazera bilatzeko prozeduran, sexualitateaz, gorputzaz edo plazerez hitz egitea eta hori garatzea zikin eta morbosotzat hartzen dituztelako. Gaur egun, sexualitatearen eredu zurruna eta berezia mantentzen da: neskek gogoko dituzte printzeen maitasunezko harreman-istorioak, edertasun-ereduei garrantzia ematen diete, sekretuan bizi dute gorputzarekiko kontaktua...; mutilek, ordea, ez dute lotsarik zakila nahi dutenean ukitzeko, gorputza osotasunean adierazteko, eta ez dute izaten sentitzeko ohiturarik. Denek uste dute sexualitatea nagusien kontua dela. Sexualitatea sozialki baldintzatuta dago, eta oraindik neskei eta mutilei sexualitatearen inguruko mezu eta rol bereziak ematen zaizkie. Horregatik, garrantzitsuena da bakoitzari gustatzen zaiona eta ez zaiona ikastea; eta horretarako gure gorputza zaindu, ezagutu eta maitatu beharra dago.

Bizitzaren garapena eta aldaketak

Ulertu behar dugu bizitza etengabe aldatzen den prozesua dela eta, pertsonari zein inguruneari dagokionez, hau da, bizitza eremu guztietan (lagun-harremanak, aisialdia, eskola, etxea...) garrantzitsua dela aldaketei buruzko hausnarketa egitea, aldaketak onura moduan bizitzea, eta bizitzan aurrera positiboki egiteko estrategiak bilatzea.

Bizitzako eremu guztietan ematen diren aldaketez gain, gorputzean ere arreta jarri beharra dago. Haurrak eta gaztetxoak gorputzak duen garrantziaz eta aniztasunaz konturatu daitezke, eta gorputz-aldaketak ulertu eta modu positiboan bizitzeko aukerak garatu ditzakete.

Erantzukizunak

Pentsamendu magikoak bidea irekitzen dio pentsamendu logikoari, hau da, pixkanaka-pixkanaka umetxoak gai izaten dira gauzen jatorria zein ekintzen ondorioak berri jakiteko. Funtsezkoa izango da ume bakoitza konturatzera bere sentimenduen, pentsamenduen eta ekintzen arduraduna dela. Norbera izatearen arduraren ondorioz, era naturalagoan ikasiko dute galtzen jolasean, zainketa pertsonalaz arduratuko dira edo jolasak gordeko dituzte.

Erantzukizuna agertzen da kontzienteak garenean eta badakigunean gauzak zergatik egiten ditugun, bizitzaren protagonistak garenean, botere eta autoritate pertsonala edukita erabakiak hartzen ditugunean eta gugandik hitz egiten dugunean, gure burua baloratzen dugunean eta betebeharrerekin konpromisoak hartzen ditugunean.

Arauk

Jendartean arauak ezinbestean daude eta, gure egunerokotasunean, askotan modu inkontziente batean erabili eta bizitzen ditugu. Horien aurrean ez da berdina izaten nesken eta mutilen erantzuna. Kasu batzuetan, interesen arabera guk geuk asmatzen ditugu, eta beste batzuetan, jendarte sexistak inposatutakoak izaten dira.

Hala ere, arauak guztion artean egin ditzakegu eta, beraz, aldatu egin daitezke. Malgutasuna izan behar da arauak izan behar duten ezaugarrietako bat. Arauak errespetatu daitezzen, ezagutu egin behar ditugu, ulertu eta barneratu; eta gureak izango dira, guk eratzten, mantentzen, eraldatzen eta zabaltzen parte hartzen dugun heinean.

Indarkeria

Gure jendartean, indarkeria oso presente dago, agerikoa da eta adin-tarte guztietan ematen da. Portaera bortitzak esan nahi du pertsonaren garapenean kaltea eragitea. Norbanakoaren segurtasun fisikoa, psikologikoa edo sexuala mintzen da, eta pertsona edo kolektibo baten borondatearen kontrako ekintza moduan definitzen da. Indarkeria psikologikoa edo fisikoa izan daiteke eta ezaugarri ezberdinak edo berdinak dituzten pertsonen artean gertatu daiteke.

Haurren arteko indarkeriari dagokionez, esaterako, beti existitu den arren, ez da normalizatu behar. Gazteen arteko harremanetan, bultzadak, zirrikak, zangartekoak eta abar izaten dira. kontaktu-eredu hori, batez ere, mutilen artekoa da eta erabiltzen dute pertsonen arteko harremanetan mugak jaritzeko eta kontaktua nolakoa izan daitekeen ikasteko. Baina, askotan, kontaktu-jolasa eraso bihurtzen da eta garrantzitsuena, ekintza izan beharrean, biktimarengan sor daitezkeen ondorioak izaten dira.

Hori guztia ez gertatzeko, ezinbestekoa da elkarbizitzan eta errespetuan oinarritutako heziketa lantzea eta garatzea, eta denon erantzukizuna dela gogoratzea, haurrena nahiz nagusiona. Guraso askok jarraitzen dute esaten "jotzen bazaituzte, jo"; gaur egun, ordea, gure proposamena da eraso bati aurre egiten ikastea bakoitzak bere burua defendatuz, besteei kalterik eragin gabe.

Komunikabideak eta publizitatea

Gaur egun, gure jendartean hedabideek gero eta indar handiagoa dute eta gure egunerokotasunean momentu oro presente ditugun informazio-bideak dira. Hedabideen artean, telebista eragiten du gehien haur eta gaztetxoengan eta, horregatik, adi ibili behar da telebistan ikusten dutenarekin.

Beharrezkoa da telebistako mundu estereotipatuaz umeei hitz egitea: gizonak eta emakumeak banatuta agertzen dituzte, indarkeria normaltzen dute eta individualismoa eta lehiakortasuna bultzatzen dituzte, besteak beste. Gainera, iragarkiek duten eragina kontuan hartu beharra dago, publizitateak, askotan, gure balioak, jarrerak eta portaerak antolatu eta kontrolatzen baititu. Hedabideak erabiltzeko momentuan garrantzitsua da jakitea zer ikusten dugun, zein mezu jasotzen ditugun, eta haurrek telebista ikusten dutenean orientatzea. Horren helburua da, azken batean, haurrak ikusten, entzuten eta jasotzen duten horri buruz hausnartzera bultzatzea.

Hizkuntza

Hizkuntza txikitatik ikasi eta konturatu gabe erabiltzera iristen gara. Errealitatea sortu eta eratzeko dugun tresna garrantzitsuenetakoa da. Hizkuntza guztien erabilera sexista izaten da maila batean, eta hori gaztelaniarekin zein euskararekin gertatzen da.

Hala ere, hizkuntza guztiek baliabideak eskaintzen dizkigute hori gerta ez dadin. Hori dela-eta, hizkuntzaren bidez, pertsonen artean sor daitezkeen diskriminazioak indargabetzeko, egitura zuzenak bilatu eta bultzatu behar ditugu, eta okerrak alboan utzi. Neskak eta emakumeak islatuta eta identifikatuta sentitu behar dira hizkuntzan. Horretarako, arreta jarri behar dugu ahozko zein idatzizko adierazpenetan eta ez dugu ohitura sexistarik izango.

Etxea

Jendarteak esparru publikoak eta pribatuak bereizten ditu. Etxea esparru pribatua izanda, funtsezkoa da intimitatea garatzeko; izan ere, gurasoekin, neba-arrebekin eta familiako gainerako kideei emozioak adierazteko, zalantzak galdetzeko, gauzen baloreak jasotzeko, erantzukizunak hartzen hasteko, arauak betetzen hasteko eta abarerrako gunea da.

Ahalegina egin behar dugu haurren eta gaztetxoaren erreferenteak diren familiako kideek hezkidetzaren ikuspegitik jarduteko eta haiek hitzez zein ekintzez irakasteko. Funtsezkoa da umeen

logela, arropa, jostailu, liburuen... sexu marka gaintitza.

Ipuinak

Ipuinek eta, haiekin batera, mitoek eta narrazioek, izan aspaldikoak, izan gaur egungoak, kutsu sexista izan dezakete eta, normalean, genero-estereotipoetan oinarritutako pertsonaiak eta istorioak agertzen dira.

Horren adibide dira pertsonaien deskribapenak, esaterako: ipuinetako protagonistak gizonak izaten dira eta emakumeak bigarren maila batean geratzen dira, protagonistaren mende. Gizonen jarrera aktiboa izaten da, hau da, dinamikoak eta ausartak izaten dira, eta emakumeen jarrera, berriz, pasibotasunean oinarrituta garatzen da. Hori dela-eta, ipuinen arlo honetan ere badago zer landua hezkidetzaren ikuspegitik, eta gero eta gehiago idazten dira hezkidetza lantzen duten ipuin eta liburuak. Proposamenetariko bat da protagonistak jarduera askotarikoak egiten dituzten neskek eta emakumeak izatea gehiagotan. Bestalde, betiko kondairak modu berri eta sormenezko batean kontatzera ere animatzen zaituztegu.

Jolasak eta jostailuak

Jolasek badute genero-estereotipoak barnertzeko funtzioa. Jolasak eta jostailuak erabiltzean, neskek zein mutilak “berezko” generoari dagozkion ezaugarriez jabetzen dira. Neskek uste dute “nesken” jolasak panpinak, soka, margoak, dantza... direla, eta mutilek, berriz, “mutilen” jolasak pilota, legoa, animaliak... direla; eta horren arabera aukeratzen dituzte jolasak eta jolaskideak.

Umetan jolasean ibiltzeko behar beste denbora hartu beharra dago. Jolasen eta jostailuen bitartez mundua deskubritzen dute, eta haren mugak, arauak eta aukerak zeintzuk diren ikasten dute. Taldean jolastuz gero, elkarrekin bizitzen eta partekatzen ikasten dute; umeei jostailuak erosteaz gain, zentzu horretan ere uste dugu garrantzitsua dela helduek ere haurrekin jolastea eredu positiboak eskaintzeko.

Jolasen eta jostailuen aukeraketan funtsezko egitekoa betetzen dute nagusiek. Horregatik, umeen-tzako jostailuak aukeratzeko momentuan beharrezkoa da hainbat irizpide kontuan hartzea: jolasek eta jostailuek gaitasun asko bultzatzen dute, hala nola, elkarlana, irudimena, adierazpena, mugimendua eta abar, eta, une egokian erabiliz gero, bitarteko egokiak izaten dira pertsona osotasunean garatzeko.



Nerabeentzako zerbitzuetan lantzeko edukiak

- Sexu-genero sistema
- Errespetua
- Harremanak
- Maitasuna
- Gorputza eta aldaketak
- Sexualitatea
- Jendarte-arauak
- Parte-hartzea
- Indarkeria
- Aldizkariak

Sexu-genero sistema

Gurasoek, jaioberria mundura etortzen denerako, sexua kontuan izanda, izena aukeratu, arropak eta jolasak erosi eta logela apaintzen dute. Jaiotzen den momentutik desberdina izaten da neskekin eta mutilekin harremanetan jartzeko duten modua. Neskekin gehiagotan erabiltzen dituzte hitz gozoagoak eta diminutibo edo txikigarriak, jarrera maitagarria eta kontaktu gehiago egoten da: lastanak, besoetan... Mutil jaioberriak gutxiagotan ukitzen dituzte, haiekin ez dira txikigarriak hainbeste erabiltzen eta gehiago estimulatu zaie gauzekin jolasteko. Konturatu gabe egiten ditugun sexu desberdintasun horien oinarrian sexu-genero sistema dago.

Horrela bada, generoa da giza eraikuntza prozesuaren bitartez gizonak eta emakumeak desberdin egiten dituzten sinesmen, jarrera, sentimendu, balio, jokaera eta ezaugarri pertsonalen multzoa.

Prozesu dikotomiko horrek mutilei ezaugarri batzuk bideratzen dizkie eta neskei kontrakoak, eta ezaugarri maskulinoei balio gehiago ematen diete, eta sexu eta generoen arabera hierarkizazioa sortzen dute. Prozesu historikoa da eta esparru guztietan gauzatzen da: familian, eskolan, lanmerkatuan, hedabideetan...

Sexu-genero sistemaren eraikuntzaren bitartez, gure inkontzientean ezarri diren ideiek eragin handia izango dute gure jarreretan eta portaeretan. Hiru urtetatik aurrera haurrek jakin badakite gizar-teak sexuen arteko bereizketa egiten duela eta, horrela, neskek "nesken gauzekin" eta mutilak "mutilen gauzekin" identifikatzen hasten dira eta hori barneratzen joaten dira. Kanpotik ezarritako

desberdintasunak modu inkontzientean barneratu eta natural biziko dituzte, hausnarketa sakona eta aktiboa egiten ez badugu.

Nerabezaroan, genero-identitateak lineala eta zorrotza jarraituko du izaten eta, sexu-estereotipoak hausnartzen ez badituzte, taldean zein maila pertsonalean zaila izango da banakotasuna azaltzea.

Horrela, eredu sexistei jarraitzen ez dieten gazteen kontrako jarrerak eta portaerak indartuko dira; mutil askok irainez definitzen dituzte femenino diren mutilak, homosexualitatea kritikatzeko dute, ez dute nesken gorputza errespetatzen, elkarri entzutea asko kostatzen zaie... Neskek, bestalde, nesken itxura "politarekin", "modarekin" bat ez datozen neskek gogor kritikatu dituzte, norbere plazeraren bilaketa ukatuko dute, maitasun-harreman idealak imajinatuko dituzte...

Gainera, nesken eta mutilen arteko harremanetan komunikazio-arazoak, lotsak, irainak, konplexuak... izaten dira; hilerokoa duen neska baten kontura barre egitea, kide batek gustuko ez duen pertsona bat gustuko duela gelan zehar zabaltzea edo arbolearen margotzea, nesken titiak eta ipurdiak modu bortitzean ukitzea...

Generoaren ezaugarriak ezin dira orokortu edo bateratu, gizarte eta aro bakoitzean irizpide konkretu eta desberdinen arabera eratu baitira.

Generoa ezin da zehaztu, ez da bat bera mundu osoan, patriarkatuak desberdintasun sexuala zehazteko duen produktua da. Horren ondorioz, errealitatea dikotomizatu egiten da; eta mundu maskulinoaren eta femeninoaren arteko apurketa

sortuko du, eta bakoitzari egokitutako balioak eta gaitasunak hierarkizatu. Bizitzaren arlo negatiboak genero femeninoarekin lotzen dira eta gutxiespen hori da egitura patriarkalaren emaitza zehatza.

Batzuen eta besteen arteko bereizketa hori gainditzeko asmoz, neskak eta mutilak nagusitu ahala garrantzitsua da sexu-genero sistemaren gaia lantzea, gaztetxoek harremanetarako modu ezberdinak eta bakoitzak bere eredu propioa garatu dezala indartzeko. Modu horretan, nork bere buruaz eta inguruneaz hausnartu beharra du, sexu-estereotipoei jarraitzeak ekartzen dituen ezberdintasunak eta mugak aztertu eta saihesteko.

Errespetua

Elkarbizitza justuago eta osasuntsuago batean ezinbestekoa eta kontuan hartu beharreko balioa da errespetua, pertsonen aniztasuna oinarrian duena. Hori lortzeko, beraz, kontuan izan behar dugu hainbat alderdi praktikara eramaten ikasi behar dugula.

Horien artean, gomendatzen ditugu bidezkoak ez diren egoerak baztertzea, besteen arazoak behatzeko sentiberak izatea eta eguneroko harremanetan elkertasuna adieraztea kontuan izatea, errespetuak teoriatik praktikarako jauzia eman dezan nahi badugu.

Harremanak

Gizabanakoa jendartean hezten eta garatzen da eta momentu oro besteekin etengabeko harremanean dago. Harreman horiek askotarikoak eta konplexuak izaten dira eta ez da erraz ikasten elkarri entzutea, ulertzea, errespetatzea edo maitatzea. Nagusitu eta askotariko esperientziak izan ahala, egoerak eta pertsonak hobeto ezagutuko ditugu, lagun berriak egitea edo lagunekin haserretzea, lagunartean ateratzea edo bakarrik gauzak egitea... norberak argituko ditu bere harreman-modua eta lehentasunak eta zaletasunak.

Gure aldetik, hezitzaileok lagungarriak izan behar dugu pertsonen arteko komunikazioa eta harreman osasuntsuagoa garatzen eta, mehatxuak eta exigentziak alde batera utzita, norbanakoaren interes, behar eta desirak ulertzen eta horiei erantzuten. Gurasoak ere ereduagarriak izango dira, sexua-

litateaz, harremanez, ikasketez, oporraldiaz edo haien arazoez... seme-alaben aurrean hitz egitean. Gaztea pertsona autonomoa dela onartzen badugu, arrazoitzen laguntzen badiogu, bizitzaz ikasteko bere erabakiak aurrera eraman behar dituela konturazten badiogu, hau da, "egiten uzten badiogu" eta intimitateak duen garrantzia errespetatzen badugu, hura harremanetarako prestatzen ariko gara.

Neskek eta mutilek, nagusitu ahala, lagunekin harremanak izateko modu asko izaten dituzte. Normalean, neskak neskekin elkartzten dira eta mutilak mutilekin, eta jolasak, kirolak eta ekintzak egiten dituzte. Sexua lagunak izateko eragozpena ez dela ohar daitezen eta adiskidetasuna konfiantzan eta berdintasunean oinarritutako jarrera dela ikus dezaten, garrantzitsua da gaiari buruzko hausnarketa bultzatzea.

Nesken arteko harremanetan taldeak txikiagoak dira, intimitate maila handiagoa eta exigentzia handiagoa izaten dituzte, erabateko taldeak dira, itxiak eta lidergoekin. Mutilen arteko harremanak, ordea, jarduerarekin edo kirolekin lotzen dira eta, konfiantzazko lagunak edo lagun minak bilatzea baino, jarduera zirikatzaileagoak egitea eta ondo pasatzea dute helburu. Talde handietan desberdina izaten da nesken eta mutilen parte-hartzea, mutilak zaratatsuago, aktiboago, barregarriago... agertzen dira eta neskak lotsatiago sentitzen dira.

Harremanetan gatazkak oso ohikoak izaten dira eta askotan biziko dituzte. Arazoa zertan datzan konturatzeko eta nolako harremana nahi duten adierazteko eta ezintasuna eta tristura baztertzeako modua.

Maitasuna

Esan genezake maitasuna dela atsegin edo gogoko dugun horretara bultzatzen gaituen sentimendua. Hori horrela izanik, maitasunaz hausnartzea gomendatzen dugu, gazteek gogoko dituzten pertsonekin harreman osasuntsuak bizitzen ikasteko eta emozio-adierazpenen garrantziaz konturatzeko.

Neska edo mutila izan, gaztea zein nagusia izan, jendarteak maitatzeko ezartzen dituen moduak gainditu eta pertsonen artean sortu eta izan daitezkeen maitasun-modu askotarikoak ezagutu eta ulertu behar ditugu. Horrekin batera, ikasi behar

dugu errespetuan eta berdintasunean oinarritutako maitasuna garatzen.

Gorputza eta aldaketak

Gorputza izaten da gure identitatea eratzeko eta gure burua identifikatzeko lehenengo bidea, ingurunearekin eta beste pertsonekin harremanetan jartzen garenean gorputzaren bidez egiten baitugu.

Horrek duen garrantzia eta balioa, beraz, ezin da errefusatu eta bigarren maila batean kokatu. Gorputzaren ezaugarri eta sentazioen bidez nesken eta mutilen arteko berdintasunak eta desberdintasunak landu daitezke, elkarri ulertuz harreman positiboagoa lortzeko. Gorputz-adierazpeneko jolasak, dantzaldiak edo lasaitze-dinamikak dira norbere autoestimua eta sexuen arteko harremanak positibo bihurtzeko baliabideak.

Gorputz-aldaketak garapenaren adierazle eta gaitasun eta interes berrien estimulutzat hartu beharrean, nesken artean horiek modu negatiboan bizitzeko joera hedatzen da; ulertzen dute hilerokoa zerbait negatiboa dela, mingarria, arazoak ekartzen dituena eta ezkutatu beharrekoa. Bestalde, gorputz ederra eta erakargarria izateko exigentzia gogorra dute eta neskenzat aldaka zabaltea eta titiak handitzea ere kezkarria da, "berealdiko argaltasunak" edertasunarekin duen loturaren garrantzia dela-eta. Mutilek ere erakargarriak izan nahi dute eta, haien kasuan, gihartsu egotea, arropak markakoak izatea.... dira kezkatzen dituztenak.

Gure helburua da gorputza plazererako eta jolasteko bitartekoa izatea, eta bakoitzak, neska zein mutila izan, gorputz bakarra eta errepikaezina duela barneratzea. Horrekin batera, ikasi behar dugu gure gorputza ulertzen, zaintzen eta maitatzen, denon zorionaren alderdi garrantzitsua dela ahaztu gabe.

Bizitzak momentu oro aldaketak jasaten ditu eta horiek modu positiboan ulertu eta onartzea lagungarria da pertsonen garapen integral eta osasuntsu bat bermatzeko. Aldaketa horiek etengabeak dira eta, gazteen artean, gorputza da aldaketa horien adierazle garrantzitsuenetarikoa. Sustatu behar dugu gazteek gorputzen aniztasuna onartzea eta

izango dituzten aldaketa fisikoek positiboki nola eragin dezaket.

Sexualitatea

Sexualitatea guztiok jaiotzen garenetik hiltzen garen arte bizi ditugun harreman afektibo-sexualak dira eta gorputzeko atal guzti-guztiak dute zerikusia horretan. Historian zehar eta tokiaren arabera, sexualitatea modu askotan bizi izan da eta bizi da eta, adinaren arabera, harreman hauek ere forma, esanahi eta balio bat baino gehiago hartzen dute. Nerabezaroaren kasuan, esaterako, gazteengan aldaketa psikiko, sozial eta fisikoak izaten dira eta haiek sexualitateaz gozatzeko duten modua ere aldatu egiten da.

Sexualitatea bizitzeko eta sentitzeko moduak, beraz, askotarikoak dira eta sentimendu, portaera eta orientazio sexual guztiak ezagutzen, ulertzen eta errespetatzen ikasi beharra dago. Horretarako, ikasi beharra dago esperientziak, iritziak eta asmoak partekatzen eta, oro har, sexualitateaz hitz egiten, beldurrak eta kezka alboratzeko eta sexualitatea natural landu eta garatzeko.

Baina azalpen teoriko horiek ez daude gizartean barneratuta. Neskek eta mutilek uste dute sexualitatea "helduen gauzak" direla eta sexualitatearekiko aurreiritzi eta mito ugari barneratzen dituzte. Pentsatzen dute heterosexualitatea dela norabide desiragarri bakarra, titiak, zakila, alua eta ipurdiak alde erogeno bakarrak direla eta koitoa praktika erotikoa desiragarria.

Hori dela-eta, desberdinak izaten dira neskek eta mutilek dituzten jarrerak, interesak eta kezka. Talde handian egonda, mutilek praktika autoerotikoak aldarrikatzen dituzte, neskek, osterak, ukatu egiten dituzte, orokorrean, nor bere gustuak eta sentazioak ezagutzeari garrantzirik eman gabe.

Koito-harremanak gero eta gazteago praktikatu dituzte eta prebentziorik gabe. Gainera, mutilek harreman-kalitateari baino kantitateari ematen diote garrantzia, eta neskek, berriz, bikotea izateari.

Gehienek uste dute maitasunaren izenean edozer gauza egin, aldatu eta jasan daitekeela. Aldi berean, ukatu egiten dute bi pertsona edo gehiago maitatzea eta, beraz, fideltasuna exijitzen dute.

Jendarte-arauak

Jendartean ia momentu oro egiten dugu topo pertsonen elkarbizitza bideratzen duten arauekin. Kasu batzuetan, badakigu zer arau betetzen dugun, baina beste askotan modu inkontziente batean onartzen ditugu.

Arauek eskatzen digute gizartean era batera edo bestera jokatzeko eta, askotan, horiek genero eredu araberako eraikita egoten direnez, emakumeek modu batean jokatzeko arauen aurrean eta gizonek beste batean, jokatzeko modu horiek naturaltasun osoz ematen direla dirudien arren.

Oraindik askok pentsatzen dute neskek zintzoagoak direla, ez dutela sortzen gatazkarik edo gatazkei aurre egiteko mutilei laguntza eskatzen dietela, drogekiko interes gutxiago dutela, etxeko arauak kezka handirik gabe errespetatzen dituztela.... Hala ere, neska gazteak saiatzen dira derrigorrezkoak diren eta onartzen ez dituzten arauak aurre egiten. Aurre egiteko modu horietan, neskek errietak eta gezurrak erabiltzen dituzte, baina mutilek, estrategia horiek ere erabiltzeaz gain, indarkeria fisikoa erabiliko dute.

Hala ere, arauak eratu egiten dira eta guk geuk ere eratu ditzakegu. Beraz, ahalegina egin behar dugu denon garapenean eta elkarbizitzan modu kolektiboan arauak eratzeko eta errespetuz bete daitezen bultzatzeko.

Gazteen kontra egin gabe, gazteekin arauak berriz planteatzera gonbidatzen zaituztegu, eta galdera batzuei erantzutea ere bai, adibidez: etxeko arauak guztion artean landu eta egunero ohea egitea beharrezkoa da? Gazteekin bat gatozen, arauak zuzenak diren eta zergatik onartzen ditugun jakiteko, garrantzitsua da horiei buruz hausnartzea. Izan ere, askotan, pentsatu gabe onartzen ditugu, gure autonomia pertsonalaren kontra ari direla kontuan hartu gabe.

Parte-hartzea

Parte hartzea da proiektu komun batean geure burua inplikatzeko. Gure inguruneari erreparatuz gero, ikusi dezakegu toki eta modu askotan parte hartu dezakegula eta parte hartzen dugula, hala nola, etxean, eskolan edo eta eskolaz kanpoko taldeetan.

Parte hartzeak aukera ematen digu bizi garen munduko protagonistak izateko eta pertsona ororentzat mundu duin eta justuagoa sortzeko. Parte hartuz gero, subjektu aktibo bihurtzen gara eta norberarekiko zein besteekiko gaitasunak garatzen ditugu.

Indarkeria

Gure jendartean indarkeriaren erabilera onartuta eta hedatuta dago eta adin-tarte guztietan gertatzen da. Indarkeriak esan nahi du besteekiko portaera erasokorrak eta diskriminatzaileak izatea. Indarkeriak forma asko hartzen ditu; ahozko mehatxuak, ekonomikoak, fisikoak, psikologikoak eta sozialak izan daitezke.

Indarkeria, gainera, pertsona eta talde berdinak zein ezberdinen artean gerta daiteke. Bullying-ak, esaterako, ezaugarri bereko pertsonen arteko gatazka esan nahi du eta, indarkeria sexistak, berriz, sexua oinarri hartuta erasotzea.

Biolentzia-egoerei erantzuteko, garrantzitsua da bakoitza bere botere pertsonalaz jabetzea berriz eta hori kanporatzeko bide ez-erasokorrak erabiltzea. Izan ere, ikusi behar dugu ez dagoela arrazoirik indarkeria erabiltzeko eta modu egokiak bideratu daitezkeela arazoak konpontzeko.

Mutilei zaila egiten zaie konturatzea indarkeria sexistaz eta harremanak izateko modu bortitza. Eredu maskulinoa mantentzen ez duten mutilak iraintzen dituzte, nesken gauzak baimenik gabe hartzen dituzte, neskek hitz egiten daudenean zarataka hitz egiten hasten dira, hezitzailea haserretu arren txarto esertzen dira, baloia pertsona baten kontra indar guztiarekin botatzen dute...


Neskek, berriz, beste indarkeria-mota bat erabiltzen dute: eraso fisikoak gutxiagotan, baina mehatxuak eta ezkutuko kritikak eta gutxiespenak gehiagotan erabiltzen dituzte. Ez da lan erraza gazteak horretaz guztiaz konturatzea, eta beharrezkoa izaten da hitz egitea besteei sortzen dieten minez, sentimendu negatiboez eta haserrealdiez.

Aldizkariak

Gazteek aldizkariak erosi eta irakurtzeko zaletasuna izan dezaketen neurrian, horiek hausnartzea ere garrantzitsutzat jotzen dugu, kontuan izanda askotan horietan ere genero-desberdintze nabarmenak izaten direla.

Izan ere, neskentzako aldizkariak, gehienetan, edertasuna, harremanak eta haien burua ezagutzeko aholkuak eskaintzen dituzte, eta mutilentzako aldizkariak, aldiz, teknologiaren, kirolaren eta autoen gaiak jorratzen dituzte.

Hori dela-eta, interesgarria litzateke gure interesak neska edo mutila izateagatik baldintzatuta dauden ezagutzea eta, horretarako, denon arteko eztabaida eta hausnarketa antolatzea.



3.3.3 Parte-hartze parekidea sustatzeko estrategiak

Parte-hartzea eta generoa elkarri lotutako bi kontzeptu dira; maila teorikoan ulertzeko eta onartzeko arazorik ez dago, baina gero, hori praktikan jartzeko orduan, askotan itxura besterik ez da izaten. Hainbat eremutan emakumeen partaidetza handitzen ari dela ikusten da, baina horrek ez du esan nahi genero-ikuspegia barne dagoenik, ez du bermatzen berdintasuna ematen denik. Ez da nahikoa emakumeak eta gizonak egotea, ez da nahikoa oso diskurtso ausarta izatea edota emakumeen diskriminazioaz jabetzea.

Hortaz, hona hemen parte-hartze parekidea sustatzeko hainbat estrategia:

- Harreman berriak (berdintasunean oinarritutakoak, justuak...) eta nork bere identitatea sortu eta garatzea.
- Komunitatea bera ahalduntzea, kideen elkarrekiko erantzukizuna handitzeko, neskek zein mutilek sexu-genero arauak debekatzen dizkieten eremuetan boterea garatzeko.
- Genero-bazterkeriarik gabe, guztien ametsak kontuan izatea.
- Gatazken trataera integralagoa izatea, justizia zein etika kontuan izanik, eta baita ere emakumeei gehiagotan dagozkien arazoei garrantzia emanez.
- Elkarbizitzarako positibotzat jotzen ditugun ezauzgarriak kultura "femeninoenak" zein "maskulinoenak" izatea.
- Antolakuntza horizontala eraikitzea: sare-lanak, lankidetzak.
- Beste era bateko lidergoa bultzatzea: lidergoa edozein eraldaketarako nahiak eta interesak batzea baino askoz gehiago da: alegia, begiratzen, entzuten, onartzen, ohartzen jakitea; besteak zer egiten dakien, zertan sentitzen den ziur, zertan den bakarra... kontuan hartzea; taldekide bakoitzak proiektuaren protagonista dela sentitzea, proiektua bizitzea.
- Taldeak osatzerakoan, kuotak erabiltzea.
- Zereginen eta rolen banaketetan sexu-generoko estereotipoak apurtzea.
- Jarduerak antolatzerakoan, nesken interesak ere kontuan izatea, motibazioa pizturik mantentzeko.
- Eremu ezberdinetako emakumeen erreferentzia eta ereduak izatea.

- Komunikazioan estilo "femeninoak" ere erabiltzea, nesken iritziak ezagutzea, denok hitz egiteko aukera izatea.
- Parte hartzeko denboraren erabilera parekidea izateko ikasketa kooperatiboan erabiltzen diren lankidetzak erabiltzea.
- Adina, sexua, generoa, etnia... dela-eta, talde segregatuak erabiltzea beharrezkoak direnean.
- Bileretan edota gazteekin egiten ditugun asanbladetan arauak finkatzea, ohikoak izaten diren jarrerak ez izateko (emakumeak gutxiestea, estereotipo femeninoak indartzen dituzten txisteak, komentarioak, emakumeak ikusezin bihurtzea, txanda ez errespetatzea, esandakoa kontuan ez izatea, hitz egiten duen bitartean gainontzekoek bestelako gauzak egiten aritzea...) eta aktak jasotzea.
- Partaidetza ez da egoera estatikoa, prozesua baizik. Horrek esan nahi du etengabe zaindu eta eraiki egin behar dela. Parte-hartzeak izan ditzake ageriko momentuak, bozketak esate baterako, baina momentu horiek parte hartzeko prozesuaren baitan dute zentzua; hau da, bozketak berak, adibidez, partaidetzaren ikuspuntutik, zentzua izango du prozesuaren nondik norakoaren arabera.
- Taldeko partaide izateko sentimendua indartzeko, nesken zein mutilen beharrak kontuan izatea.
- Helburuak eta interesak partekatzea, hau da, proiektua da taldekideak batzen dituen.
- Egon daitezkeen inplikazio eta konpromiso maila ezberdinak zehaztea eta agerian uztea.
- Denboraren eta espazioen erabilera parekidea izateko neurriak hartzea.
- Aske eta gune seguruan sentiarazteko baldintzak jartzea.



3.4 Ebaluazio-sistemaren diseinua

3.4.1 Ebaluazioaren garrantzia

Guztiok eman behar izaten ditugu egindako lanari buruzko azalpenak; izan ere, esleitzen dizkiguten baliabideen erabileraren erantzule gara. Zerbitzu bat ematen diogun hezkuntza eta aisialdiko komunitatearen aurrean, nahiz baliabideak ematen dizkigutenean aurrean, guk geuk dugu erantzukizuna; horregatik, **zerbitzuko jarduera profesionala ezbaian jarriko duen hausnarketa- eta azterketa-sistema** behar dugu, betiere genero-analisia kontuan izanik:

- Egunez egunekoa, orientazioan aldaketak sartu ahal izan ditzagun eta egiten duguna hobetu dezagun.
- Sistematikoa, urterokoa; hau da, gure jardueraren efikazia azter daiteke egindako aldaketak aztertuz eta etorkizuneko plangintzetarako ondorioak ateraz.

Oinarrizko hiru galderari erantzun behar zaie planak eta proiektuak ebaluatzerakoan:

- Helburu bat bete bada edo jarduera-multzo bat aurreikusi bezala gauzatu bada, zer gehiago egitea baloratu dezakegu?
- Jarduera baten emaitza positiboa edo helburu baten lorpena nola ebaluatu ditzakegu?
- Zer lorpen-maila neurtuko dugu?

Oro har, helburu edo jarduera baten egoera eta segimendua “lortu nahi zen edo itxaroten zen helburuarekin” alderatuta neurtzen da; eta erreferentziako helburua plangintzaren unean agertzen da, hura gauzatea zertan datzan zehaztu behar baita.

Segimendu- eta ebaluazio-prozesuak proposatuta egon behar du plangintzaren hasiera-hasieratik, hau da, plan estrategikoa egitean edo programak nahiz proiektuak proposatzean. Horretarako, kontuan izango ditugu irizpide hauek:

- **Garrantzia eta funtzionaltasuna:** Identifikatutako oinarrizko premiei erantzuten zaie?
- **Eraginkortasuna:** Proposatutako helburuak lortzen al dira?
- **Iraunkortasuna:** Baliabideak behar bezala erabiltzen al dira?

Ebaluazio-sistemaren hiru dimentsioak

Segimendua: proposatutako jarduerak erregularatuz eta etengabe behatzen eta azertzen dituen prozesua da. Horrela, aurreikusitako emaitzak lortzen direla bermatzen da. Segimendua barrutik egiten dute programaren arduradun diren pertsonak, esleitutako baliabideak nola erabiltzen diren, jarduerak aurreikusi bezala egiten diren eta ezarritako helburuak lortzen diren egiaztatzeko. Segimendua, azken batean, baliabide-erabileraren eraginkortasunean oinarritzen da.

Berrikuspena ere barne-zeregin bat da, baina jarraipena baino sistematikoa; normalean, proiektuaren fase bat amaitzean egiten da. Programaren garapena doitzeko, zuzentzeko eta hobetzeko balio du, eta programaren eraginkortasunean oinarritzen da; hau da, aurreikusitako helburuak lortzen diren egiaztatzen du.

Ebaluazioa bera programa baten emaitzen azterketa osoa da. Ebaluazioa barrutik nahiz kanpotik egin daiteke; hau da, programaren arduradun zuzenek barne-ebaluazioa egiten dute, eta programarekin zerikusirik ez duten ebaluatzaileek kanpo-ebaluazioa egiten dute, erabakiak hartzen dituztenei nahiz erabaki horiek eragindako pertsonari etorkizuneko ondorioak ateratzen laguntzeko. Normalean, fase baten amaieran edo proiektuaren amaieran egiten da berehalako inpaktua ebaluatzeko (inpaktuari dagokionez, proiektu orok izan beharko litzuke genero-inpaktua ebaluatzeko tresnak); halaber, denboratarte handiagora egin daiteke, jardueren inpaktua eta iraunkortasuna behatzeko, zikloan, etapan edo zerbitzu osoan.

3.4.2 Ebaluaziorako adierazle-motak

Zer dira adierazleak?

- Adierazleak funtsezko elementuak dira plangintzaren helburuak, prozesua eta emaitzak fase guztietan betetzen diren neurtu ahal izateko.
- Adierazleak azaltzen laguntzen dute zelan aldatzen diren gauzak denbora pasatu ahala. Ematen duten informazioa laburra eta neurtua da.
- Zenbakien bidez adieraz daitezke, edo baldintza jakin baten aldaketa kualitatiboak azaltzen dituzten prozesu edo gertakarien deskribapenaren bidez.

Adierazle-motak

Prozesu-adierazleak

- Neurketa honek ekintzen/jardueren garapena, gauzatzea eta moduak ditu ardatz.
- Adierazle hauen bitartez errazago neurtzen da zerbitzuaren (eta honen funtzionamenduaren) eta heziketa-praktikari buruzko informazioa.

Efektu-adierazleak

- Epe labur eta ertainera espero ziren eraginen/ondorioen emaitzak adierazten dituzte.
- Efektu-adierazleek helburu zehatzen lorpena neurtzen dute.

Inpaktu-adierazleak (hauek udal-teknikarien esku gelditzen dira; epe luzerako baitira)

- Zerbitzuan gauzatutakoaz baino harago doan efektua neurtzeko balio dute, alegia, orokorrean herriko biztanlerian izandako eragina.
- Normalean, helburu orokorrekin eta misioarekin lotuta daude.
- Beraz, epe luzera lortutako emaitzak neurtzen dituzte.

Adierazleen ezaugarriak

- Zehatzak izan behar dira.
- Proiektu zehatz baterako egokituta egon behar dira; mamitsuak.
- Formulazio motza eta sinplea: ondo definituak eta argiak.
- Aldaketa-objektuan aldaketak eman direla ikus-teko baliagarriak izan behar dira.
- Fidagarriak izan behar dira.

3.4.3 Ebaluaziorako tresnak

Ondoren, ebaluaziorako bi elementu aurkezten dizkizuegu. Bata, **egunez eguneko esku-hartzearen balorazio orokorra egiteko fitxa** (hau adibideekin beteta); eta bestea, **hezitzaileen jarduna behatzeko eta ondoren hau ebaluatzeko fitxa**:



FITXA 4 – Egunez eguneko balorazio-fitxa (txantiloia eranskinetan: 63. orria):

EGUNEZ EGUNEKO BALORAZIO-TAULA	
DATA:	ERABILTZAILE-KOPURUA:
HEZITZAILEEN DINAMIZAZIOA:	
<p>Gaur zerbitzuko hezitzaileen artean ondo banatu ditugu, bai funtzioak, bai rolak. Hala ere, hezitzaileetako bat (emakumezkoa) deseroso sentitu da eguneko azken ekintza dinamizatzerakoan.</p> <p>Ekintza eskulanak egitea zen eta bakarrik sentitu da; beste hezitzaileek mutil-talde bati eskaini behar izan dioten arretak eraginda.</p>	
ERABILTZAILEEN PARTE-HARTZEA:	
<p>Gaurko eguneko lehenengo zatian, erabiltzaileak, jolas eta ekintza libretan ibili dira. Hortaz, parte-hartzea anitza izan da; bakoitza bere espazioan eta bere konfiantzako lagunen artean egon da.</p> <p>Bigarren zatian (ekintza gidatuan), parte-hartzea orekatuagoa izan da. Hala ere, mutil talde batek ekin-tzan parte ez hartzea erabaki du; eta horren ondorioz, hezitzaileen lan-talde osoa ezin izan da ekintzan zentratu.</p>	
LORTU NAHI IZAN DENA (helburuak)	
<p>Gaurko helburuak erdizka lortu ditugu. Helburua erabiltzaileak eskulanetan lasai ibiltzea eta talde-lana sustatzea zen. Eta gertatutakoaren ondorioz, ez dugu lortu talde guztia horretan ibiltzea.</p>	
HEZKIDETZA-IKUSPEGITIK ZER?	
<p>Argi dago eskulanak ez direla beti mutilentzako erakargarriak; eta gaurko egunean hau agerian geratu da. Hortaz, hurrengo egun baterako, hobe da ekintza gidatuan parte hartu nahi ez duten erabiltzaileei hau azaltzea eta haien artean parte-hartzea bultzatzea.</p> <p>Beste neurri bat honakoa litzateke: ekintza gidatuan parte hartu nahi dutenak egon daitezke soilik ekipamenduan.</p>	
BESTELAKOAK (aurrera begira kontuan hartzekoak, hobetzekoak, indarguneak ...)	
<p>Aurreko atalean zehaztutako neurria txertatzen saiatuko gara.</p>	

FITXA 5 – Hezitzaileen jarduna behatzeko fitxa: (Informazio hemen bete daiteke)

Hezitzaileen jarduna behatzeko eta ondoren ebaluatzeko irizpideen fitxa:

1. DENBORA/PARTE-HARTZEA/INIZIATIBA

Nork hartu du inizatiba?

- Hitz egitean
- Proposamenak botatzean
- Antolaketa edo akzio beharra dagoen momentuetan

Iniziatiba falta izan dutenek zergatik da?

- Hitz egiteko tarterik ez delako egon
- Nahi izan ez duelako (hala erabaki duelako edo interes, motibazio... falta)
- Beste pertsonen proposamenei indartzen/kontuan hartzen/balioa ematen zaielako izan daiteke?
Hala bada, noren proposamenak indartu dira gehienbat? Eta maiztasun handiz izan da?

Elkarrizketak mozteko joerak:

- Nola moztu da? Nori?
- Moztu duenak zein jarrera hartu du? Hitz egiten segitu du ala bestearen txanda errespetatu du?
- Moztu duenari jarraitzen utzi diogu ala isiltzeko esan zaió?

2. TONUA

- Ahots bat beste baten gainetik gailendu al da? Zein unetan gertatu da?
- Genero batekoa ala beste batekoa izan, tonuari dagokionez, interakzioak ematean ezberdintasunik nabaritu da lantaldean?
 - Elkarrizketetan
 - Agurretan

3. ARDUREN BANAKETA (Rolak)

- Lan-banaketa egiteko orduan, generoaren arabera diskriminaziorik egon da? (suertatu daitezkeen rol ezberdinak zerrendatu eta nola banatu da?)
- Lan eta ekintzetan rolen banaketa kontuan hartu da koordinazio-bileretan? Rolen txandakatzea denon artean adostu dugu?

4. HIZKUNTZA (ahozkoa zein idatzizkoa- gutun, kartel ...)


- Sexu-genero sistemak aitortzen dituen bi generoen interesak asetu ditugu testuinguruak hala eskatu duenean?
- Erabiltzaileekin hitz egin dugunean, bi generoen ideia hori hausten saiatu gara eta intersexualak izango balira bezala tratatu ditugu?
- Normalizat hartzen ditugun aipuak sexistak dira? Nolakoak erabili ditugu? Bota eta gero, norberaren hausnarketa etorri da?

5. GORPUTZ-JARRERA

- Zein gorputz-jarrerarekin sartu eta egon gara?
- Nola banatu dugu espazioa?
- Elkarrizketa gurutzatuak ala igorle eta hartzaile bat baino gehiago egon direnean, begiradekin nor indartu dugu? Edo nori begiratu zaio gehien?
- Ba al dago zerikusirik begirada, genero eta landu ditugun gaien artean?

4

UDAL TEKNIKARIAK: hezkidetzaren aldeko apustua eta babesa



4.1 Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako
teknikarien funtzioak eta jarraipena

4. UDAL-TEKNIKARIAK: hezkidetzaren aldeko apustua eta babesa

4.1. Haur, nerabe eta gazteen sustapenerako teknikarien funtzioak eta segimendua

4.1.1 Teknikarien funtzioak

Hauek dira udal-teknikarien funtzioak hezkidetzaren lanarekiko:

- Herrietako haur eta nerabeen zerbitzuetan egiten den lan hezkidetzaren lanaren berri izan behar dute. (Sistemak HNGen sustapen-teknikarien funtzioetan zehazten dituen honako atal hauekin lotuta: planifikazioa, programazioa, ebaluazioa eta barne-antolakuntza).
- Zerbitzuen kudeaketaz arduratzen den ordezkariari, udaleko berdintasun-plana landuta eta garatuta aurkeztu beharko diote, eta horren gaineko balorazioa eta segimendua egin beharko da ikasturtean zehar. (Sistemak HNGen sustapen-teknikarien funtzioetan zehazten dituen honako atal hauekin: barne-antolakuntza, barne-koordinazioa, teknikaria-entitatea).
- Herrietako haur eta nerabeen zerbitzuetako hezkidetzaren lanaren azterketa eta segimendua egin beharko dute. Horretarako, ikasturte hasieran zerbitzu bakoitzak hezkidetzarako garatu duen plangintza ezagutu eta horren segimendua egin beharko du. (Sistemak HNGen sustapen-teknikarien funtzioetan zehazten dituen honako atal hauekin lotuta: planifikazioa, programazioa, ebaluazioa eta barne-antolakuntza).
- Udal-teknikariaren ardura izango da zerbitzuetan lanean dauden hezitzaile guztiek hezkidetzaren gaiarekiko gutxienezko jakintza-maila bat izatea. Eta ildo horretan, hezkidetzaren lanketari dago-kionez, zerbitzuan adostu eta sortu diren dokumentuak ezagunak eta barneratuak izan beharko dituzte hezitzaile denek. Hau bereziki garrantzitsua da, hezitzaile berriak lantaldeetan sartzean, ordezkapenetan, oportetako errefortzuetan... Haurren eta nerabeen sustapenerako teknikariak hau bideratu eta ziurtatu beharko du; batzuetan gaian esku hartze zuzena duelako eta beste batzuetan entitate kudeatzaileari betearaziz. (Sistemak HNGen sustapen-teknikarien funtzioetan zehazten dituen honako atal hauekin lotuta: barne-antolakuntza, giza baliabideez arduratu + barne-antolakuntza, barne-koordinazioa, teknikaria-entitatea).

4.1.2 Hezkidetzeta-lanaren segimendua:

Hezkidetzarako planingintzak zehazten dituen baliabide estrategikoen helburuak eta estrategiak lortze aldera, hainbat alderdiren segimendua egingo da. Aldi berean, alderdi horien datu kuantitatiboak zein kualitatiboak neurtzea eta aztertzea ezinbestekoa izango da. Hona hemen segimendu egokirako adibide/galdera batzuk multzokatuta:

Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Zein da hezkidetzarekiko urteko helburuen segimendua, ari dira betetzen? Ez badira betetzen, zergatik? Zer egin liteke? • Hilabete bakoitzeko helburuak eta eguneroko helburuak lortzen dira? Ez badira betetzen, zergatik? Zer egin liteke? • Zein helburu gelditu da landu gabe? Zergatik? Ekintza berezien helburuak bete dira?
Programazioa eta ekintzak	<p>EGUNEROKO EKINTZAK:</p> <p>Egunerokoan programatutako ekintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Interesguneek (baldin eta erabiltzen badira) gaiarekin lotura zuzena izan dute? Horrela ez bada, hezkidetzeta zeharka lantzeko bermea egon da? - Zein izan da parte-hartze kuantitatiboa (sexuka)? Parekoa ez bada izan, zergatik? - Ekintzak neskek zein mutilek parte hartzeko egokiak izan dira? Erakargarriak? - Zelakoa izan da nesken eta mutilen parte-hartze kualitatiboa? - Ekintzak genero-rol zehatz batzuk indartu ditu? Kontzienteki edo nahigabe? Zergatik? Zein izan da emaitza? - Erabilitako materiala eta espazioa egokiak izan dira? - Zelakoa izan da materialaren erabilpena? Eta espazioarena? - Nork/nortzuk dinamizatu dute ekintza? <p>Programatu gabeko jardueretan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Orokorrean neskek eta mutilek zertan dihardute? - Nolakoak dira haien arteko harremanak jolas libreak? - Zelakoa da materialaren erabilpena? - Eta espazioarena? Genero bakoitzak espazioa modu desberdinean erabiltzen du?
	<p>EKINTZA BEREZIAK:</p> <p>Egindako ekintza berezi bakoitzaren balorazioa (aurreko irizpideak erabili).</p>

Erabiltzaileen kopurua	<ul style="list-style-type: none">• Zein da erabiltzaileen kopurua?• Hauen artean zenbat neska eta zenbat mutil daude?• Kopurua genero aldetik orekatuta dago? Horrela ez bada, zergatik dela uste dugu?• Desoreka honen arrazoiak eskainitako ekintzetan egon daitezke? Ordutegian?• Zer egin da /dezakegu nesken eta mutilen parte-hartzea orekatuagoa izateko?
Harremanak	<ul style="list-style-type: none">• Nolakoak dira erabiltzaileen arteko harremanak?• Gehienbat generoka bildu eta izaten dituzte harremanak edo talde mistoetan dihardute?• Bananduta zein talde mistoetan egonda, haien arteko harremanak genero-estereotipoetan oinarritzen dira?• Hala bada, zer egin da /dezakegu haien arteko harreman estereotipatueta eragiteko?• Hezitzaileen eta erabiltzaileen arteko harremanetan generoak berak ezarritako mugak badira? Nola egin diezaiekegu aurre?
Hezitzaileen lantaldea	<ul style="list-style-type: none">• Zereginak eta ardurak generoaren arabera banatuta daude?• Zelakoa da denboraren kudeaketa?• Taldekideen arteko komunikazioan, harremanetan eta jarreretan hezkidetzaz-ikuspegia txertatuta dago?
Eskaerak	<ul style="list-style-type: none">• Erabiltzaileen eskaera zehatzak egon dira? Zer eskatzen dute?• Eskaera hauek genero-estereotipoetan oinarritzen dira ala ez?• Eskaera horiek zerbitzuaren jardunean txertatzerik badago?
Bestelakoak	<ul style="list-style-type: none">• Iritziak, iradokizunak, proposamen berriak....

5

BALIABIDEEN KUTXA: hezkidetzarako baliabide pedagogikoak

- 5.1 Glosategia
- 5.2 Eranskinak
- 5.3 Bibliografia



5. BALIABIDEEN KUTXA:

hezkidetzarako baliabide pedagogikoak

5.1 Glosategia

Afektibitatea: Norberarekiko eta besteenganako sentimenduak adierazteko gaitasuna, jatortasun, ontasun eta adiskidetasunaren bidez ematen dena. Emoziozko prozesu aktibo komunikatzailea da, sentimendu batzuk adierazteko gaitasun eta ekintza. Maitasuna, laguntasuna. Modu askotan adierazten diren sentimendu positiboaren komunikazio-bizipena.

Ahalduntzea. Gure buruen eta taldearen kontzientzia hartzeko prozesua da, ondoren gure posizio sozial, politiko eta ekonomikoa indartzeko. Kontzientziario hori ezinbestekoa da erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartze handiagoa izateko, antolatze eta boterea eraikitzeke. Ahalduntzearen bidez, burujabeak izateko oinarriak jartzen ditugu: autoestimua hobetzea, gaitasunak eskuratu eta garatzea, autogestioa lantzea... Horregatik esan daiteke ahalduntzea, prozesuaz gain, emaitza ere badela.

Androzentrismoa: Gizonezkoen dagozkien berezotasunak eta ezaugarriak unibertsoaren ardatz eta errealtatea aztertzeke parametro gisa kokatzen ditu. Horrela, legegintza, egituratze eta antolakuntza soziala gizonezkoarekin nahasten du, gizonezkoa giza espeziearen ardatz erreferentzial edo esperientzia unibertsal gisa irudikatuz. Emakumezkoak gizonezkoekiko bigarren maila batean utzi eta ezkutatu egiten ditu.

Aukera berdintasuna: generoa, arraza edota klase soziala direla-eta, desberdintasunak sorrarazten dituzten oztopo sozialak desegiteke politika zein jarrera kolektibo eta indibidualak.

Autoestimua: nork bere buruarekiko duen baliozko jarrera: positiboa edo negatiboa. Gizartean norberarentzat eredugarri diren pertsonen iritziak norberegantuz edo barneratuz eratzen da. Gaitasun honekin pertsona bere burua errealtatera egokituz baloratzeko gai izango da, genero-estereotipoak gaindituz, eta abiapuntutzat norberaren singularitasuna hartuz.

Autonomia: Bakoitzak erabakiak hartu, ordenatu eta gauzatzeko duen gaitasuna, beste pertsonen aurrean

agentea den eta erantzukizun indibiduala duen izaki bezala sentitzeko eta bizitzeko.

Balioak: Kontzeptu antolatu eta hierarkizatuak osatzen dituzten gizarte-eraikuntzak, gizakien portaerarengan eragina dutenak. Unetik unera, lekutik lekura eta kultur sistematik kultur sistemara aldatu egiten dira.

Behaketa: Ikusi, entzun, aditu eta aztertzeke prozesua, jakin-mina, autonomia, hausnarketa eta adierazpen-tresnak erabiliz. Inguruko gauzez ohartzea, gauzak identifikatzea, aintzat hartzea. Azterketa aktiboa.

Curriculum Ezkutua: hezkuntza formal, ez-formal eta informalean irakasten diren eta curriculum esplizituan agertzen ez diren gaitasun, balio, jarrera, jokabide, rol eta estereotipoen transmisioa.

Diskriminazio positiboa: sexu eta talde sozial baten egoera kaltetuaren onarpena eta desoreka hau konpentsatzeko joera. Ekintza positiboa da diskriminazio positibotik, sexuaren arabera, gure gizartean dauden ezberdintasunak konpentsatzeko ezartzen diren neurrien multzoa. Justizia eta konpentsazioko ekintza da, baina ez beste sexuaren kontrakoa.

Emozionalitatea: Edozein motatako emozioak sentitzeko eta esperimendatzeko gaitasuna. Sentimenduak eta emozioak (maitasuna, gozotasuna, laguntasuna, ontasuna, begikotasuna, agresibitatea, biolentzia, amorrua, haserrea...) arlo publikoan zein pribatuan adierazteke gaitasuna, generoaren estereotipoak gaindituz. Sentimenduei jarraituz jokatzeko gaitasuna.

Enpatia: besteen egoeran jartzeko edo jartzen saiatzeko gaitasuna, nahiz eta berarekin ados ez egon. Besteen sentimenduak identifikatu eta ulertzea (edo ulertzen saiatzea), baina ez bizitzea.

Estereotipoa: Jendartean onartua izateke norbanakook jarraitzen ditugun eredu hegemonikoak. Eredu hauek aurreiritzietan oinarritzen dira eta sistema kapitalista patriarkalaren birproduktzioa bermatzen dute.

Feminismoa: Zapalkuntza patriarkalari aurre egin asmoz, testuinguru desberdinetan emakumeek beren egoerari buruzko hausnarketatik abiatuz eratu dituzten askapenerako teoriaren multzoa. Jendartearen antolaketan gizonen katearen duten nagusitasuna eta emakumeek pairatzen duten mendekotasun-egoera aztertzeke, ulertzeke eta iraultzeke garatu diren kontzeptu eta tresna teorikoen, zein aldarrikapenen multzo koherentea da. Historikoki emakumearen askapen-borroka ardatz gisa hartu duen filosofia da feminismoa. Teoria desberdin asko biltzen ditu bere baitan, baina komunean honakoa du: emakumeen zapalkuntza-egoera gainditu eta harreman parekideetan oinarrituko den jendartearen eraikitzea.

Generoa: Ezaugarri biologikoetan oinarrituta jaiotzatik egiten den balioen eraikuntza kulturala. Denboran zehar aldaketa handiak jasan izan dituen kontzeptua, kultura eta garai historiko ezberdinek baldintzatua. Sexu bakoitzarentzat jendarte portaerarekiko dauden itxaropenak izendatzen ditu generoak. Modu horretan, eta genero-erakuntza kontuan hartuta, pertsonak bi multzotan banatzen ditugu: emakumeak eta gizonak. Sexuaren arabera egiten den eraikuntza soziokultural honek bi kategoria ondorioztatzen ditu: maskulinoa eta femeninoa.

Genero-azterketa: emakume eta gizonen arteko ezberdintasunak identifikatu eta ulertzen saiatzea, haien testuinguru historikoan eta kokapenean oinarrituta.

Genero-identitateak: sexuaren arabera norberak gizartetik jasotzen duen informazioagatik (estereotipoetatik, familiaren balioetatik, modan dauden eruedetatik, liburu eta komunikabideetan erakusten diren bizimoduengatik...) maskulino edo femenino izatearen kontzientzia; berau sostengatuko duten rol, jokabide eta jarrerak bereganatu eta erreproduzitzea.

Genero-indarkeria. Emakumeen kontrako indarkeria. Legearen arabera, harreman afektiboen eta harreman afektibo izandakoen baitan emandako indarkeria fisiko zein psikologikoa da, soilik horrek jasoaz babes juridikoa. Hala ere, genero-indarkeria egiturazkoa da: indarkeria fisikoa, psikologikoa, legala, laborala... Harreman afektibo-sexuala gaindituz, emakumeen aurkako indarkeria sistemikoa.

Genero-rola: Jendartearen sexu bakoitzari ezartzen dizkion ezaugarri, gaitasun, balio eta portaera multzoa. Genero rolen artean hierarkizazio bat ematen da, gizonen atxikitzen zaizkien rola emakumeenak baino botere eta balio gehiago dutelarik. Rol hauek dikotomia kontrajarrian

oinarrituak daude: natura /kultura, emozioa /arrazoia, erreproduzizioa /produzizioa, arrosa /urdina,...

Hegemonia. Jendartearen gailentzen den eredu, eragile batek besteekiko duen nagusitasuna (balio patriarkal edo errealtatearen ikuspegi androzentrista, esaterako).

Hezkidetzak: Genero-irizpide patriarkalei muzin eginez eta balio feministetan oinarrituta hezteko da. Patriarkatua mantentzea ahalbidetzen duen hezkuntza-eredua dugu gaur egungoa. Txiki-txikitatik heziak gara emakume eta gizon izateko, biei kontrakotasun batean eta ordena hierarkikoan oinarritzen diren rol ezberdinak esleituz. Horretaz gainera, genero-rol horiek ezaugarri fisiko baten arabera ezarriko dira; hala, aludunei genero femeninoa esleitzen zaie eta zakildunei maskulinoa. Dikotomia horretan oinarrituz, egungo hezkuntza-ereduak sistema patriarkala errepikatzen du. Hezkidetzak, ordea, parekotasunean oinarritutako hezkuntza-eredua bilatzen du.

Identitatea: Bakoitzaren eta taldearen nortasunaren ezagupenaren bitartez, erabaki ezberdinak era aske eta autonomo batean hartzeko gaitasuna. Ni-tasunaren zentzua, denboran zehar nortasunari batasuna ematen diena. Nerabezaroan maiz despertsonalizazio-fenomenoak agertzen dira, sasoi horretan gertatu ohi den nortasunaren berrantolamenduaren ondorio gisa.

Lan erreproduktiboa: Giza erreproduziorako zein giza bizitzaren iraupenerako ezinbestekoak diren zaintza eta arretaren multzoa dira, historikoki emakumeek dohainik burutu dituztenak. Heziketak, laguntzak, elikatzeak, zaintzak, entzuteak, etxearen garbiketa eta mantenuak... osatu dituzte historikoki lanok eta, emakumeen ugalteko gaitasunak berarekin dakartzan gaitasun naturalak izatea aitzakia hartuta, emakumearen funtzioa izan dira familian. Lan horiek dohainik eta maitasunaren izenean burutzeak izugarritzko eragina du ekonomian bai enpresaburuentzako, baita estatuentzako ere, ezinbestekoa den lan eta funtzio bat ordaindu behar ez izatea baitakar. Lan-merkatutik kanpo kokatutako lana izatearen ondorioz, ez da sozialki batera baloratua, eta horretan lan egiten duten langileen (gehienak emakume eta etorkinak) baldintzak bereziki prekarioak izaten dira. Zaintza-lanen ikusezintasuna nabaria izan arren, ezinbestekoak dira bai jendartearentzako, baita ekonomiarentzako ere.

Lan produktiboa: Produkzioa, zentzu zabalean, ondorioak dituen edozein ekintza izan daiteke. Aldiz, zentzu hertsian, soilik beste objektu bat sortzera bideratzen den ekintza da, hau da, beste zerbait produzitzen duena.

Gizarte kapitalistan produkzioa merkatuari lotuta dago; horregatik, soilik merkatutik eta diru-ekonomiatik pasatzen dena da lan produktiboa. Teorikoki, “ekonomia” familiaratik banantzen da. Zentzu horretan, produkzioak ez ditu kontuan hartzen emakumeek historikoki burutu dituzten lanak, hortik dator beste “produkzio-eremu gisa aldarrikatzeko arrazoia.

Maskulinitateak: Maskulinitateak eraikuntza sozial anitz eta aldakorak dira: kultura, historia eta sistema sozioekonomikoak eraginda aldatzen dira. Maskulinitate-ideologia desberdinak elkarrekin bizi eta hierarkikoki antolatzen dira. Gure jendarte patriarkalean, gainerako maskulinitate ereduak gailentzen zaien maskulinitate eredu hegemoniko bat dago, eta hori hartzen da gizontasunaren irudizat, gizon izateko gainerako moduak ezkutatu.

Matxismoa: Sistema patriarkala oinarri duen indarkeriazko egituraketa, jarrera eta praktika soziala; esparru orotan gizonetzkoaren boterea gainjartzen zaio gainerakoari. Matxismoak emakumeen eskubideen ukazioa eta horien zapalkuntza ahalbidetzen du. Jendarte-harremanetan gizonaren nagusikeria adierazten eta emakumeak gutxiesten dituen jarreraren multzoa da. Feminismoa 70eko hamarkadaren inguruan “interseksionalitate” hitza erabiltzen hasi zen indarkeria anizkoitzari erreferentzia egiteko; izan ere, ikusi zen indarkeria desberdinak zeudela (generoa, arraza eta klasea, besteak beste), eta guztien arteko artikulazioak operatzen zuela subjektibitateengan.

Parekidetasuna: Berdintasunaren kontzeptua gaintuz eta sexuen arteko erlazio sozial berriak ikuspuntu feministatik definitzeko asmoz, feminismoak proposatutako terminoa da. Pareko eta parekide hitzak, desberdinak izan arren, paralelo, antzeko, analogo, balio eta maila berekoak diren errealitateak izendatzeko erabiltzen dira. Kide hitzak “sail, multzo, elkarre... bereko pertsona edo gauza” esan nahi du.

Zentzu horretan, emakumeak eta gizonak pareko edo parekideak direla esan daiteke, herri eta jendarte bereko kideak direlako. Bestetik, kideetasuna, kideen artean da goen harremana edo lotura definitzeko erabiltzen da. Beraz, bi hitzak elkartuz, parekidetasuna balio eta maila bera duten pertsonen arteko harremana adierazteko erabil daiteke, alegia, Euskal Herriko emakume eta gizonen arteko harreman sozial berriak adierazteko.

Patriarkatua: Aitaren boterean datza, hau da: sistema familiar eta soziala, ideologiko eta politikoa. Honekin gizonen emakumeek interpretatu behar duten edo ez duten papera ezartzen dute, indarraren, presio zuzenaren, erritualaren, tradizioaren, lege edo hizkuntzaren, ohituren, etiketen, heziketaren, eta sexuaren araberrako lan-banaketaren bitartez, edozein egoeratan gizonaren menpe egoteko. Gizonen emakumeekiko duten menderapen-egitura bat da, biek baneraturakoa. Feminismoa da patriarkatua arrakalatzeko hasi den teoria filosofiko eta praktika soziala.

Rola: zeregin eta portaeren multzoa. Pertsona bakoitzak talde sozial konkretu batean duen estatusaren oinarria. Paper soziala.

Sexismoa: sexuaren kariaz pertsonak diskriminatzeko joera soziala, emakumeak bereziki. Interseksionalitatearekin lotura du, sexismoa beste indarkeriekin batera artikulatzen baita (generoa, arraza, klase soziala, jatorria, sexualitatea...).

Sexua: Pertsonak ar eta eme bezala bereizten dituen ezaugarri fisikoen araberrako banaketa. Sexua aurrekulturala den bereizketa; patriarkatuak gorputz sexuatuaren gainean genero-sistema eraiki du, genero bakoitzari rol, funtzio eta itzaropen batzuk ezarri. Horrela sortzen dira gizon eta emakume kontzeptuak. Hala ere, bi sexu horiek generoen sistemari erantzuten dioten arren, azken urteetako hainbat teoria feministaren araberrera, bi sexu baino gehiago daude, genero-sistemak ezkutatu egin dituenak.

Sexu-identitatea: norberak bere sexuaren kontzientzia izatea: arra, emea, intersexuala.

Sozializazioa/gizarteratze-prozesua: kokapen eta testuinguru historiko konkretu batean jaiotzeak dakarren balio, iguripen eta rolen ikasketa-prozesua. Gizarte osoak bideratzen du, ez dago kontzienteki planifikatua eta pertsona guztiok bizitza osoan zehar jasaten dugu. Homogeneizazio (arau eta iguripen sozial berberak pertsona guztiei irakasten zaizkie) eta ezberdintze (sexuaren, adinaren, maila sozio-ekonomikoaren, kulturalaren... araberrera) funtzioa du.

Zapalkuntza: Generoa, arraza, klase soziala, jatorria, sexualitatea edo ideologia kontuan hartuz sortzen den botere-harremana eta eragiten den indarkeria. Interseksionalitatea.

5.2 Eranskinak

- Fitxa 1 (Helburuen eta adierazleen taula)

HELBURUEN ETA ADIERAZLEEN TAULA HEZKIDETZAILEA

• HELBURU OROKORRA:		Prozesu-adierazleak (ikasturte erdian ebaluatu)	Efektu-adierazleak (ikasturte bukaeran ebaluatu)
BALIABIDEA	HELBURU ZEHATZA		
1. GU/LAN TALDE PROFESIONALA:			
2. GU/ERABILTZAILEEKIKO HARREMANA:			
3. MATERIALA:			
4. ESPAZIOA:			

Fitxa 2 (Hezkidetzarako baliabideen urteko plangintza)

<p>BALIABIDEAK HEZKIDETZAREN IKUSPEGITIK PLANIFIKATZEN</p>	<p>*Baliabide bakoitzetik fitxa bat egitea gomendagarria da: - Gu/lantalde profesionala - Gu/erabiltzaileen arteko harremana - Espazioa eta denbora - Materiala</p>
<p>Azalpena / Aurkezpena</p>	
<p>Urteko helburu orokorra</p>	
<p>Urteko helburu zehatzak</p>	
<p>Esku-hartzeko estrategiak</p>	
<p>Ebaluazio- adierazleak</p>	

Fitxa 3 (Esku-hartzeak planifikatzeko fitxa)

Baliabidea	Azalpena	Zergatik landu?

Nola egin aurre?

Helburuak:

-
-

Estrategiak:

Baliabideak:

Fitxa 4 (Egunez eguneko balorazio fitxa)

EGUNEZ EGUNEKO BALORAZIO TAULA	
DATA:	ERABILTZAILE KOPURUA:
HEZITZAILEEN DINAMIZAZIOA:	
ERABILTZAILEEN PARTE HARTZEA:	
LORTU NAHI IZAN DENA (helburuak)	
HEZKIDETZA IKUSPEGITIK ZER?	
BESTELAKOAK (aurrera begira kontutan hartzekoak, hobetzekoak, indarguneak ...)	

Zerbitzuetako hezitzaileen eta udal-teknikarien arteko jarraipen sistemarako tresnak

JARRAIPEN SISTEMARAKO TRESNAK (ARGIBIDEAK)

Atal honen xedea zerbitzuetako hezitzaileen eta udal teknikarien arteko jarraipen sistemarako baliogarriak izan daitezkeen tresnen azalpena egitea da. Aldi berean, orokortasunetik zehaztasunetara doan planteamendua eskaintzea du helburu:

Hiru urtetako plangintza edo plangintza estrategikoa (planifikazioa)

Hiru urtetako planifikazioa egitea oso garrantzitsua da. Alde batetik, helburu estrategikoen bitartez norabidea markatzen laguntzen digulako; eta bestetik, urteko lanaren planifikazioan zehazten ditugun helburuak hobeto definitzea ahalbidetzen duelako. Tresna hau erabiliz, epe luzera begirako diseinua egitea askoz errazagoa egingo zaigu. Eta garrantzitsuena, udaleko Gazteria Planarekin bat datozen helburu estrategikoak presente izateko oso lagungarria da.

	1. urtea	2. urtea	3. urtea
3 urtetako misioa			
Helburuak			
Estrategiak			

GOGORATU!

Helburuen katea hau da:

→ Helburu estrategikoak → Urteko helburu orokorrak → Urteko helburu zehatzak → Helburu operatiboak

Zerbitzuetako hezitzaileen eta udal-teknikarien arteko jarraipen sistemarako tresnak**Urteko plangintza orokorra (planifikazioa)**

Behin plangintza estrategikoa egin dugula, urteko plangintza egingo dugu. Lehenengo urratsa, plangintza estrategikoan zehaztutako lehenengo urteko helburu estrategikoak hartu eta helburu orokorretan bihurtzea izango da. Ondoren, ildo edo esparru bakoitzeko helburu orokorrak hartu eta zehaztetan bihurtuko ditugu; eta azkenik helburu zehatz horiek aurrera eramateko estrategiak, baliabideak, denborak eta jarraipenerako adierazle sinpleak zehaztuko ditugu.

Tresna hau oso modu orokorrean eta teknikoan ikasturtea planifikatzeko balioko digu. Honek ikasturte bakoitzeko norabidea markatuko digu.

PLANGINTZA HEZKIDETZAILEA

Helburu orokorra:	
BALIABIDEAK IKUSPEGI HEZKIDETZAIETIK PLANIFIKATZEN	Zerbitzuaren baliabideak: Gu/lantalde profesionala, e.a
Azalpena/ Aurkezpena	
3 urtetako misioa	
Urteko helburu orokorra	
Urteko helburu zehatzak	
Esku-hartzeko estrategiak	

Zerbitzuetako hezitzaileen eta udal-teknikarien arteko jarraipen sistemarako tresnak**Urteko plangintza operatiboa (planifikazioa + jarraipena)**

Tresna hau aurrekoaren jarraipena litzateke. Hemen urteko plangintza orokorrean zehaztutakoari arduradunak eta epeak jarriko dizkiogu. Hau fintzeaz gain, tresna honek hiruhilabeteko lana egituratzeko eta honen jarraipena egiteko balioko digu. Gainera euskarri bisualago bat da.

PLANGINTZA HEZKIDETZAILEA

Helburu orokorra:					
	HELBURU ZEHATZAK	JARDUERAK	ADIERAZLEAK	ARDURA-DUNAK	EPEAK
KOORDI-NAZIOA	1. Teknikariek bilerak bermatzea	1.1. Egutegia zehaztu 1.2. Hiruhileko bakoitzean ebaluazio bilera	1.1.1. Hiru data gutxienez zehaztuak 1.2.1 Zerbitzuan bilerak 1.2.2 Gai ordenak 1.2.3 Azaroan, martxoan + ekainean bilera hezitzaileekin	Teknikaria + koord. Teknikaria + koord. + hezitzaileak	Irailaren 1. hamabostaldian Abendua, martxoan eta ekaina
	2.				

HEZKI-DETZA	1. Lantalde profesionalean Hezkidetza landu	1.1. Formakuntza barne mintegia antolatu 1.2. Ordezkoentzako materiala eta harrera plana diseinatu	1.1.2. Gai berria lantzea 1.1.3. Hezitzaileen beharrak 1.1.4. Hizlaria 1.2.1 Baliabideen kutxa sortua 1.2.2 Harrera plana definitua	XXXX XXXX eta arduradunak	Irailaren 27-28 Arduradunen batzarretan (urtekoan)

Zerbitzuetako hezitzaileen eta udal-teknikarien arteko jarraipen sistamarako tresnak

Kronograma (planifikazioa + jarraipena)

Lan taldearen artean funtzioak banatzeko, jarduerak denboran kokatzeko edota koordinaziorako oso baliagarria den tresna da hau. Ildo edo esparruka banatzea gomendagarria da, eta kolore kodeak erabiltzeak bisualki asko lagunduko luke.

KRONOGRAMA EREDUA (plangintzarako edota antolaketarako euskarria)

Egitekoa	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina

Zerbitzuetako hezitzaileen eta udal-teknikarien arteko jarraipen sistamarako tresnak

Helburu zehatzen eta adierazleen taula (planifikazioa + jarraipena)

Urteko helburu zehatzen jarraipena egiteko tresna da hau. Dakizuen bezala, helburu zehatz bakoitzari bi adierazle mota zehaztuko dizkiogu; prozesu adierazleak eta efektu adierazleak.

Lehenengok urtean zehar helburu horren garapena neurtzeko balio dute eta bigarrenek aldiz urte bukaeran hauen lorpen maila eta efektuak neurtzeko.

HELBURUEN ETA ADIERAZLEEN TXANTILOIA

Helburu orokorra:		Prozesu-adierazleak (abenduan ebaluatu)	Efektu-adierazleak (martxoan ebaluatu)
BALIABIDEA	HELBURU ZEHATZAK		
Gu/Lantalde profesionala:			
Gu/erabiltzaileekiko harremana:			
Materiala:			
Espazioa:			

Zerbitzuetako hezitzaileen eta udal-teknikarien arteko jarraipen sistemarako tresnak

Jarraipenerako galdera pizgarriak (jarraipena)

Askotan jarraipena egitea edota adierazleak aplikatzea zaila egiten zaigu. Horretarako, eta koordinazio guneetan urteko lanaren jarraipenerako gidoi gisa tresna hau daukagu. Galdera pizgarrien bitartez jarraipena errazagoa egingo zaigula argi daukagu, baina adierazleen aplikazioaren garrantzia alde batera utzi gabe. Hortaz tresna hau adierazleen osagarri izatea.

PLANGINTZA HEZKIDETZAILEAREN JARRAIPEN FITXA

Plangintza Hezkidetzailleak zehazten dituen baliabide estrategikoen helburuak eta estrategiak lortze aldera, hainbat aspekturen jarraipena egingo da. Aldi berean, aspektu horien datu kuantitatiboak zein kualitatiboak neurtzea eta aztertzea ezinbestekoa izango da. Hona hemen jarraipen egokirako adibide/galdera batzuk multzokatuta:

-OHARRA: Kontsulta itzazu galdera guztiak 4. atalean-

Helburuak

- Zein da hezkidetzarekiko urteko helburuen jarraipena, ari dira betetzen? Ez badira betetzen, zergatik? Zer egin liteke?
...

Programazioa eta ekintzak

- Interesguneek (baldin eta erabiltzen badira) gaiarekin lotura zuzena izan dute?
...

Erabiltzaileen kopurua

- Zein da erabiltzaileen kopurua?
...

Harremanak

- Nolakoak dira erabiltzaileen arteko harremanak?
...

Hezitzaileen lantaldea

- Zereginak eta ardurak generoaren arabera banatuta daude?
...

Eskaerak

- Erabiltzaileen eskaera zehatzak egon dira?
...

Bestelakoak

- Iritziak, iradokizunak, proposamen berriak...



Zerbitzuetako hezitzaileen eta udal-teknikarien arteko jarraipen sistamarako tresnak

Urteko ebaluazio fitxa (ebaluazioa)

Ikasturte bukaeran, eta adierazleen bitartez helburuen efektuak neurtu ostean, hurrengo ikasturtera begirako hausnarketa kritikoa egitea funtsezkoa da. Horretarako, ikasturteko helburuak hartu eta, alde batetik, lorpen maila edo aurrerapausoak aztertuko ditugu; eta bestetik, hobetzeko aspektuak edo erronkak identifikatuko ditugu. Hau guztia tresna honetan islatuko dugu eta hurrengo ikasturtearen hasieran (eta urteko plangintza orokorra egin aurretik) hau berriro hartu eta bigarren ikasturteko helburuak are eta finduago diseinatuko ditugu.

GOGORATU ikasturte baten hasieran oso garrantzitsua dela plangintza estrategikoa erreferentzia bezala hartzea.

URTE BUKAERAKO EBALUAZIO FITXA LABURTUA

Helburu zehatza:

Lorpen maila/ Aurrerapausoak	Hobetzekoak/ Erronkak

Helburu zehatza:

Lorpen maila/ Aurrerapausoak	Hobetzekoak/ Erronkak

Hezkidetzak karpetatzea

Zein da hezitzaileen egitekoa?

1. Ahaleginak egitea ohiko generoaren estereotipoak betirako ez dezaten iraun, jakinean izanik zein diren estereotipo horiek, bai eta horiek izateko laguntza ematen duten nortasunaren aldagaiak zein diren ere. Neskatilei eta mutikoei, bi sexuetakoa nerabeei, animatu behar zaie era guztietako jardueretan aritzera eta ikasi behar dute ezin jokabide sozial ez dela, berez, ez maskulinoa ez femeninoa.
2. Garrantzi berezia eman behar zaie joko eta jolasei, horien bitartez ikasten direlako besteak beste, helduen rolak. Ideia nagusia da neska-mutilak bultzatzea denak ari daitezen era berdinean jarduera ezberdinetan, ekin-tza, abentura, aurkipena eta zientziatik hasi eta etxearen zainketari dagokiona arte. Jostailuen erabilpenari dagokionez, horietako bat bera ere ez dadila kutsu sexistarekin nahasi eta, batez ere, irudimena sustatzen eta halako trebetasun kognitiboak lantzen dituzten jostailuak aukeratzaren aldeko apustua egitea.
3. Talde jolasetan, saiatu behar da mistoak izan daitezen beti. Autore batzuentzat (Buss eta Plomin, 1979), mutikoak lehiatzeko bizitza eta arrakasta izateko prestatzen dira eta honetan jolas eta jokoen zeresana dute. Neskak eremu horretan falta den elkartasun eta lankidetzak ikuspegia eman dezakete, bai eta arrakasta nahiz porrota jasaten erakutsi ere, okerreko aitzakiarik bilatzeke.
4. Taldeetan gertatzen den arazo bat lidergoak izaten da. Gizonak (mutikoak) joera du agente jarrerak bereganatzeko eta, makurragoa dena, emakumeen jarrera, oro har, jarrera hori onartzea izan ohi da. Edonola ere, gidari baten beharra duen jolasa antolatzen denean, aukera eman behar da eginkizun hori neska batek bere gain har dezan eta gainerakoek onartzen ikas dezaten. Konpromisozko soluzio bat izan daiteke agintea txandakatzea, denek izan dezaten agintera iristeko eta egoera hori baloratzeko aukera.
5. Batez ere, ez da utzi behar neskek ikusle soil bihurtu daitezkeen, mutilak egoeraren elementu aktibo diren bitartean, pasibotasun-aktibotasun erlazio sexistak hori betirakotu nahi ez badugu behintzat. Edozein dela ere jarduera, denek parte hartu behar dute.

Haurrei nahiz nerabeei atsegin zaien jarduera bat antzerkia izan ohi da: aukera egokia da paper maskulinoak eta femeninoak bateratu eta egoera berriak bizi ahal izateko.
6. Kanpoan egiten diren jardueretan kontuan izan behar da espazioa nola erabiltzen eta banatzen den. Frogatua dago mutilek joera dutela erdi gunea beren menpean hartzeko eta neskek, berriz, inguruan sakabana-tzeko.
7. Eginbeharrak eta erantzukizunak hezitzaileek edo erabiltzaileek elkarrekin banatzea. Irteera egitera bagoaz, garbiketa eta janari kontuak (edo zaintza) bi sexuetakoen artean egin behar dituzte, ohiko jarduera batzuk bailiran. Era berean, indar fisikoa eskatzen duen zerbait egin behar denean, ez dadila mutilen eginbeharra bakarrik izan.
8. Egin diren ikerketek adierazi nahi digute hezitzaileek garrantzi handiagoa ematen dietela mutilei neskei baino. Hortaz, kasu gehiago egiten diete, haien izena maizago aipatzen dute, eredutzat jartzen dituzte eta haien partehartzea bultzatzen dute, eta horren ondorioa da mutilek neskei baino konfiantza handiagoa dutela beren buruaz. Beraz, taldeka eztabaidatzen denean zerbait, aukera eman behar zaie neskei, gutxiengoa nahiz gehiengoa izan. Ideiak proposa ditzatela edo egin beharreko jarduerak beti eztabaida daitzelako. Arlo honetan diskriminaziorik badago etorkizuneko sozializazioan eta portaeran eragina izango du, eta helburua da auto-estimua bultzatzea.
9. Kasu egin erabiltzen den mintzamoldeari. Gehienetan neskei zuzendutako esaldietan adjektibo eta txikigarri gehiago sartzen dira, bai eta pertsonekin arteko ekin-tzei buruzko aditzak ere, eta mutilei zuzendutako esaldietan ekintza eta mugimendua maizago aipatzen dira. Neskei buruan sartzen diete inportanteena dela besteek miresteko gorputz ederra izatea; adibidez, hezitzaile askok ezin dute beren erabiltzaile nesken edertasuna eta beren erabiltzaile mutilen adimena isilean utzi. Mezu hori erraz ulertzen da edozein adinetan.

Hezkidetzaren karpeta

10. Eta batez ere, arauari jarraitzeko aitzakian, hizkuntza-aren arloan emakumea ez utzi aipatzeko. Talde misto bat badugu aurrean, ahal delarik bi sexukoak aipatuko ditugu, a.b.: “tira gazteak, filme bat ikusi behar dugu ...” esaldiaren ordez beste hau izan daiteke: “Tira neska-mutilak ...” Neskek horrelakoetan ez dute zertan gelditu edo pasiboki onartu behar beren itzalpeko papera. Emakumeenak ez dira bestelako hori, maskulino ez dena, beraz hizketan ere islatu behar dira gure diskurtsoan sartzen baditugu.
11. Azkenik, aisialdiaren hezkuntzan egin beharreko jardueren artean irakurtzea funtsezkoa da. Hezkidetzaren ikuspegitik ahaleginu behar dugu irakurketak ahal den neurrian ez daitezen sexistak izan, alegia, ez ditzatela ahalmen femeninoa hainbeste mugatzen duten generoen rol tradizionalak berriro sortu. Gauza bera esan daiteke zineaz eta telebistaz. Baina irakurketa edo ikuskizun sexistak izatez gero, neska mutilekin obra horien edukia eztabaidatzea aberasgarri izango litzateke oso, eta orobat eguneroko bizitzan saihestu beharreko alderdiak zein diren adieraztea. Ustez eta maltzurkeriarik gabekoak diren produkzioak ere eduki inperialistaz eta sexistaz beterik egon daitezke; esate baterako, zenbait adituren iritziz “Lehoi Erregea” matxismoaren eredu bat da, milaka neska-mutiko eta adineko pertsona liluratu baditu ere. Filme horren gaineko eztabaida bat rol-playing anti-sexista bat baino onuragarriagoa izan daiteke.

Haurtzaroan jolasa izaten da astialdietako jarduerarik gogokoena, bai eta kanpoan egiten direnak ere; nerabezaroan dagoen gaitasun kognitiboa aprobetxa daiteke intelektualki pizgarri izan daitezkeen jarduerak burutzeko. Bide bakarra da, une oro, neskek eta mutilek maila berdineko partaidetza izatearen alde egitea, esleitu zaien generoaz ahaztu eta jardueretan murgilduz esperientzia hartu araztea, elkarren arteko kontrajarpenak ebitatzea (batzuek besteak mendera ez ditzaten), motibatzea, konfiantza ematea, sormena eta ahalmen kognitiboak suspertzea; hitz batean esateko, bihar generoaren hierarkiaren arazoei aurre egin beharko dieten pertsona helduak izango diren izaki horiek integratzea.

Hezkidetzak karpetatxoak

	Zein Baliabide estrategikorekin lotuko zenuke (zenituzke), egiteko bakoitza?	Esku hartze estrategiak proposatzen baditu adierazi <i>Zer egin behar den edo nola egin behar dugun lan adierazten al du?</i>
1.puntua	1. baliabidea 2. Baliabidea	Erabiltzaile guztiak modu berdinean animatu. Jolasak ez dutela izaera maskulinoa zein femeninoa. Gu hezitzaile bezala jolas ezberdinetan ikus gaitzatela, rol eta paper ezberdinak hartuz. Erreferentzialtasun ezberdinak eskaini jolasetan: protagonistak, ereduak, dinamizatzaileak ... Erreala dena eta estereotipatua dagoenaren lanketa egitea.
2.puntua	3-Baliabidea	Jolas eta jostailuen erabilera anitza eta aukerakoa sustatzea. Jolasa eta material ezberdinak aliatu bihurtzea guk erakutsi, landu eta eragin nahi dugun hori lortzeko. Jostailuen erabilera ez sexista egin.
3.puntua	2.baliabidea	Talde mistoak egingo ditugu ere. Talde mistoetan partaideek izango duten funtzio eta ardurak orekatuko ditugu. Txandak egingo ditugu.
4.puntua	2-baliabidea 1-baliabidea	
5.puntua	2-baliabidea 1-baliabidea	Egoera maskulinoak eta femeninoak bateratu eta egoera berriak biziartzea partaideari.
6.puntua	4-baliabidea	Espazioa nola banatu eta antolatu aurrez erabakitzea. Moduak ez betikotu.
7.puntua	2-baliabidea 1-baliabidea	Egunerokotasuneko ardurak elkarbanatuz aurrera eramatea. Era-biltzailea, hezitzailea funtzio ezberdinetan ikus dezala. Erabiltzaile guztiak funtzio guztiak hartzea eskatzea. Guk ditugun edo izan ditzakegun aurreiritziak ekidin banaketa egiterako orduan.
8.puntua	2-baliabidea	Neskei parte hartzeko, hitz egiteko konfiantza ere eskaini.
9.puntua	1 eta 2 baliabidea	Hitz egiterako orduan ez bereizketarik egitea neskari edo mutilari zuzendu behar bazaio. Hitz egiteko eredu neutroa egin. Pertsonen gaitasunak, balioak, balioztapenak egiterakoan erabilitako adjetiboak ez-sexutuak izatea.
10.puntua	1- 2 – 3	Talde mistoetan, ahal dela bi sexukoak aipatu. Emakumeak gure diskurtsoan sartu.
11.puntua	2-	Irakurketa erabiltzea. Irakurketa ez sexista egitea. Ikusitako pelikulak eztabaidatuko ditugu. Generoen rol tradizional ikusaraziz, eredu eta aukera berrietaz jabetu.

Hezkidetzak karpetatzea

Pentsatuz...Astia, aisia, emakumeak. Hainbat gogoeta. Emasia Elkartea

SEXU- GENERO SISTEMA eta GIZARTERATZE PROZESUA

Sexu-genero sistemaren eraikuntzaren bitartez, gure subkontzientean ezarri diren ideiek eta jarrerak denboraren erabilpenean eragin handia edukiko dute. Txikitatik, jaiotzen garenetik gure sexuarekiko itzarobideak markatuta daude. Gure sexuaren arabera rola, jarrerak, eta mezuak bidali eta egokituko dizkigute. Hauek, izaera eta gure portaera moldatuko dituzte. Portaera besteek itzaroten dutenarekin bat joango da osatzen, eta emakumeentzat normal eta egokitzat hartzen diren jarduerak aukeratzen joango dira.

Gizarteratzearen prozesuaren bidez, mundua dikotomikoa bihurtuko da, maskulino edo femeninoa, publiko-erretxekoa, ikuskorra-ikusezina, autonomia-menpekotasuna; biak oso desberdinak dira eta hierarkizatutakoak daude. Honek, nola ez, eragina edukiko du denboraren bizipenean.

Txikitatik egiten dugun zaletasunen aukeraketa, osatzen ari garen generoaren isla baino ez da izango, honela bada gure berdinekin aukeratzen dituzten antzekoak gutxi izango ditugu. Jokabide honek ezinbestean arazo bat dakar, gaitasun batzuk garatzen ditugula eta besteak ez.

Jostailuen bitartez etorkizuneko izaerak antolatzen ari gara, panpinekin, dendatxoetan edo sukaldetxoetan jolastean, nesken buru egituraren forma eta arau batzuk markatzen ari baikara, gauza bera gertatzen da mutilen jostailuekin. Generoaren arabera jarrera batzuk ikasten dira eta emakumeei, besteengan pentsatzeko, beti laguntzeko prest egoteko edota adostasun batera helitzeko amore ematea bezalako portaerak bultzatzen zaizkie.

Gizarteratze modu desberdinekin denbora eta lekuak erabiltzeko erantza eragina edukiko dute ... Gizarte ordena eta egunerokotasun mekanismoek gizon eta emaku-

meak helburu eta ikuspuntu desberdinak edukitzera garamatzate.....

Hezkidetzaren garrantzia azpimarratu nahi dugu. Garrantzitsua da haurtzarotik neskatoak eta mutikotxoak balio berdinekin heztea. Astialdiko hezkuntzak ere badauka zereginik, hezitzaileak aipatu ditugun genero estereotipoak gainditzeko balio berrien igoerle izan daitezke.¹

Gizarte honetan, pertsonen bizitzaren esperientzia, garapen pertsonala eta hezkuntza ez da neutroa izaten. Eta gainera, emakumeek eta gizonezkoak sozializazio prozesu arrunt desberdina bizi izan dugu eta bizitzen jarraitzen dugu.

Hezkidetzak beste jomuga bat du: "pertsonaren garapen integralerako eredu bat sortzea. Genero maskulinoak eta Genero femeninoak aipatzen duen alde positiboa aitortuz eta barneratutako alderdi negatiboen kritika eginez, pertsonaren eredu berri bat sortzeko irizpideak aurki daitezke, balore sistema berri batean oinarrituta.

Pertsona bakoitza bakarra eta errepika-ezina, ahalmen desberdinen jabe da eta hain da aberatsa alde horretatik, ezen erruz gaindituko lukeela pertsona baten garapen integrala zer den adierazteko eman nahi izango litzatekeen edozein definizio hertsia.

Pertsona bakoitzaren nortasun eta bereizitasunetik abiatuta ahaleginak egingo dira nor bere gaitasunak erabili ditzan.

Gainera, "garapenaz" hitz egiten bada, ulertzen da egiteko bidean dagoen zerbait dela, behin ere bukatzen ez dena, pertsona baten hezkuntza aldarora delako, hainbat aldagairen poderioz: adina, garaia, kultura ezberdinak, aukera pertsonalak, e.a.

¹ Generoa: sinesmen, jarrera, sentimendu, balore, jokaera eta ezaugarri pertsonalen multzoak dira, zeintzuek gizonak eta emakumeak desberdin egiten dituzten giza-erakuntza prozesuaren bitartez. Prozesu historikoa da eta maila desberdinetan gauzatzen da, familia, eskolan, lan merkatuan, komunikabideetan. Prozesu honek generoen arabera hierarkizazioa suposatzen du, ezaugarri maskulinoak balio gehiago ematen zaizkielako.

Hezkidetzaren karpeta

Testuinguru sozial honetan sortutako balore sistemaren eragina hezkuntza ez-formaleko ekipamenduetako jardueran:

Baloreen hierarkizazio hau guztia ekipamendu baten jardueran islatzen da eta handik abiatuta hezten da, transmisio mekanismo batzuk erabiliz, adibidez:

- Hezitzaileen jarrerak.
- Diseinatzen den jarduera bakoitzean bultzatzen diren baloreak.
- Espazioaren erabilera eta banaketa nesken eta mutilen aldetik, jolasetan, kirolatan, jarduera gidatuetan, jarduera librean ...
- Jokoak eta jostailuen erabileran.
- Ipuinetan eta gainerako irakurketan agertzen diren estereotipoak.
- Hizkuntzaren erabilera sexistan, genero maskulinoa guztiahaldun bihurtzen eta nesken presentzia ezkutatzen duena.
- Indarkeriazko eguneroko harremanak eta emakumeen gorputzari maiz egiten zaizkion erasoak "erreproduzitzen".
- Kirolen antolakuntza eta horietan nesken eta mutilek duten parte-hartzen eta balorazio ezberdinak mantenduz.
- Ekipamenduan egiten diren jaialdiak eta horietan birstortzen diren estereotipoak.
- Giza baliabideen eta baliabide materialen banaketa.

Ekintzabideak hezkuntza ez-formaleko ekipamenduetan, hezkidetzaren ikuspegitik:

Ekipamenduetan lehenbiziko ekintzabidea da gogoeta prozesu bati hasiera ematea hezitzaileen artean, jaso duten hezkuntza hain estereotipatuari buruz. Gogoeta horrek, gainera, haien jarrerak sortarazi eta portaerak zuzentzen dituen balore sistema berrikusteko aukera izan behar du, izan ere, haien eguneroko jarrerak berak dira heziketaren eragileak edo deuseztatzaileak.

Gogoeta prozesu hori hezitzaileen prestakuntza iraunkorraren hasiera izango da.

Ekipamendu batek bere funtzionamenduaren diseinu orokorra eta bertan egin beharreko jardueren plangintza bateratua egin behar duenean, arestian aipatu

dudan transmisio mekanismoak berraztertu beharko ditu, nesken eta mutilen garapen pertsonalari kalte egiten dioten estereotipo sexistak berriro ager ez daitezten.

Berrikuspen kritiko horretatik abiatuta soluzio konkretu batzuk bilatu beharko dira beste moduko praktika bati bide emateko, ohitura errepikatuetan erori gabe, neskak beti aipatuz, pertsona guztien arteko elkartasuna, edozein motatako erasoak inola ere onartuko ez dituen, indartuz ...

Ekipamenduko eguneroko funtzionamendu arauak, egungo balore sistema gaudituko duen sistema berri eta kritiko baten ikuspuntutik diseinatuak izan daitezke, halaber, pertsona eredu berri bat sortzeko.

"Introducción a la filosofía coeducadora" izeneko nire liburuan adierazi ditut egungo balore sistemaren transmisio mekanismoen aurrean aterabide konkretuak bilatzeko jarraibide batzuk.

Garrantzi handikoa da Ekipamenduetan ikastetxe eta Guraso Elkarteekin koordinatuta diseinatzea eta funtzionatzea.

Hezkidetzaren pertsona guztiak berdintasunean hezitzea esan nahi du, genero sozialak hierarkizatu gabeko balore, jokabide, arau eta itzaropen sistema batean. Horrek adierazten du hezkidetzaren bidetik genero batek bestearengan izan dezakeen nagusitasuna ezabatu nahi dugula.

Hezkidetzaren munduaren eta emakumeen esperientziaren hezkuntza integrala eta integratzailea. Hezkidetzaren proiektuaren asmoa da esparru publikoan nahiz pribatuan bizitzarako prestakuntza ematea.

Hezkidetzaren berriazko eskuhartze prozesu bat da, zeinen bidez neskatilen eta mutikoen garapena bultzatzen baita, bi sexu ezberdinen errealitateak abiatu eta garapen pertsonala eta eraikuntza bateratu eta ez-aurkakoa lortzeko asmoz.

Horrek berekin dakar prozesu bat, zeinetan subjektu maskulinoen eta femeninoen berdintasun eta desberdintasunetik abiatu behar baita, bai eta bi eredu integratuetatik ere.

Hezkidetzak karpetatxoak

Hezkidetzak eraikitzeke giltzarriak

- Kultura femeninoa birbaloratzea, baliotsua duen guztia hartuz.
- Generoen eraldaketa bultzatzea hezkuntza esparruetan gauzatzen den sozializazio prozesuan.
- Azken finean rolen eta sexu estereotipoen aldaketa bat proposatzen da, sexistak ez daitezen izan. Generoen aldaketa proposatzen da hierarkizazio ezaren bidetik, osagai sozialak, antropologikoak eta historikoak aitortuz, horiek kontuan izateko eta modu kritikoan aztertzeke, horrekin osagai baliotsuak jokabide eskuragarri bihur daitezen bai neskenentzat eta baita mutilentzat ere.
- Hezkidetzak desberdintasunetik jorratzeke beharraz gogoeta egitea. Ez dago bidegabe handiagorik eskubide berdinak desberdintasunean sozializatutako pertsonen eskaintzea baino.
- Berdintasuna benetan lortzeke emakumeen eta gizonen artean genero eta botereen diferentziak badaudela aitortu beharra dago, eta bide eman behar zaio eskuhartze positiboari eta aldaketarako estrategia berriak garatzeari.

Ezkutuko curriculumak

Ekipamenduetako programak gero eta hobeki antolatu eta egituratzen badira ere, haatik hezkuntza proiektu orotan agertzen diren balore eta jarrera transmisioak gertatzen segitzen du eta horrela islatzen ez badira ere plangintza ezkutaturik gelditzen dira eta hezkuntza proposamenean (esku hartzean), nahiz eta gehienetan kontziente egiten ez diren. Balore mota honi deitu izan zaio "ezkutuko curriculumak".

Ezkutuko curriculumak berebiziko eragina du hezkuntza ez formalean eta genero ereduaren transmisioan, elkarrekin ezberdinen bidez, jarduerak antolaketan

ren bidez, hezitzaileen ereduaren bidez eta horiek ikasleentz etorkizunaz duten itxarobideen bidez.

Taldearen balore sozialak, hezitzaileen jarrerak eta zeregin horretan diharduten pertsona guztiak nolakoak diren halakoa izango da ezkutuko curriculumak ere.

Honela, burutzen diren jarduerak, ondo pasatzeko eta hautazkoak direlako, egoera berezi batzuetan garatzen dira, zeinetan gazteek hezkuntza aldetik exigentzia eta presio gutxiago aurkitzen duten, eta komunikazioaren barneko harreman esparruan agertzen diren. Hezkuntza ez formalean beraz, neurri handi batean, bat-bateko eta gehiegi egituratu gabeko egoera batzuen barruan modutzen da. Egoera horrek adierazten duenez, ezkutuko curriculumaren barnean baloreen eta sineskeren transmisioak nekez analiza daitezke, beraz, gehienetan naturalizat hartzen dira eta horrek diskriminazio sexistako balizko egoerak desagertzea dakar.

Ezkutuko curriculumaren agerpenak

- Mintzaira
- Jarduerak
- Hezitzaileen eta erabiltzaileen arteko harremanak
- Antolakuntza
- Espazioak
- Edukiak
- Irudiak eta liburuek
- Taldeko harremanak
- Proiektuaren zehaztapenak

"Hezkuntza ez-formaleko printzipiorik interesgarriena eta berritzaileena TALDEKO LANAK DA. Talde orok, hezkidetzaren gaineko prestakuntza izan behar harko luke, horrela proiektuak, bere base ezberdinetan, hezkidetzak printzipioak bere egin ditzan".

Hezkidetzaren karpeta

Marko Teorikoa

Hezkidetzaren Zerbitzu Baliogintza.

Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren baitan, adin-tarte jakinentzat diren baliogintzeko zerbitzuak, ezinbesteko bilakatuko dira; haurrekin, nerabeekin eta gazteekin Sistemak duen eginkizuna burutzeko eta bideratzeko. Zerbitzuak gutxi gorabehera egonkorak izango dira eta hartzaileek ezagutu ahal izango dituzte; gainera, hartzaile-talde baten profilari edo beharrei erantzun dieten jardura edo esku-hartze jakin batzuk biltzeko eta kudeatzeko aukera emango diote Sistemari.

Sistemaren baitan egindako planteamendu osoaren arabera, dokumentu honetan, bi zerbitzuren identifikazioa berretsiko dugu esku hartze hezkidetzailerako:

- Haurrentzako (Baliogintzeko) Zerbitzua
- Nerabeentzako (Baliogintzeko) Zerbitzua

Zerbitzu horiek garatzerakoan, zeharka lantzeko hainbat baliogintza hartu behar ditugu kontuan, besteak beste: hezkidetzaren.

Hezkidetzaren xedea da, giza-banakako bakoitzaren ahalmen eta gaitasunen garapen osoa bermatzea. Gizakiak izaki zoragarriak gara; adimenaz, sormenez eta kontzientziaz hornituak, eta elkartasunerako eta lankidetzarako berezko joerak ditugunak. Gutxi bakoitza altxor bat da, errepika-ezina; ez gara beste inor bezalakoak. Baldintza egokietan, pertsona bakoitzak bere izaera propioa garatuko luke, eta guztiok ikusiko genuke ezberdin eta berezi. Eta hein handi batean, guztiok ginateke pareko.

Sexu – genero sistema oztopo handia da –ez bakarribilakaera horretan. (edukiak, Sexu Genero sistema txostenean) Sexu biologikoaren arabera, pertsonak bi taldeetan banatzen dira. Talde bakoitzeko kideengandik antzeko portaerak eta emaitzak espero dira, eta beste taldeko kideengandik bereiziko dituztenak. Eta honek zeharo mugatzen du pertsonaren garapen askea. Honen ondorioz, emakumeak eta gizonak bi giza

talde banandu eta aldentu bilakatzen gara; eta paretasunaren ordez, botere harreman hierarkikoak dira nagusi.

Hezkidetzaren beraz, kontzientea den prozesu hezitzaile da; neska eta mutilen arteko aukera berdintasunean oinarritzeaz gain, pertsonen garapen integrala lortu nahi du. Alegia, desberdintasunetik abiatuz, berdintasuna sustatzea. Hau da, pertsonen banakotasun nahiz berezitasunaren arabera, generotik haratago doan hezkuntza da, non, gizon eta emakumeei egotzitako rol, baliogintza eta portaerak kontuan hartzen diren, gaitzitu eta atzean uzteko. Hezkidetzaren, esku hartze hezitzailea da, norbanakoak eta taldeak dituen gaitasunak hobeto erabiliz eta hauek sustatuz egiten dena.

Sexuaren araberako ezberdintasunetik gabeko hezkuntza hainbat eragileren esku izan behar da (hezkuntza-koak, familiarakoak, komunikabideetakoak...), emakumeen eta gizonen balore, jarrera eta gaitasunak berdintzeko xedearekin.

Praktikan, hainbat arlotan, sexuaren arabera gizarteratze prozesu ezberdinak transmititzea oraindik ere ohikoa da. Ondorioz, neskek eta mutilen gaitasun, balore, betebeharrak, izaera eta ikuspuntu ezberdinak dituzte, eta sexu bakoitzaren garapena murriztagoa suertatzen da.

Hezkidetzaren helburua, ordea, bai neskentzat bai mutilentzat baliogintza lukeen pertsona eredu bultzatzea da, genero estereotipoen arabereko eredu partzialak gaitzitzeko.

Hori dela eta, Haurrentzako eta Nerabeentzako zerbitzuak barne hartzen dituen hezkuntza ez formalean garrantzi handia hartzen du egiten den lan hezkidetzailerako. Hezkidetzaren helburua, arlo ez formalean, ikaskuntza kooperatiboa ematea da, eta bertan parte hartzen duen pertsona guztiek zehazten dute prozesua. Bizitzaren hainbat alderdi (gizarte, kultura, banakotasun, ezagutza...) kontuan hartzen dituen prestaketa integrala da.

Hezkidetza karpetatxoak

Eredu hezkidetzaillearen abiapuntua emakumeen eta gizonen (neska eta mutilen) arteko ezberdintasuna da, baina hori desoreka bihurtu ordez, aniztasun eta aberastasun bihurtuz, eta berdintasunaren ikuspegitik jardunez, bi erduak barneratzeko, feminismoa eta maskulinoa, alegia. Horren helburua, sexu-genero sistema gainditzea da, nortasun integralak eta propioak eraikitzearen alde egiten den prozesuen bidez.

Horregatik, neska-mutilen artean hezkidetza garatzeko ahaleginak konplexuak bezain zirrargarriak dira: jen-

darteak haur eta gazteei esparru guztietan ezartzen dizkien mugak gainditzen lagundu, eta haien potentzial osoa askatzen esku-hartzea, berebiziko esperientzia da nornahirentzat.

Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistemak oinarri duen ikuspegian eta aurrez zehaztutako zerbitzuen baitan, hezkidetza ezinbesteko balioa da.

Hezkidetzak karpetatxoak

Sexu-genero sistemen ezaugarriak - Oinarri teorikoak

Sarrera

Sexua kontzeptuak naturak berez ezarritako ezaugarri biologikoei egiten die erreferentzia, eta, beraz, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko desberdintasun fisiko eta fisiologikoei.

Generoa kontzeptua, ezaugarri kultural eta sozialen (bereizgarriak, rolak, motibazioak, jokaerak...) batuketara edo multzoa da. Emakume eta gizonei bereiztuta ematen zaizkie ezaugarriok.

Kultura, gizarte eta une historikoaren arabera aldatu egiten dira genero ereduak ezaugarriak.

Kontzeptu bat eta bestea bereizteak erakutsi du gizonezko eta emakumezkoen alde biologikoetatik harago, bestelako arrazoiengatik sortu eta mantendu izan direla desberdintasunak historian zehar. Sexu biologiko bakoitzari genero eredu sozio kultural desberdinak erantsi zaizkio. Ondorioz, testuinguru sozio politiko bakoitzean emakumea eta gizona izateak zer suposatzen duen definitzen du gizarteak. Era berean, gizarteko esparru desberdinak genero ereduak arabera egituratuak izan dira.

Gizarteratze berezitua

Sexu-genero teoriak frogatu du gizarteratzea desberdina dela sexuaren arabera, jokabide eta jarrera desberdinak erakusten direla eta barneratutako aurreiritziak eta usteak ezartzen direla sexu desberdintasunen gainean. Gizarteratze-prozesuan, sexuaren araberrako, hainbat jokabide, praktika, jarrera, komunikatzeko modu eta arau sozial garatuz eta ikasiz joango gara; horiek guztiek eratuko dute azkenean genero-identitatea deitzen duguna. Garatutako eta ikasitako jokabideek gizarteko esparru ezberdinetan kokatzen ditu emakumeak eta gizonak, bien arteko botere harreman hierarkizatuak sortuz.

Genero estereotipoak

Badira emakumezkoak eta gizonezkoak zer diren eta nola jokatu beharko luketen erakusten duten zenbait aurreiritzi; horietan oinarritutako usteak dira genero-estereotipoak. Adibidez, emakumeak sentiberagoak, aldakorragoak eta ahulagoak eta gizonak, kementsuagoak eta indartsuagoak direnaren ideiek genero estereotipoen oinarri dira.

Genero rolak

Gizonei eta emakumei egozten zaizkien jokabide eta aurreikuspen desberdinak biltzen dira genero-roletan. Pertsonen bizitzako alor guztiak arautzen eta gidatzen dituzte genero-rolek. Adibidez, emakumezkoen kasuan ugalketaren rola lehenesten den bitartean, gizonezkoen kasuan produzitzeko betebeharra da garrantzi gehien daukan atala.

Genero estereotipoek eta rolek emakumeen eta gizonen garapena mugatzen dute, bizitzako eremu ezberdinak osotasunean garatzeko aukerak murrizten baitituzte eta eremu horietako bakoitzari eman behar diogun garrantzia aurretiaz finkatzen dutelako.

Hezkidetzaren karpeta

Lanaren Sexu-Banaketa

Lanaren sexu-banaketa sexu bakoitzari eman zaizkion balioen arabera eraiki izan da historikoki eta sozialki. Gizarteek genero bakoitzari esleitutako funtzioekin dago lotuta.

Lanaren banaketa hau bi printzipio antolatzailetan oinarritzen da:

- **Banaketa-printzipioa:** tradizioz, emakumeak alor pribatura bideratu dira eta gizonezkoak alor publikora; emakumeek ugalketa-lana egiten dute eta gizonezkoek produkzio-lana; lehena, eginkizun, betebeharrak, lan, obligazio ordaindu gabea da, eta, bigarrena, ordaindutako enplegua, "benetako lana".
- **Hierarkia-printzipioa:** Gizarte eta ekonomia aldetik gehiago baloratzen da lan produktiboa, "benetako lana". Kapitalaren metaketa helburu duen gizarte honetan ordain ekonomikoa duten jarduerak dira balio gehien hartzen dutenak.

Ugalketa-lana edo lan erreproduktiboa: Besteen beharra duten pertsonak hazi, maitatu eta zaintzearekin lotutako eginkizunak biltzen ditu, baita etxeko lanekin lotura dutenak ere. Salerostekoak ez diren jarduerekin du zerikusia, eta, ondorioz, ez da ordain ekonomikorik jasotzen, bigarren mailan geratzen delarik.

Lan hau, tradizioz, emakumeen esku utzi izan da.

Produkzio-lana: Bizitza politiko, ekonomiko eta sozialarekin lotura duten eginkizunak biltzen ditu. Salerosteko izaera duen produkzio-jardueratzat hartzen da, truke-balioa du, eta, beraz, ordain ekonomikoa.

Tradizioz, gizonen esku geratu izan da lan hau.

Abiapuntua

Proiektu edo ekimen batean genero ikuspegia barneratzeko oinarritzko lehen pausoa sexu-genero sistemek gazteek bizi duten errealtatean eragin zuzena daukatela kontutan hartzea da. Eragin honen ondorioz gizartean ematen diren generoen arteko botere harreman desorekatuak eta diskriminazio egoerak gazteen artean ere indarrean daude eta hauen jokabide, harreman eta izaera baldintzatzen dituzte.

Adina, jatorri kulturala, klase soziala eta beste faktore batzuen eraginez generoen arteko botere harreman desorekatuen eta diskriminazio egoeren inguruan esperientzia desberdinak bizi daitezke. Sexu genero sistemek esperientzia desberdin guzti hauek zeharkatu egiten dituzte. Beraz, faktore sozio-kultural, ekonomiko eta politiko desberdinek gazteek bizi duten esperientzietan eragin zuzena badute ere kontutan hartu behar da esperientzia guzti hauek eragin desberdina izango dutela neska gazte eta mutil gazteengan.

Hezkidetzeta karpetatxoa

4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa

– Printzipio orokorren definizioa

Tratu berdina

Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, edozein delarik ere hartarako erabilitako era.

Lege honen ondoreetarako:

- a. **Zuzeneko bereizkeria** dago pertsona bat sexuaren zioz edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla-eta –haurdun egonda edo ama izanda, esaterako– beste pertsona bat baino modu txarragoan tratatzen denean. Delitu gisa izan dezakeen tipifikazioa ahaztu gabe, laneko sexu-jazarpena sexuaren ziozko zuzeneko bereizkeriatzat jotzen da.
- b. **Zeharkako bereizkeria** dago egintza juridiko, irizpide edo eginera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo eginera hori egokia eta beharrezkoa denean, eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzeko modukoa denean.
- c. Ez dira sexuaren ziozko bereizkeria kontsideratuko justifikazio objektiboa eta zentzuzkoa duten neurriak, emakumeei eta gizonei tratamendu ezberdina ematea badakarte ere. Neurri horien artean helburu hauek dituztenak sartu behar dira: emakumeentzako ekintza positiboa, sexuei arrazoi biologikoengatik babes berezia eman beharra, edo gizonek etxeko lanetan eta pertsonen zainketan parte har dezaten sustatzea.

Aukera berdintasuna

Euskal herri-aginteek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarritzko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne. Lege honen ondoreetarako, aukera-berdintasunaz ari garela, zera esan nahi da: agintea eta baliabide eta onura sozial eta ekonomikoak eskuratzeko abiagune edo hasierako baldintzak ez ezik, horiek guztiak gauzatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzez ere ari garela.

Aniztasuna eta ezberdintasuna errespetatzea

Herri-aginteek beharrezko diren neurri guztiak abiarazi behar dituzte sexuen berdintasunerako prozesuan errespetatu daitezen bai gizonen eta emakumeen artean biologiari, bizi-baldintzei, jomugei eta beharri-zanei dagozkienez dauden ezberdintasunak eta aniztasuna, bai emakumeen eta gizonen kolektiboen euren barruan dauden ezberdintasunak eta aniztasuna ere.

Genero-ikuspegiaren integrazioa

Euskal herri-aginteek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan ezberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten.

Hezkidetza karpetatxo

Lege honen ondoreetarako, honakoa da genero- ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrian ezberdinak modu sistematikoan kontsideratzea, eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.

Ekintza positiboa

Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, herri-aginteez denboran ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko ezberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.

Sexuaren araberako rolak eta estereotipoak desagerraraztea

Euskal aginte publikoek, inola ere, sexuaren araberako rol sozial eta estereotipo batzuk desagerraraztea sustatu behar dute, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunaren oinarri baitira eta horien arabera emakumeei etxeko eremuaren ardura eta gizonei eremu publikoaren ardura izendatzen baitzaizkie, eta hori, gainera, balorazio eta aitorten ekonomiko eta sozial oso ezberdina eginez.

Ordezkaritza orekatua

Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan.

Lege honen ondoreetarako, pertsona anitzeko administrazio-organoetan ordezkariak orekatutzat, hain zuzen, sexu biek %40ko ordezkariak, gutxienez, dutenean joko da.

Lankidetzeta eta koordinazioa

Euskal herri-aginteez, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, elkarrekin lankidetzan aritzeko eta beren jarduketak koordinatzeko betebeharra dute, esku-hartze eraginkorrak eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat datozenak egin ahal izan daitezten.

Bestalde, elkarlana eta lankidetzeta sustatu behar dute Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko beste instituzio eta erakunde batzuekin, euskal herritar guztiei bermatu ahal izateko gizonen eta emakumeen berdintasuna.

5.3. Bibliografia

- EHUko Zuzenbide Fakultateko “Hezkidetzak Esku-hartzen” ikastaroko materialak (Sexu-Generoa, Feminismoa, Hezkidetzak, Partaidetzak, Gatazkak, Tratu onak eta Hizkuntza ikasgaien materialak). Donostia 2016
- EMAKUNDE, *“Enplegu eta prestakuntza proiektuetan aukera-berdintasuna bultzatzeko ekintzak”*, Vitoria-Gasteiz, 2000.
- LIKADI, *Mainstreaming o enfoque integrado de género. Manual de aplicación en proyectos de empleo*, Likadi Formación y Empleo, S.L., Madrid, 2002.
- MEANA SUAREZ, Teresa, *“La utilización del lenguaje”*, Lan Harremanetako Unibertsitate Eskolan ematen diren irakasgaien edukiak berrikusteko gidetan, Aukera Berdintasunerako Plana, UPV/EHUko L.H.U.E.
- ARABAKO FORU ALDUNDIA ETA GASTEIZKO UDALA. *“Genero ikuspegia garapen proiektu eta programetan barneratzeko Gida”*. Vitoria-Gasteiz, 2001.
- EMAISIA ELKARTEA. URTXINTXA ESKOLA. *“Jarduera hezkidetzailerako eskuliburua. Erabilera hezkuntza ez formalean”*. Bilbo 2000.
- EMAISIA ELKARTEA. URTXINTXA ESKOLA. *“Astaldian sexismoari aurre egiteko aholku sorta”*. Bilbo 2004.
- BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLA. *“Begirale ikastaroaren txostena”*. Bilbo 2004.
- BIZKAIKO URTXINTXA ESKOLA. *“Balioetan hezteko koadernoak”*. Bilbo, 2012.
- EMAKUNDE. *“Hezkidetzak astaldian”*. Vitoria-Gasteiz, 1997.
- EMAISIA ELKARTEA. URTXINTXA ESKOLA. *“Jarduera hezkidetzailerako eskuliburua. Erabilera hezkuntza ez formalean”*. Bilbo 2000.
- FARAPI ANTROPOLOGIA APLIKATUA *“Eskoletako kanpo espazioak eta hezkidetzak”*. Hernani 2003.
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA *“Gazteleketan hezkidetzak txertatzeko gida”*. Donostia 2012.
- ALVAREZ, Amaia; Euskara eta diskriminazio sexuala. IN Jakin. 142 zbk. (2004)
- APODACA, M, GONZALEZ, M eta UGARTE, B. Hezkidetzak Gida. Bilgune Feminista. 2008.
- BONAL, Xavier. Las actitudes del profesorado ante la coeducación: propuestas de intervención. Graó. 1997.
- BRULLET, Cristina; SUBIRATS, Marina. La Coeducación. Secretaría de Estado de Educación. 1990.
- COLECTIVO PEDAGÓGICO ADARRA; ZIARSOLO, Zuriñe (et.al.). Haur jolasa hezkidetzan (3-8 urte). El juego infantil desde la coeducación (3-8 años). Eusko Jaurlaritza. 1995.
- FREIXAS, Ana. La coeducación, un compromiso social: documento marco para Andalucía. Instituto andaluz de la mujer. 1993.
- Instituto Asturiano de la Mujer. Guía de Recursos de Coeducación. Gobierno del Principado de Asturias. 2001.
- Instituto Asturiano de la Mujer. Materiales didácticos para la coeducación. Gobierno del Principado de Asturias. 2001
- Instituto de la mujer. “Educar en Relación”. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. 2000
- MATARRASKAK. El libro lila del cole. Eskolako liburu lila. Matarraskak, Bilbo, 1994.
- MINISTERIO DE ASUNTOS SOCIALES. ¿Qué es coeducar?. Instituto andaluz de la mujer. 1993.
- MORENO, Montserrat: Cómo se enseña a ser niña: el sexismo en la escuela. Ed. Icaria, Barcelona, 1986.
- MORENO, Montserrat; SASTRE, Genoveva; BUSQUETS, Dolors (ET. AL.) El conocimiento del medio: La transversalidad desde la coeducación. Instituto de la Mujer. Ministerio de Educación y Ciencia, 1994.
- NIETO, Antonio. Estereotipos de género. Ed. Comissao para a Igualdade. Lisboa, 1999.
- PANIEGO, Jose Angel. Cómo educar en valores : Métodos y técnicas para desarrollar actitudes y conductas solidarias.. Edt. CCS Madrid 1999
- PINTO, Teresa; HENRIQUES, Fernanda. Coeducación e igualdad de oportunidades. Ed. Comissao para a Igualdade. Lisboa, 1999.
- POAL MARCET, Gloria: Entrar, quedarse, avanzar. Aspectos psicosociales de la relación mujer-mundo laboral, Ed. SXXI, Madrid, 1993.
- SALAS, Begoña; SERRANO, Inmaculada. Aprendemos a ser personas: manual de auto-orientación. EUB, 1998.

Haurren zerbitzuetarako material interesgarriak:

- “La coeducación y la gestión de la diversidad en las aulas”
- “130 propuestas para la coeducación”
- “La educación sexual de niñas y niños de 6 a 12 años” - Ministerio de Educación
- “Hezkidetzeta da bidea” gida – STEE-EILAS
- “Afektua eta hezkidetzeta lehen hezkuntzan” – Eusko Jaurlaritza
- “La mochila violeta” Guía de lectura infantil y juvenil no sexista y coeducativa
- “Guía de coeducación” – Ministerio de Igualdad

Nerabeen zerbitzuetarako material interesgarriak:

- “Gazteak eta berdintasuna” – Eusko Jaurlaritza
- “Ortzadar gara” - STEE-EILAS sindikatua
- “La mochila violeta” Guía de lectura infantil y juvenil no sexista y coeducativa
- “Coeducación 2.0” – Junta de Andalucía

